

# KIROLAREN EUSKAL PLANA 2003 • 2007



**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
*Kirol Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
*Dirección de Deportes*

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

**Kirolaren** euskal plana : 2003-2007.–1. argit.– Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2003

p. ; cm.

ISBN 84-457-2083-X

1. Deportes-Euskadi-Planificación. I. Euskadi. Dirección de Deportes.  
796(460.15)

Argitaraldia:	1ª. 2003ko abendukoa
Ale-kopurua:	1.000 ale
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
internet:	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkiak:	Mikel Arrazola, "Argazki" Artxiboa, Eusko Jaurlaritza eta José Sampedro
Fotokomposizioa:	Gráficas Varona, S.A.
Imprimatzea:	Gráficas Varona, S.A.
ISBN:	84-457-2081-3 (obra osoa) 84-457-2083-X (liburu hau)
Lege-gordailua:	S. 757-2004

1. Sarrera .....	9
2. Planaren beharra .....	15
3. Erreferentziazko ereduak .....	27
4. Euskal kirolaren egoeraren azterketa .....	43
4.1. Eskola-kirola .....	47
4.2. Partaidetzako kirola .....	59
4.3. Errendimenduko kirola .....	69
4.4. Goi errendimenduko kirola .....	79
4.5. Bestelako zehar-alderdiak .....	91
5. Egitekoa, baloreak eta irizpide orokorrak .....	107
6. Helburu eta ildo estrategikoak .....	111
7. Kirolaren euskal ereduak .....	119
8. Kirolaren euskal sistema .....	137
9. Lehentasunezko programak .....	151
10. Plana ebaluatzeko ereduak .....	161
11. Eranskinak .....	167



Kirolaren 2003-2007 Planak argi adierazten du Eusko Jaurlaritzak kirolari ematen dion garrantzia, gizarte-jarduera gisa lagungarri delako pertsonen prestakuntza eta garapen integrala lortzeko eta norbana-koaren eta gizartearen bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko. Kirola, gainera, gero eta gehiago da, gure gizartean, aberastasun eta enplegu sortzaile eta, gizartearen kohesioa handitzeaz gain, herrialde garatu baten irudia indartzen du.

Plan hau, Eusko Jaurlaritzak onartua, berriki eratu den Kirolaren Euskal Kontseiluak egin du adostuta, erakunde hori baita herri administrazioek kirolaren alorrean duten aholkularitza, kontsulta eta sektorekako eztabaidarako organo gorena. Plana egiteko orduan, hainbat faktore hartu dira kontuan: gure gizartean kirol-praktikak duen maila, kirol-elkarteek duten garrantzia eta azken urteotan gizarte-sektore berriak, hirugarren adina kasu, kirola praktikatzen hasi izana.

Ekimen honen bitartez, Eusko Jaurlaritzak kirol-politika egituratu eta ordenatua ezarri nahi du, edozein eragilek argi jakin dezan bere erantzukizunak zeintzuk diren. Begien bistakoa denez, kirol-politika horrek helburu zehatzak ditu: kirol-praktika maila guztietan sustatu eta areagotzea, gure herrialdearen kirol-emaizak hobetzea eta gure kirolariak kirol-maila gorenetan jartzea.

Helburu horiek lortzeko, ordea, plangintza bat egin behar da, eta zereginak behar bezala esleitu, eragile publiko eta pribatuek beren zereginak zeintzuk diren jakin dezaten eta osagarritasun eta koordinazio egoki baten bitartez emaitzak optimiza daitezzen. Plan horretan, partaide diren eragile guztien zereginak finkatzen dira, baita koordinazio-organoak ere.


Kirolaren 2003-2007 Euskal Planak aukera ematen du kirol-alor bakoitzeko ereduak (eskolakoa, partaidetzakoa, errendimendukoa eta goi errendimendukoa) euskal gizartean gauzatzeko. Datozen urteotan eredu horiek ezarriz eta jarraipena eginez, helburuetara hurbildu ahal izango gara.

Beraz, asmo handiko plan hau abiaraztera gonbidatzen zaituztet, euskal kirola egungo euskal gizarteak dituen interesen koordinadetan jartzeko. Zinez desio dut proposamen honen bitartez kirola eta horren praktika lagungarri izatea gure gizartearen osasuna eta ongizatea hobetzeko.

MIREN AZKARATE VILLAR  
*Kultura Sailburua*

SARRERA

1





Agiri honen xedea da era sistematizatuan azaltzea datozen urteotan, kirolean, EAEn egin nahi ditugun estrategiak eta ekintzak.

Kirolaren Euskal Plana osatzen duten estrategien eta ekintzen bilduma hau adostua izan da Kirolaren Euskal Kontseiluan, oinarri harturik aldez aurreko azterlanak identifikatutako beharrak; hala nola Kirolaren Euskal Sistemak ustiatu ahal dituen aukeren azterketa xehatua.

Agiri hau prestatu, eztabaidatu eta onetsi dute Euskadiko kirolari loturiko eragile gehienek:

- Aldez aurreko azterlan hura Lan Batzordeetan banaturik egin zen eta, hartan ere, Euskadiko kirolarekin zerikusia duten eragileen ordezkari kopuru nabarmenak parte hartu zuen.
- Era berean, Kirolaren Euskal Kontseiluak agiri hau eztabaidatu, adostu eta onetsi du.

Horrela, agiriari kirol eragileen iritzia eransteaz gain, herritarrek kirolaz dituzten ikuspegiak eta kirolean aritzeko dituzten moduak ere aintzat hartu dira.

Elkarlan horiek guztiak lagungarri gertatu dira kirolari buruzko esparru bat zehazteko, zehazki kirolean aritzea eta jarduera fisikoa ulertzeko modu ugariak kontuan hartzen dituen esparrua. Halaber, aukera eman digu, kirol ikuspegientzako lorpenak eta erronkak erdiestea helburu duten estrategiak eta ekintzak zehazteko.

Behar-beharrezkoa zen eragileak eta jarduera fisikoa nahiz kirola egin eta ulertzeko pentsamendu guztiak eginkizun honetan aritzea. Izan ere, agiri honetan zehaztutako erronketan aurrera eginen badugu, Kirolaren Euskal Sistemaren eskuartzen duten eragile guzti-guztien ahalegina eta ardura beharrezkoa da.

Horrenbestez, hori guztia horrela, esku artean darabilgun agiriak gonbite egiten gaitu Kirolaren Euskal Eredurantz jotzeko bidea egitera eta bide horretan herritar bakoitzak aukera izanen du bere kirol ibilbidea ziurtasun osoz lantzeko.

Jakina, Kirolaren Euskal Sistema osatzen duten kirol eragile guztiok bidelagun izan behar dugu lan hori aurrera eramateko.

Agiriaren edukia eta egitura azterturik, lehenik eta behin (2. kapitulua) Kirolaren Euskal Planaren beharra azaltzen duten argudioak ageri dira. Horrela, hasierako arrazoi batzuek diote egungo Euskal Sistema ez dagoela ongi egituratua, eta, ondoren, gizarte garatuarentzat kirolak eta jarduera fisikoak alde askotatik begira duten garrantziaz ohartarazten da: gizarte bera, hezkuntza, osasun publikoa, kultura, olgeta eta baita ekonomia ere.

Ondoren, gure inguruan dauden beste herrialde eta erregioetako kirol eredu eta egituren gaineko azterketa egin da (3. kapitulua), gaur egun kirolean eta jarduera fisikoan gertatzen ari diren errefe-



rentziatzeko eredu eta joera batzuk xeheki ikusteko. Bada, horiek erreferentziatzat jo ditugu Kirolaren Euskal Plan hau egiterakoan. Azterlan horren ondorio nagusia hau da: gero eta herrialde eta erregio gehiagotan, kirolari heltzen ari zaizkio arlo asko aintzat hartuta, hau da, ohartu dira kirolak gizartei garatzen laguntzen diela ikuspegi askotatik begiratuta: hezkuntza, osasuna, ekonomia, gizarte kohe-sioa, barne eta kanpo islapena ... Azken buruan, aipatu leku horietan, kirola gizartea garatzeko moto-rra da, beste motor batzuen artean.

Planaren hurrengo kapituluan (4. kapitulua), aztertu da nola dagoen Kirolaren Euskal Sistema gaur egun. Kontuan hartuz Kirolaren Euskal Ereduaren barnean, kirolean aritzeko lau modu bereizi direla, ba, lau mota horien aldagai batzuk aztertu dira. Hona kirolean aritzeko lau moduak: Eskola-Kirola, Partai-detzako Kirola, Errendimenduko Kirola eta Goi Errendimenduko Kirola. Halaber, kirolean aritzeko lau modu horietan ageri diren zehar-alderdi batzuk aztertu ditugu, antzeko ezaugarriak dituztelako.

Gure inguruko kirol sistema ereduak eta joerak azalduz, eta EAEkoa aztertu ondoren, beste eginkizun hau izan dugu, hots, Kirolaren Euskal Sistemaren Egitekoa, Baloreak eta Oinarri Nagusiak zehaztea. Hau da, bere funtsa eta oinarriak, haiek Kirolaren Euskal Sistema gidatuko baitute (5. kapitulua). Aipatu egi-tekoa betetzeko asmoz, helburu eta estrategia-ildoak zehaztu dira (6. kapitulua), lehenetsutako pro-gramek eta Jarduketa-ildoek jarraitu beharreko orientazio handiak ezartzen baitituzte. Azken hori 9. kapituluan ageri da.


7. kapituluak, Plana eztabaidatu duten foroetan adosturiko Kirolaren Euskal Eredua nolakoa den dakar. Zehazki, zehatzago azaltzen du kirolean aritzeko lau modu haietako bakoitza, arestian adieraziak, eta, bakoitzak dituen erronkak ere agertzen dira. Adierazle objektiboak behar ditugu, aipatu erronkak lor-tzeko bidean aurrerantz jotzen den ala ez ikusteko, baina zaila da era horretako adierazleak zehaztea. Izan ere, ez dago behar bezalako informazio fidagarriarik adierazle haietako askori buruz, EAEko bene-tako abiapuntua zein den orokorrean eta homogeneotasunez jakiteko.

8. kapituluan, Kirolaren Euskal Sistema osatzen duten erakundeen ardura nagusiak azaltzen dira, bai eta gainerako eragileak ere, publikoak nahiz pribatuak. Era berean, agertzen dira eragileen arteko harreman eta koordinaketa bide batzuk.

Plan hau egiteko, partaidetzarako metodologian euskarritu gara, adostasunean oinarritua eta lankide izan ditugu kirolean giltzarri diren eragile eta adituak. Zehazki, planak izan dituen faseak laburbildurik daude jarraian ageri den eskema xehatuan:

Halaber, Kirolaren Euskal Planaren lehen fasean zehaztu ziren bederatzi lan batzordeen gaineko azal-pen laburra ageri da. Azpimarratu behar da Plana prestatzeko prozesuan parte hartu dutenen arteko lana eta ezagutza trukaketak, partez Kirolaren Euskal Foroaren bidez egin direla. Hau da, web moduan diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez, haien guztien eskura jarri zena.

Kirolaren Euskal Plana. Metodologiaren eskema



- **Estrategia eta Antolaketa Eredua:** Kirol kudeaketan parte hartzen duten eragile publiko eta pribatuen kirol estrategia, jarduketa egitura eta erantzukizunen zehaztepenari loturiko alderdiak jasotzen ditu, hala nola haien arteko elkarreragina.
- **Ekonomia:** Kirol jarduera finantzatzeko bideak erraztu eta arautzeari loturiko kontuak hartzen ditu.
- **Azpiegiturak:** Herraldean, kirol azpiegituren sarea garatu, mantendu eta kudeatzeko eredia zehaztea eta ezartzeari dagokio.
- **Prestakuntza eta enplegua:** Kirolari loturiko antolamenduen koadroak –teknikariak, epaileak, administrariak eta boluntarioak, kasu guztietan profesionalak nahiz boluntarioak– egituratu eta prestatzeko planak ezartzeari dagokio. Halaber, barne dago Euskadiko kirolgintzan enplegua sortu eta mantentzeko neurri sustatzaileak hartzea.
- **Bikaintasuna:** Euskal kirolariek kirol lehiaketa nagusietan duten errendimendua eta parte hartzea handitzeko politika eta jarduketa lanak zehaztea, bazter utzi gabe haien prestakuntza akademikoa edo profesionala.
- **Aukerak Sustatzea eta Aukera Berdintasuna:** Partaidetza, maila guztietako kirol jardueretan handitzeko estrategiak zehaztea, aukera berdintasuna faboratuko duten politikai jarraikiz, horrela kirola gizarte kohesiorako tresna bihurtuz.
- **Osasuna:** Osasunari buruzko politika kirolean diseinatzea, bai prebentzioan (antidoping estrategiak barne) bai laguntzan.
- **Etika eta indarkeria:** Jokabide etikoak zaindu eta kirolarekin zerikusia duen indarkeriari aurre egiteko politikak eta jarduketak ezartzea.
- **Nortasuna:** Estrategia eta ekintzak zehaztea, kirolaren bidez euskaldunen nortasun ezaugarriak zaindu, bultzatu eta sustatzeko (kanpoalderako islapena, hemengo kirola, talde nortasuna eta euskara).

Aurreko eskeman ikusi ahal izan den bezalaxe, Kirolaren Euskal Plana etapa hauetan egin da:

### **1. Lan Batzordeen zehaztapena eta Oinarrizko Ponentzien idaztea**

Fase honetan edozein Kirol Sistema ezaugarritzen duten bederatzi alderdi nagusiri buruzko ponentziak prestatu ziren. Alderdi horiek adostu ziren Kirolaren Euskal Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrean, Kontseilu horren Batzarrak eginiko iradokizunak eta ekarpenak jasotakoan. Horietako bakoitzak bazituen lau atal: aurrekariak, erreferentziatzko ereduak, egungo egoeraren azterketa eta, azkena, helburuak eta erronkak, alegia.

Ponentziak idatzi zituzten, propio horretarako eta Lan Batzorde bakoitzaren baitan izendatutako pertsonen. Batzordekide izan ziren Kirolaren Euskal Kontseiluko kideak eta Kontseilutik kanpoko adituek ere gonbidapena jaso zuten egoki iritzitako ekarpenak egin zituzten.

### **2. Kirolaren Euskal Plana erredaktatu eta Onestea**

Fase honetan Kirolaren Euskal Planari zegokion testu bat adostu eta onetsi zen. Aipatu adostasuna bi etapetan landu zen, jarraian azalduko ditugunak:

- a) Lehenbiziko etapan, hasierako agiria adostu zen, Planaren aurrekariak, egoeraren azterketa, erreferentziatzko ereduak eta helburu estrategikoak barne sartuta. Horretarako, Kirolaren Euskal Kontseiluaren Batzarrean Sintesiko Agiri bat idatzi, eztabaidatu eta adostu zen. Agiri horretan, lan batzordeen ekarpen nagusiak eta lan batzorde bakoitzaren ponentziak jaso ziren. Zirriborroa idatzi ondoren, egoki iritzi zioten Batzarkideek zuzenketak aurkeztu zituzten aipatu testuari. Ondoren, Batzorde Iraunkorrek batera lan zehatzagoa egin eta aipatu agiriari buruzko testua adostu zen.
- b) Bigarren etapan, Planaren gainontzeko edukiei buruz eztabaidatu eta adostu zituzten. Hona hemen edukiak: Lehenetsuneko programak, Ekintza-ildoak eta Egin daitezkeen Ekintzak. Horretarako, Batzorde Iraunkorrean, aipatu edukia biltzen zuen hasierako zirriborroa aurkeztu zen, bereziki arestian aipaturiko ponentzietan oinarritua eta, era berean, kontuan hartu ziren aurreko etapa hartan adostutako helburu eta erronka estrategiko zehatzak.

Azkenik, Kirolaren Euskal Kontseiluaren Batzarrak balioa eman zion Planaren eduki osoari.

### **3. Kirolaren Euskal Planaren edukia zabaltzea eta gizarteratzea**

Azkenik, fase honetan, Komunikazio Plana diseinatu eta garatzeari heldu zitzaion, euskal gizartearen Kirolaren Euskal Planaren edukiaren berri zabaltzeko, Kirolaren Euskal Sistemaren eragile giltzarri guztien atxikipena eta konpromisoa lortu eta Planak dakartzan helburuak erdiesteko asmoz.



PLANAREN BEHARRA

2





## 2.1. Kirolaren Euskal Sistema ez dago behar bezala egituraturik

Euskal gizartea erreferentziatza hartu ohi izan dute kirolean gure inguru hurbilean bizi direnek eta, gaur egun, ere bai. Gure herritarrek kirol jardunean dituzten mailak hala nola Goi Errendimenduko Kirolean ditugun emaitzak aitortuak izan dira, oro har.

Era berean, kirolak, gure Erkidegoan, modu nabarmenean eragin ditu elkarte pribatuak eta horrek boluntario kopuru handia garatzeko aukera emateaz gain, elkarte horiek gauza izan dira kirol eskaintza moderno lantzeko, herritarren eskari berrietara arin egokitu dena.

Dena dela, kirolak Euskal Autonomia Erkidegoan duen egoeraz, aitortu beharra dago, gaur egun **ez dagoela behar bezain ongi egituratua Kirolaren Euskal Sistema**, besteak beste ondoko arrazoi hauek direla medio:

- Euskadi gizarte gaztea da autogobernuari dagokionez. 25 urtean, autogobernu maila jaso-jasoak bizkar gain hartu, garatu eta kudeatu dira. Kirola bezalako alderdi batzuk, ez dira egon orain artean euskal gizartearen lehentasunen artean. Ondorioz, Erakunde Publikoek ez dute gidaritzarik izan Kirolaren Euskal Sistema bultzatu eta antolatzerako, ikuspegi orokorretik helduta.
- Kirol jardueran funtsezko aldaketak gertatu dira. Hona hemen, besteak beste, aipatu beharrekoak:
  - Olgeta kirolaren hedapen izugarria gertatu da eta oso modu nabarmenean hazi da kirolean ari diren herritarren kopurua, olgeta, osasun, estetika gisa, e.a.
  - Kirol jarduerak eta eskaintzak izugarri ugaltu eta aberastu dira.
  - Alderantzikatu egin da kirol zerbitzuen eskaintzaren eta eskariaren arteko harremana. Kirol eskariak hauxe nahi du, gero eta gehiago: era askotako jarduerak eta kalitatea zerbitzuan, eta eskaintzen direnen artean aukeratzeko da herritarren betebeharrak gehien moldatzen den huraxe.
- Azkenik, kirola lehentasunezko erronkatzat hartu izan ez badute ere, Kirolaren Euskal Sistemaren eskuartzen duten eragileak (publikoak eta pribatuak) saiatu dira erantzuten –askotan, beren kasa eta koordinaziorik gabe– arestian adierazitako aldaketa eta eskariei.
- Horrenbestez, azken urteotan, gure Kirol Sistema nabarmen garatu da, baina kirolari buruzko ikuspegi orokorrik gabe, eta bilakaera gertatu da, eskuartzen duten eragile guztien arteko behar bezalako koordinaketarik gabe.

Eragile publiko eta pribatuen arteko koordinaketa txiki hau, egoera eta gertaera batzuk aztertzerakoan argi geratuko da, honako hauek adibidez:

- *Kirolaren euskal legeak*, 1998koak, egun hutsune ugari ditu bere garapenean. Adibidez; dopinga, osasun-azterketa, goi errendimenduko kirola, kirol elkarteak, kirol klubak eta zentroak, kirol irakaskuntzak eta titulazioak, eskola-kirola, kirol ekipamenduak, kirol txapelketak, kirol motak, kirol entitateetako buruen estatutua, Olinpiar Promozioaren Euskal Batzordea, Kirol-Biolentziaren aurkako Euskal Batzordea, Kirol Medikuntzaren Euskal Zentroa, medio naturalean arrisku jarduketaren antolaketa, e.a.
- Legeria hori mintzatzen den Euskal Erakundearen artean *konpetentzien banaketa*, Erakunde bakoitzak kirol jarduketa bakoitzari ematen dion dirulaguntzaren banaketan ez dago zeharo adierazita, EAEn kirol jarduketaren eragin ekonomikoari buruzko ikerketan oinarrituz ikus daitekeen bezala.

Erakundearen eta kirol jarduketaren motaren arabera, Dirulaguntza banaketa									
	Goi Errendimenduko		Errendimientu Kirola		Partaidetzako Kirola		Eskola-Kirola		Guztira
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%	
Eusko Jaurlaritza	346.425	%26,4	4.317.727	%48	-	-	96.161	%2,9	4.760.313
Foru Aldundiak	965.873	%73,6	4.687.675	%52	499.235	%1,85	3.209.519	%97,1	9.362.302
Udalak *	-	-	-	-	26.589.834	%98,15	-	-	26.589.834
<b>Guztira</b>	<b>1.312.298</b>	<b>%100</b>	<b>9.005.420</b>	<b>%100</b>	<b>27.089.069</b>	<b>%100</b>	<b>3.305.680</b>	<b>%100</b>	<b>40.712.449</b>

\* Udalen laguntza eskola-kirolari eta edo errendimendu kirolari, ezin daiteke beste kirol jarduketei egindako laguntzaz bereiztu, horregatik, diru kopuru hori, partaidetza kirola kontzeptuaren bame sartu dugu

*Iturria: EAEn kirol jarduketaren eragin Ekonomikoari buruzko ikerketa, 2001*

- EAEn kirolaren esparru guztiak barneratzen eta ordezkatzen duen kontsultarako organotzat hartu daitekeen *Kirolaren Euskal Batzordea*, duela gutxi hasi da lanean.
- Erakunde Publiko ezberdinek esfortzu garrantzitsuak egiten dituzte, beren lan esparruan *Kirolaren Euskal Sistemaren egungo errealitatea* ezagutzen uzten dien informeak eta gailuak eskuratzeko. Zentzu honetan, aipatutako 2001eko EAEn kirol jarduketaren eragin ekonomikoaren ikerketa, Hiru Lurralde Historikoen Kirol Azpiegiturak zerrendatzeko esfortzuak, goi mailako euskal kirolariaren emaitzen garapenari buruzko analisia, e.a., nabarmengarriak dira.
- Bestalde, kirolaren esparruan politika publikoen planifikazioaren ezak eta ekite koordinatu baten ezak, *elkarren arteko ezberdinak diren kirolaren eredu eta sistemak* sortu ditu, adibidez; egitura ezberdina duten eskola-kirol hiru eredu daude, edo azpiegituren zenbait zerrenda/errolda ezberdin.
- Helburu sozialak lortzeko, kirol mailan jarduketak barneratzen edo kontutan hartzen dituzten ekimen publiko ezberdinak ditugu, txalogarriak askotan (adibidez, 2002-2010eko Osasunaren Euskal Plana, 2002-2005eko Gazte Plana eta 2002-2005 Gaztediaren Euskal Plana); hauek erakundearen arteko koordinaketaren beharra erakusten dute.
- Orokorrean onarturik dauden *lau kirol moten* (Eskola-Kirola, Partaidetzako Kirola, Errendimenduko Kirola eta Goi Errendimendu Kirola) *edukiaren, esparruaren eta helburuaren definizio formal eta publiko baten eza*, Kirolaren Sistemaren eragile ezberdinen etengabeko eztabaidaren iturri da. Gizartearen osotasunerako, definizio formal baten edo erreferente baten ezak, norantz jo jakin gabe, kirolaren garapenari erantzun emateko beharra dela-eta, klub txikien artean, elkargo txikien edota kirol elkarte txikien artean, norabide galtzea ekarri du.

- Azken urteotan, kirol mailan, zerbitzuei dagokionez, hiritarren eskaerei erantzun emateko, kirol eragileen (publikoen eta pribatuen) handitze izugarriak, gure gizartean kirolak izan duen garapenaren ikusmen oso baten ezaren ondorio logikoa baino ez da. Gaur egun, orokorrean, Euskadin, hiritarrek dituzten behar berriei erantzun emateko gai diren kudeaketa ereduak garatzeko arazoak dituzten 3.900 klub eta kirol elkarte inguru ditugu.

Bestalde, elkarteek (orokorrean), Partaidetzako Kirolaren sorrerak sorturiko eskaerari ez diote erantzunik eman. Azken urteotan, Txapelketa Kirola (egituratuta eta antolatuta) garatzen duten elkarteetatik at, kirol txapelketak ari dira sortzen; hauen filosofia, Partaidetzako Kirola eta beste kirol motak dituzten baldintza eza.

## 2.2. Kirolak Euskadirako duen garrantzia gizartean eta ekonomian

Kirolak, bere maila guztietan, bereziki garrantzitsuak diren zenbait funtzio sozial betetzen ditu. Kirol jarduketari zentzua ematen dien alderdien artean, honakoak azpimarratu daitezke:

- **Osasunaren eta bizimodu osasungarriak** indartzerako bidea. Jarduketa fisikoa osasun iturri dugu, gure hiritarren bizi itxaropena luzatuz eta honen kalitatea hobetuz.

Hiritarrek kirol jarduketak egiterakoan, osasunerako **abantailei dagokionez, kualitatiboki**, Australian egin berri den ikerketa nabarmendu beharra dago; ikerketa honetatik honako ondorioak aipatu daitezke:


- Bihotzekoa dela-eta, hildako kopuruaren heren bat* aurrezaindu daiteke jarduketa fisikoa eginez gero (Powell eta Balir 1994; Bauman 1998).
- Diabetes eta heste lodiko minbizia dela-eta, hildako kopuruaren laurden bat* jarduera ezari dagokio (Powell eta Blair 1994; Bauman 1998).
- Bular minbiziaren %12a* gehienez, jarduera ezari dagokio, eta beraz, aurrezaindu daiteke, batez ere menopausia izan duten emakumeen artean (Mezzeti 1998).
- Garun-isurpen kasuen %15a*, jarduera ezari dagokiola esan daiteke (Shinton 1997).
- Mokorrezurraren haustura izateko arriskuaren %10a eta 16a* bitarte, jarduera ezaren ondorio izan daiteke (Johnnell 1995, 1996).

Ikerketa berbera jarraituz, eta **grafikoki**, batez besteko bizi itxaropenaren murrizketan eragiten duten faktoreen zenbait adibide aipatzen dira. Zehazki, *jarduketa fisiko eza*, tabakoa eta gero, *arrisku bigarren faktorea* dugu.





Batezbesteko bizi itzaropenaren murrizketan, faktoreen garrantzi erlatiboa



Iturria: The cost of illness attributable to physical inactivity in Australia (2000)

Bestalde, osasungintza sistemaren mozkin ekonomikoei dagokionez, zenbait adibide ditugu:

- Estatu Batuetako ikerketa baten arabera, pertsona aktibo batek, aktiboa ez denarekin alderatuz, osasungintza sistemaren alde 308,55 € aurrezten ditu.
- Ildo berebean, Kanadan, 1999. urtean zehar, jarduketa fisikoaren ezak 1.390 miloi € suposatzen zuten, eta beste herrialde edo zonaldeetan, Albertan, Eskozia Berrian, Zeelanda Berrian edo Australian adibidez, geldikortasuna alde batera uzteak eta honek dakarren eritasunen prebentzioak ekar dezakeen osasun aurrezpena aztertu da.

**Batasun soziala** handitzen uzten duen medioa da, harreman sozialak indartzen dituelarik. Kirolak elkargo maila garrantzitsua suposatzen du, baita boluntarioen mugimendu nabarmengarria ere. Bere mobilizazio eta elkartzeko gaitasunak, harreman sozialak garatzen ditu. Gainera, kirola kolektibo ezberdinen faktore integratzaile garrantzitsua dugu; zahartzarora, etorkinak eta minusbaliatasunak dituzten pertsonak; horrez gain, emakumeek, kirolaren eremuan, beren aukeren berdintasunaren garapena indartu dezakete.

Taula honen arabera, kirol jarduketa geroz eta pertsona gehiagok burutu, orduan eta elkargo maila handiagoa dago. Adibidez, Araban, hots, kirol jarduketetan partehartze maila handien duen lurralde Historikoan, elkargotan dagoen biztanleriaren portzentaiarik handiena dago, baita 1.000 pertsona bakoitzeko klub kopuru handiena duena: 4,16.

	Elkargo Kopurua	Kirol klub eta elkargo kopurua	1000 biztante bakoitzeko klub kopurua	Kirola egiten duen biztanleri % <sup>1</sup>	Elkargotan dagoen biztanleri % <sup>2</sup>
Araba	52	1.120	4,16	58,66	11,28
Bizkaia	50	1.647	1,52	48,66	7,4
Gipuzkoa	47	1.136	1,78	48,81	10,5
<b>Oso-tara</b>	<b>196<sup>2</sup></b>	<b>3.903</b>	<b>1,96</b>	<b>50,2</b>	<b>8,9</b>


<sup>1</sup> 6 urtetik gorako biztanleria

<sup>2</sup> Euskal elkarte eta lurraldeko elkarten batura (52+50+47+47)

Iturria: Kirolaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza (2001eko datuak). Bizi baldintzei buruzko Inkesta 1999/EUSTAT

Europarekin alderatuta, normalean euskal gizartea kirol jarduketari oso loturik egon dela esan daiteke, gaur egun, *Europako Herrialde buruetan ematen den jarduketa fisikoaren partehartzetza mailarekin parekatuz.*

Egun, Euskadin, jarduketa duten 3900 kirol klub eta elkarte inguru daude; kopuru hau, biztanleri kopuruarekin proportzionalki, Austria edo Herbeherak bezalako herrialdeekin konparagarriak dira, beste herrialde batzuk gaintuz; Italia, Grezia, baita Alemania ere. Adibide gisa, *Italian biztanleriaren %20ak jarduketa fisikoren bat burutzen duen bitartean, eta 1000 biztanle bakoitzeko 1,27 kirol klub dauden bitartean, Euskadin, jarduketa fisikoa burutzen duen biztanleri portzentaia handiagoa denez (%50), mila biztanle bakoitzeko klub kopurua ere handiagoa da (1,96).* Honek, berriz ere, kirolak elkartzeko soziala indartzen duela frogatzen du, *geroz eta kirol gehiago egin, orduan eta elkargo-egitura gehiago dagoelako.*



Iturria: Europako Batzordea. Kiro Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza, Eustat

Hobetu beharreko medio bat da, eskolan dagoen biztanleriari **hezkuntza baloreen eta balore kulturalen igorpenari** begira. Kirolari Aplikaturiko Ikerketa Sozialaren Espainiar Elkarteak\* egindako ikerketen arabera, eskolako ikasleei, jarduketa fisikoak gaitasun sozialak eta baloreen ekarriak ematen dizkiete.

- “Hezkuntza Fisikoaren baliabidearen erabilera arriskuan dauden gazteei erantzukizuna erakusteko” programa, jarduketa fisikoak, *autoefikazia* bezalako *gaitasun sozialen* eta baloreen ikasketan nola eragiten duen aztertzen saiatu da. Lorturiko emaitzek, aztertutako pertsonen artean eta gaitasuneko pertsonen onespenez mailaren handitzea erakutsi dute, baita autoefikaziaren handitzea adierazgarria ere.

\* Hezkuntza Fisikoaren baliabidearen erabilera arriskuan dauden gazteei erantzukizuna erakusteko eta Hezkuntza Fisikoaren Garapen Sozio-morala.

- “Garapen sozio-morala” programa, kontu handiz diseinaturiko hezkuntza fisikoari buruzko programa batek, bere partehartzaileen artean *garapen morala* indartu ahal duen frogatzen saiatu da. Lorturiko emaitzen artean, honako ondorio nagusiak nabarmendu daitezke: nerabeen *arrazonamendu etikoaren* handitze adierazgarria, *diziplina arazoan murrizketa*, *elkarrenganako errespetuaren handitzea eta ikasle-irakasleen arteko komunikazioaren hobekuntza* frogatzen da.
- Hezkuntzari dagokionez, kirolaren ekarpenak laburbilduz, kirolak honako zentzuetan hezten duela esan daiteke;

#### Kirolak hezten du

- n haurrari *garaipenarekin eta porrotarekin bizitzen* erakusten diolako
- n *joko arauak errespetatzen* erakusten du, legearen aurrean guztiok berdinak garelako
- n *esfortzu pertsonalaren* bidez bizitzan hobetzen erakusten du
- n batzuetan *besteekin itunak* sortuz (lankidetzak)
- n *lehian irakatsi*, geroz eta gizarte lehiakorragoan –noski–, ondorioz bizitzarako *prestatzen duelarik*
- n entrenatzailearen edo epailearen bidez irudikatzen den *aginpidearenganako errespetua* garatzen du
- n erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bereganatzeko gaitasunak bezain garrantzitsuak diren alderdiak garatzen ditu
- n adin-txikikoarengan kirolaren ohitura sortarazten du, bizimodu osasungarrietan heziz eta kirol ezberdinetan etorkizuneko kirolariak prestatuz

Euskal gizartearentzat, aberastasun sorreraren motore garrantzitsua da.


– Euskadin, kirola egiteari loturiko jarduerak duten eragin ekonomikoaren baliospena egiteko asmoz, Eusko Jaurlaritzak egindako ikerketetatik hartutako emaitzen arabera, zuzenean edo ez-zuzenean kirola egitearekin erlazionaturiko jarduera guztiek sorturiko *gastu osoa 854.855.651€-koa da* (142.236 milioi pzta.); kopuru hau lau kirol motatan banatzen da, hots, honako taulan aztertzen direnak:

Kirolaren jarduketa motaren arabera, Gastua Osoara eta Diru-laguntzak					
Kirol Maila	Gastu osoa	Gastu Osoarekiko %	Erakunde Publikoen dirulaguntzak	Dirulaguntza osoaren banaketa kirol mailaren arabera	Dirulaguntza publikoaren % Gastuaren osoarekiko
Goi Maila	201.075.226	23,5	1.312.298	2,5	0,65
Errendimendukoa	146.112.021	17,1	9.005.402	17,3	6,16
Partaidetzakoa	409.729.744	49,9	27.089.069	52,0	6,61
Eskolakoa	25.214.688	2,9	3.305.680	6,3	13,11
Beste kontzeptuak	72.723.972	8,5	11.412.162	21,9	15,69
<b>Osoara</b>	<b>854.855.651</b>	<b>100,0</b>	<b>52.124.611</b>	<b>100,0</b>	<b>6,10</b>

Iturria: EAEn, kirol jarduketaren Eragin Ekonomikoen Azterlana, 2001

Bestalde, euskal Erakunde Publikoek, gastu osoaren %6,1arekin (52.124.611 €) laguntzen dute. Gastu publikoaren %51a udalak egiten dute, %33a hiru aldundiek eta, azkenik, gainontzeko %16a Eusko Jaurlaritzak.

- Eragin hau, aberastasunaren sorreran neurtuta, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat BPGaren sorreran neurtuta, 767.460.935 €-koa BPGn da (127.695 milioi pza.), hau da, euskal BPGaren %1,9a (2000ko BPGaren arabera). Neurri honek, euskal kirolaren “sektorea”, euskal ekonomiaren beste punta-puntako sektoreen gainetik jartzen du; teknologia Ikerketa eta Garapena (%1,51<sup>2</sup>), adibidez, edo ohikoagoak direnak, Nekazaritza eta Arrantza (%1,2<sup>3</sup>) edo Garraioa (%1,7<sup>4</sup>), adibidez.
- Ogasunarentzat bideraturiko diru-sarrerara, sozietateen gaineko zergaren bidez, BEZaren bidez eta PFEZaren bidez, 108.058.500 €-koa da (17.979 milioi pza.), hau da, euskal erakundeek emandako euro bakoitzeko, Ogasunek 2,07 euro jasotzen dituzte.



Iturria: EAEn, kirol jarduketaren Eragin Ekonomikoen Azterlana, 2001

Lanari dagokionez, lanpostu mantentzearen bidez neurtutako eragina, 18.837 lanpostu sorrerakoa izan da, hau da, kirola, EAEk 2001 urtean zituen 849.400 lanpostuen %2,2a da, zuzenki edo ez-zuzenki.

Europako zenbait herrialdeekin alderaketa eginez, ezker aldean dugun taularen arabera, Euskadik, kirol sektorean, Alemaniako lanpostu maila antzekoa du, eta, besteak beste, espainiar estatuarena baino altuagoa.

Azkenik, garatutako herrialdearen irudiarren katalizatzailea da, eta bere balore kulturalen garraio bide garrantzitsua.

Herrialdea/ Lurraldea	1.000 bizt./ lana	Lan osoarekiko %
Alemania	8,5	2
Erresuma Batua	8,1	1,7
Italia	3,7	0,9
Frantzia	5,2	1,24
Espainia	4,13	1,28
<b>Euskadi</b>	<b>9,05</b>	<b>2,2</b>

Iturria: Alemaniako, Erresuma Batuko, Italiako eta Frantziako datuak: Benedicte Halba, *Economie du sport, Economica Argitaletxea, Paris, 1997, 82, orria*. Espainiako datuak: J. Martínez del Castillo eta N. Puig. "Empleo y mercado de trabajo en el deporte" delakoan, *Kirolaren Soziologia lanean, M. García Ferrando eta beste batzuk, Alianza Argitaletxea, Madrid, 1998, 259, orria*. Euskadiko datuak: *Kirol Jarduketaren Eragin Ekonomikoa EAEn, 2001*

Herrialde baten Kirolaren Sistema artikulatu bat, non eragile publikoek eta pribatuek, kirolaren eta hezkuntza fisikoaren programa ezberdinen planifikazio eta burutzean era koordinatu batetan lan egiten duten, bere garapen mailaren ikurra izango da.

Aurretik definituriko helburuak, efizientzia eta efikaziaz betetzen duen kirolaren eragile multzo antolatu bat izateak, herrialde zehatz bat sozialki batzeaz gain, nazioarteko eredu bihurtu dezakeen balore multzo bat esportatzea uzten du. Irudi hau ez da soilik kirolaren

<sup>2</sup> 2000 urteko EAEko BPGari dagokion zifra. EUSTAT.

<sup>3</sup> 2000 urteko EAEko BPGari dagokion zifra. EUSTAT.

<sup>4</sup> 1999 urteko EAEko BPGari dagokion zifra. EUSTAT.



esparrura mugatzen; baita ere generikoagoak diren beste alderdietara hedatzen da, hots, antolatze-ko gaitasuna, baliabideen erabilera efizientea, edo bere eragileek eta hiritarrek mugiarazteko duten gaitasuna.

Zehatzuz, Kirolaren Sistema definitua eta finkatua duen herrialde batek, garapen irudia igor dezake, honen bidez, adibidez:

- Bere kirol jarduketan planifikazio bat izanez, non barneraturiko agente ezberdinen papera eta erantzukizuna, bai publikoak baita pribatuak ere, konpartiturik dagoen, baita definituta eta koordinatuta ere.
- Osasuna, etika eta biolentzia-eza, aukera berdintasuna, ingurumenarenganako errespetua eta bere kultur ondasuna, besteak beste, bezain garrantzitsuak diren baloreak hedatzen dituen kirol programa zehatza sorta izanez.
- Kirol ospakizunen antolaketan esperientzia izatea (txapelketak, kongresuak, e.a.), eta garatutako herrialdearen irudi hau hedatzeko balioko duten lankidetzaren sarea buru izanez.
- Nazioarteko mailan eredu den kirol-azpiegituren sare bat izanez, bere biztanleriaren beharren asetzeari dagokionez, bere kudeaketaren efizientzia eta berrikuntzari dagokionez, eta kirol turismoari irekita dagoena.
- EAEko hiritarren kirol jarduketetan partehartzearen maila handitzea edo geldikortasun maila txikituz.
- Autonomian aberastasuna sortzea eta kalitatezkoa eta iraunkorra den lanaren sorrera bultzatuz.

Erkidego batean (beste Erkidego batzuekiko ezberdina) partaide izatearen eta harekin bat egitearen sentimenduak eraginik, gehiengo sozial eta politikoa euskal nortasun politikoaz hornitzen da, eta sentimendu

horrek berak ere dakar euskal nortasuna ere sendo egituratu nahia kirolean. Gizartearen ahalegin hori, gainera, gertatzen ari da errekonozimendu politikoa aitortua duten talde-identitateak tratatzen ari direnean aipatu errekonozimendua lortzea helburu duten identitateen lana eta egungo ezaugarriak globalizazioa eta banakakoen baloreak indartzen ari direnean. Bada, ondorioz, egitura politikorik gabeko talde-identitateak behartuak daude, beste inor baino gehiago, indarrak biltzera, bizirik iraun eta garatu ahal izateko.

Kirolaren euskal identitatea, beraz, ez dago tentsio horretatik kanpo eta, gaur egun, *zailtasun handiak ditu*, arestian aipatutako egituraketa sendoa lortzeko;

- Alde batetik, hemengo kirolek zailtasun handiak dituzte gorde, iraun eta garatzeko, eta euskal kultur nortasuna haietan euskarritzen da, hein handi batean.
- Kirolaren euskal identitateak, euskal kultur zabalpen osoan, egitura partzialak eta zatikatuak ditu.
- Nazioartean, kirolaren euskal identitatea urtzen da beste estatu batzuen kirolen nortasun ezau-garrien azpian, politikoki haietan partaide delako.

Era berean, *kirolaren euskal legeak* bide hori darama. Hau da, Kirolaren bidez identitate edo nortasun eraikuntza egitea:

- Legearen atarikoan, VIII. Atalean, legeak hauxe dio, besteak beste: Goi-mailako kirolak leku berezia dauka legean, funtsezko faktorea baita Autonomia Erkidegoko kirolaren garapenerako... ordezkari-tuntzioa betetzen duelako Estatuko nahiz nazioarteko lehiaketetan.
- Aginte publikoen jarduketa bideratuko duten printzipio gidarien artean hauek daude adieraziak, "euskal kirolari laguntzea estatuan nahiz nazioartean" (2.3. art.) y "Euskal Herriko kirol motak babestu eta sustatzea" (2.3. Art.).
- Legearen 8. Artikuluak aurreikusten du "Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordea" eratzea eta, besteak beste, xede hauek ditu: "euskal kirolariak Joko Olinpikoetarako presta daitezela, haietan parte hartu eta ordezkari-tza izan dezaten sustatzea" (8.1. Art.) eta "Euskal Herriko kirolen sustapena bultzatzea" (8.3. Art.).
- 16.6. Artikuluak egiteko hau ematen die euskal federazioei (partez Auzitegi Konstituzionalean jarritako inkonstituzionalitate helegitearen xede) "Beren kirol-selektzioek Estatuko eta nazioarteko kirol ekintza eta lehiaketetan parte hartzea sustatu eta bideratzea".
- Eta, hain zuzen ere, aginte publikoek federazioei eskuordetutako funtzio publiko administratiboan artean hauxe dago: "Euskal kiroleko ordezkari-tza bideratzea Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan" (art. 25.1.b).
- 37. Artikuluan, bada agindu bat Euskal Kirol Federazioei: "behar hainbateko laguntza eta erraztasunak emango dizkiete euskal federazioei, euskal selektzioek Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan parte hartzea sustatu eta bultzatu ahal dezaten federazio horiek".
- Atarikoaren VIII. Aktarekin bat eginik, 68. Artikuluak dio "Goi-mailako kirola herriaren interesekotzat joko da... ordezkari-tza-egiteko garrantzitsua baitu Estatuko eta atzerriko kirol-lehiaketa ofizialetan".
- Eta, azkenik, 3., 4. eta 5. Xedapen Gehigarrietan, hurrenez hurren, barne sarturik daude federazioen hizkuntza normalizazioari buruzko aurreikuspenak, herri-kirola, euskal pilota eta tostako arraunketarako plan bereziak, eta erkidegoko edo kanpoko erakundeekiko hitzarmenak, elkarren arteko kirol jarduera eta lehiaketak garatzeko.



### 2.3. Ondorioak

Aurreko puntutatik bi ondorio atera daitezke:

- Kirola, politika publikoetan kontutan izan beharreko alderdia da, Euskal Gizarteari ematen dizkion abantaila garrantzitsuak direla-eta; abantaila hauek honakoak ditugu; bizi osasuntsuaren bultzatzea, batasun soziala, hezkuntza baloreen eta kultur baloreen igorpena, herrialdearen aberastasunaren sorrera eta herrialde garatuaren irudiaren barne eta kanpo proiektiorako gailua.
- Orain arte, lehen aipaturiko abantailak neurririk handienez aprobetxatzen duen Kirolaren Euskal Sistema bat antolatzea uzten duen barneraturiko eragile nagusien jarduketara koordinatu baten planifikaziorik ez da izan.

Kirolaren Euskal Sistemak, beraz, jarduketarako oinarritzko esparrua behar du izan, kirol munduan funtsezko eragile guztien ekintza eta barneratze koordinatua lortzeko, eta bere jarduketak jarraitzeko, era efiziente batez, honetan definitzen diren helburuak eta desafioak betetzeko asmoz.

ERREFERENTZIAZKO EREDUAK

3







# erreferentziako ereduak

## 3. Kirol Ereduak eta Elkarren arteko Ezaugarriak

Azken urteotan, herrialde ugari ulertu du kirolak oso garrantzi handia duela gizartea garatu eta modernizatzeko. Ondorioz, erakundeek kirola honela bultzatu dute, "kirol sistemaren egituraketa" sustatuz, helburu estrategikoak eta jarduketa ildoak zehaztearen bidez, eta eragile publiko eta pribatuen egitura sortu eta indartu dute, aipatu helburuak lortzen laguntzeko.

Herrialdez herrialde ikusita, ez dago modu bakarrik kirolari heltzeko, asko baizik hainbat gauzari erreparatuta: erakunde publikoen eskuartze maila, finantzazio iturriak edota sustatu nahi duten Kirol Ereduaren filosofia edo funtsa. Hala ere, azpimarratu behar da Mendebaldeko herrialdeetan kirola sortu eta, ondotik, garatu zela honi esker: kirol mugimendua, boluntarioak eta elkarteak eratzeko askatasuna. II. Mundu-Gerratik aurrera, Estatuak hasi ziren kirolari buruzko ardurak hartzen, ohartu baitziren kirolak gizarteari begira zuen garrantziaz. Erakundeek kezka hori edukita ere, ezer baldin badute elkarren artean Europako herrialdeek kirolean, hori elkartegintza da, kirol elkarten mugimendua funtsezko osagaia baita, kirolaren oinarriko motorra. Horrenbestez, elkarten garrantzia eta egitura publikoak eta ez publikoak batera aritzea EAEko inguruan dauden herrialde-etako ezaugarriak dira.

Arestian adierazi den bezalaxe, dauden kirol ereduak sailkatzeko modu bat haxe da, hots, eskuartze maila aztertzea, herrialde bakoitzaren kirol legerian zehaztuta ohi dagoena. Horrela, badira bi eredu: liberala eta eskuhartzailea:

Europako kirol ereduak, legeriari buruzko eskuartze mailaren arabera		
Eredua	Eredu liberala	Eredu eskuhartzailea
Ezaugarriak	<p>Kirola, herritarren ekimen libre eta beregainaren adiezpena da. Horrenbestez, kirola sustatu eta garatzea kirol mugimenduen egitekoa da.</p> <p>Estatuaren eskuartzea; baldintza materialak sortzea kirol mugimendua eratu ahal izan dadin (finantzazioa, azpiegitura eta zerbitzu eskaintza, prestakuntza eta ikerketa).</p>	<p>Kirola zerbitzu publikoa da eta Estatuak huraxe sustatu, garatu, eta, zenbaitetan, kontrolatu egiten du kirol mugimendurekin elkarlanean.</p> <p>Herrialde horietan bada kirolari buruzko legerik, eta, zenbaitetan, Konstituzioak berak aitortzen du kirola herritarren eskubidea dela.</p>
Adibideak	 <p>Erresuma Batua   Suedia   Herbehereak   Noruega</p>	 <p>Portugal   Grezia   Espainia</p>

Iturria: Kirola eta Enplegua European. Europako Batzordea. DG X. 1999ko iraila

Europako kirol ereduak finantziazioaren eskuartze mailaren arabera



Iturria: Le Roux, Camy, 1995. Andreff et al. (1995) Kirola eta Enplegua Europan. Europako Batzordea. DG X. 1999ko iraila

Eskuartze maila ere aztertu daiteke, Europako hainbat sistematan duten finantzazio iturriak ikusita:

Azkenik, Erakunde Publikoek kirolari buruz duten filosofiari doakionean, lau eredu bereiziko ditugu:


- Erakunde Publikoek eskuartzen ez duten eredia edo Laissez-Faire: Kirola ez da gobernu federarari dagokion kontua. Adibidez, AEB.
- Eskuartze publikoaren eredia, partaidetza mailan, batez ere. Adibidez, Finlandia.
- Partaidetza publikoaren eredia bi mailetan: partaidetza eta errendimendua. Esate baterako, Erresuma Batua.
- Eskuartze publikoaren eredia, goi errendimendu mailan batez ere. Adibidez, Australia.

Goiko grafikoan aztertutik dago, batetik, finantziazio publikoak kirol sistematan duen garrantzia, eta, bestetik, toki erakundeen garrantzia bakoitzaren gobernu zentralarekin alderatuta (edo erregionalak, Flandes edo Valoniaren kasuan).

Horrela, badira lau eredu:

- Herrialde batzuetan altua da finantziazio publikoa, toki gobernuena, batez ere (Eskandinaviako eredia: Danimarka).
- Beste herrialde batzuetan, finantziazio publikoa altua da baina gobernu zentraletik datorrena (Frantzia, Portugal, Valonia).
- Finantziazio pribatu altua duten herrialdeak. Diru ekarpen publikoak, batez ere, toki gobernuetatik datoz (Erresuma Batua, Alemania eta Espainia).
- Partaidetza pribatua nagusia den herrialdeak, baina diru ekarpen publikoa, batez ere, Estatuko edo erregioeko erakundeetatik datoz (esate baterako, Italia eta Flandes).

Eusko Jaurlaritzak prestatua du Kirol Politika eta jardueri buruzko nazioarteko Benchmarking azterlana. Bada, hartatik eta nazioarteko beste erreferentzia batzuetatik esan daiteke *kirolean ondoko joera orokor hauek ikusten direla nazioartean:*



Iturria: Game Plan. Kirolaren Plan Estrategikoa Erresuma Batuan, 2003

1. Bereizketa argia dago Goi Errendimenduko kirolaren eta Partaidetzako kirolaren artean. Goi Errendimenduko kirola sustatzeaz herrialde/erregioko gobernu arduratzen den bitartean, guztiontzako kirola sustatu eta antolatzeaz batez ere toki erakundeak arduratzen dira.
2. Osasuna jotzen da Partaidetzako kirolaren bitartez lortu behar den xedetzat eta, eskura izan beharreko bitarteko gisa, kirol errendimenduak lortzeko.
3. Biztanle asko dituzten herrialdeek (100 milioitik gora biztanle) badute aukera Goi Errendimenduko kirolariak hautatzeko dekantazio naturalez edo sistema piramidalez. Herrialde txikienek, ordea, teknifikaziorako programak garatu dituzte, islapen handieneko kirolariak aukeratu ahal izateko.
4. Goi Errendimenduko kirolari/entrenatzaileen finantzaketari doakionez, estatuak aukeratu eta lehenetsi ditu, Goi Errendimenduaren baitan sustatu eta bultzatu nahi dituen kirol modalitateak. Estatuak laguntzak molde batzuk pentsatu ditu kirolari eta entrenatzaile jankin batzuentzat, sostengu pribatuan nahiz publikoan oinarriturik.
5. Nola halako joera badago gobernuen mendeko kirol agentziak eratzera, autonomia handiagoa edo txikiagoa dutenak beren departamentu edo ministerioen baitan.
6. Kirol federazio nazionalak, Konfederazioetan edo federazio Elkarteetan elkartzeko joera dute.
7. Administrazio Publikoek kirol elkarte eta federazioei ematen dieten dirutza loturik dago, Administrazioak berak ezartzen dituen helburuak betetzeari. Hau da, dirua jasotzeko, kirol elkarte eta federazioek Administrazioak ezarritako helburuak bete behar dituzte. Helburu horiek ageri dira bakoitzaren plan estrategikoetan. Aldi berean, helburu horietako asko loturik daude "Guztiontzako Kirola" sustatzeko programak bultzatzera, herritarrek kirol jardueran duten partaidetza tasa goratzeko asmoz.
8. Badira elkarrekin jarduteko esparruak eragile publikoen eta pribatuen artean, kirol estrategia zehaztu eta aipatu strategiak erakarritako ekintzak ezartzeko asmoz.
9. Aztertutako kasu askotan, loteria sistemak edo/eta kirol apustuak kirolarentzako finantziario iturri gisa jotzen dira, publikoa eta garrantzi handikoa.



10. Kirolak herrialdeen eta erregioen ekonomian duen garrantzia ikusita, ekimen askok helburu dute kirolgintzan enplegua sortzen laguntzea.
11. Teknikariak prestatzeko planek espezializazio maila handia dute, Gobernuak sustatu eta kirol federazioek laguntzen dituzte planak diseinatu eta ematerakoan.
12. Azpimarratu behar da badirela kirolean adin-txikikoa babestu eta joko garbia sustatzeko programak.
13. Ekintza askok estatuaren edota herrialdearen irudia sustatu edo/eta proiektatu nahi du atzerrian, nazioarteko lehiaketa antolatzeari dagozkionez gain.
14. Gobernu zentralak kirol azpiegituren eraikuntza koordinatu eta planifikatzen dute, udalerrri mailan burutzen direnak. Beste alde batetik, gobernu zentralak kirol azpiegituren lan handiak aurreratu eta lehenesten dituzte, edota "interes nazionalekoak" direnak.

***1. Errendimenduko / Goi Errendimenduko kirola eta Partaidetza kirolaren artean bereizpen argia dago; Goi Errendimenduko kirolaren bultzatzea herrialdeakollurraldeko gobernuaren esku dagoen bitartean, guztiontzako kirola bertako estamentuek indartzen eta burutzen dute***

Herrialde bakoitzeko Gobernuak, elkarrekin laguntzarekin batera, *Goi Errendimenduko kirola* bultzatzeko eta laguntzeko estrategia eta helburuak zehazten dituzte, Kirol Institutuak (Australia eta Eskozia), Fundazioak (Danimarka), edo diru-laguntza zehatzen ildoak sortuz, azken hauek, Goi Mailako lehiaketaren esparruan estrategia txalogarriak garatzen dituzten elkarrekin direlarik.

Beraz, eredu zentralizatuaz ari gara, herrialde bakoitzeko Gobernuak kontrolaturikoak, bere osotasunean edo zati batez, Gobernua izaten ohi delako estratu honetako kirol programak finantzatzen dituen agenteak.

Bestalde, *Partaidetza Kirola* indartzeko eta mantentzeko Gobernuak estrategia eta helburu ezberdinak finkatzen ditu, "guztionezako kirola" terminoaz ezagutzen dena; kasu askotan ere, txapelketa kirolaren edo errendimendu altuko kirolaren sustapenean barneraturik ez dauden kideen laguntza jasotzen du.

Kirol jarduketa mota hau, bertako estamentuetan sustatzen eta burutzen da, guztionezako kirola antolatzeke eta indartzeko, kirol antolatzaile eta eragile kopuru handiagoa barneratu behar delako. Honen zergatia honakoa da, eskaintzen diren kirol sustapen eta zerbitzuak biztanleri kopuru handiari heldu behar zaio. Gobernuak, kasu askotan, soilik sustapena, jarduketaren ildo orokorren diseinua eta diru-laguntza lanak burutzen ditu, Hiritarreganako, eskolenganako, klubenganako edo elkargo ezberdinenaganako hurbiltasuna dela-eta, Udalek kolektiboen beharren arabera programak egokitzen dituzte.

Quebec-ek, adibidez, kirol honen jarduketa eta osasunaren sustapena lotu du, eta, Osasungintza Ministerioarekin lankidetzan, egitura autonomo bat sortu du, Kino Quebec deiturikoa; azken honek, haurren, helduen eta zaharren artean jarduketa fisikoa antolatzen eta bultzatzen du. Kino-Quebec delakoa, adibidez, eskualdeko kontseilari bakoitzak, eskolarekin, enprekin edo erretiratuen klubekin lankidetzan, bere programak diseinatzen ditu; programa hauek, gobernuak ezarritako oinarriko arau batzuk betez, kolektiboen beharrak, era hobezinean ase ditzaten.

- Suitzak J+S programa sortu du, gazteei zuzendutakoa, eta esparru honetan jarduketa zehatzak burutzen dituena.
- Zeelanda Berriak, Push Play eta Green Prescription programen bidez, Quebec-ek jarraitzen duen antzeko estrategia jarraitzen du, kirol sustapenean osasungintza-zerbitzuak barneratuz.
- Danimarkan, adibidez, enpresen 8.000 kirol klubez osaturiko elkarte bat dago; honek jarduketa fisikoarekin erlazionaturiko txapelketak eta jarduketak antolatzen ditu bere 330.000 langile baino gehiagoren artean.
- Ia aztertutako herrialde guztiek parte hartzen duten kirol honen sustapenerako bide garrantzitsu bat eskolakoa da. Honela, Quebec-en Sport Etudiante Elkartea dugu, probintziako eskolen eta ikastetxeen artean txapelketak antolatzen dituena, edo Zeelanda Berriko Kiwisport, lehen mailako hezkuntzako haurrei zuzendutakoa.

## ***2. Osasuna, jolas-kirolak lortu beharreko helburutzat eta errendimenduko eta elitezko kirola egiteko erabili daitekeen gailutzat hartzen da***

Mundu mailan, *kirol jarduketak bizi osasungarriaren iturri bezala* hartu duen garrantzia nabarmentzea interesgarria da. Honela, nazioarteko esparruan, kirola kontzeptu honekin lotzen duten ekimen ugari ditugu:

- Kino Quebec-en kasu honetan, adibidez, 1978. urtean gauzatu zen ekimen bat, egitura bakar batean osasungintzaren eta jarduketa fisikoaren profesionalak batzen dituena. Profesionalen bi taldeek, gaiari buruzko ikerketa lanak egiten dituzte, baita hiru funtsezko kolektiboen jarduketa fisikoa sustatzeko bideraturiko programak diseinatu ere: gazteak, helduak eta zaharrak.
- Beste programak, Zeelanda Berriko Green Prescription delakoa adibidez, lehen mailako arretako mediku sareen bidez jarduketa fisikoa egitea biztanleriari hurbiltzen saiatzen dira. Kasu honetan, mediku hauek dira beren pazientei esaten dietenak, beren eritasunen prebentzioa, baita tratamendua ere, kirola egitearen bidez egin daitekeela.

- Kanada-ko lehen mailako arretako medikuen elkargoak, kanadar Osasungintza Ministerioarekin lankidetzan, estrategia bat burutu du; honetan, herrialde honetako biztanleriaren jarduketa fisikoaren eza %10ean murriztea ezartzen da helburutzat. Ekintzak, beren pazienteei, jarduketa fisikoak osasunean dituen abantailei buruzko gomendioak eta informazioa ematean dago oinarriturik.

*Errendimenduko edo Goi Errendimenduko Kirolak* ez du, azken helburu bezala, osasunaren sustapena, esparru profesionalean gainditze gogoia eta emaitza hobeen lortzea baizik. Halere, osasunak, helburu horiek lortzeko baliabide bezala, paper zeharo garrantzitsua betetzen du (lesioen prebentzioa, dopingaren aurkako kontrola, e.a.).

*Dopingaren aurkako borrokari* dagokionez, nazioarteko esparruan eredu ezberdinak topatu direla azpimarratu beharra dago, hauek guztiek jarduketa bide bikoitza dutelarik:

- Hezkuntzazkoa; honen bidez gizartean dopingaren desabantailak zabaltzen dira, baita kirola giro osasungarri baten barne eta balore etiko zehatz batzuetan oinarriturik kirola egitearen abantailak ere.
- Zuzenean dopingaren kontrolari zuzendutakoa.

“Doping-kontrako” politika hauek garatzeko, Flandes, Frantzia edo Italia bezalako herrialdeek eredu estatalak aukeratu dituzte; hauetan administralgoak paper garrantzitsu bat betetzen du doping-kontrako politikak kontrolatzeko eta prebenitzeko unean. Bestalde, Finlandia edo Danimarka bezalako beste herrialdeetan, doping-kontrako programa eta politketan Elkarteek garrantzi handiagoa hartzen dute.

### ***3. Biztanleri handiko herrialdeek (100 miloi baino gehiagokoak), Goi Errendimenduko kirolarien hautaketarako dekantazio sistema natural edo piramidal bat aukeratu dezakete; herrialde txikiek, berriz, etorkizun handien duten kirolariak hautatu ahal izateko, teknifikazio programak garatu dituzte***

Herrialde baten biztanle kopurua, dekantazio natural baten planteamendurako (piramidala edo darviniarra) baldintzagarria da, hau da, 100 miloi biztanle baino gehiago dituzten herrialdeek, beren kirolaren egitura, potentzial genetikoan oinarritu dezakete, kirolari hoberenek punturik gorenena “hautaketa naturalaren” prozesuaren bidez lortuko dutelarik.

Aldiz, biztanleri txikiagoa duten herrialdeek, kirolaren errendimendurako programak garatu dituzte, erreferentzi komun bezala teknifikazio programak hartuz; hau da, baliabideen kudeaketa hobetzeko, ongi definituriko kirolarien multzoetan, baliabide hauen elkartzea lortzeko formulak bilatu dituzte. Honen adibide gisa, Kanada edo Australia bezalako herrialdeen lehentasunezko kirolentzako programak eredu bezala har daitezke; hauek, baliabide ekonomikoak, errendimendurako etorkizun handiagoa duten kirol moten inguruan batzen dituzte, lorturiko emaitzen arabera eta elkarte horien egitura teknikoaren arabera.

Bestalde, neurri ertaineko herrialdeek (40 eta 100 miloi biztanle bitartekoak), hezkuntza fisiko unibertsalaren programak garatu dituzte, ondoren, kirol mota askorentzat hautaketa metodoak planteatuz, batez ere olinpiar programan barne dauden kirol motentzat. Beraz, oinarrian partehartzaile ugari dituen “hautaketa trinko” eredu bat da.

Azkenik, 40 milioi biztanle baino gutxiago dituzten herrialdeek, nazioarteko garrantzia zein kirolaren bidez lortu dezaketen aukera behar izan dute, lehentasunezko kirol jarduketaren kopurua neurri handian murrizten delarik.

Multzo honen barne, 5 milioi biztanletik beherako herrialde txikiak ditugu, soziologikoki Euskal Herriarekin antzekotasun handia mantentzen dutenak; hauek baliabideen batze formulak garatu dituzte, goi mailako kirolaren munduan emaitza nahiko onak lortuz. Hauek, EAEk duen gainezarmen maila baino maila handiagoko kirol ereduak izan beharko lukete.

Beste kirolaren eredutatik alderdi zehatzak aztertu eta egokitu daitezke; finantzazioa, teknikarien hezkuntza, errendimendurako zentroen egitura, biomediku sistemak, kirolariak laguntzeko egiturak,...

Azkenik, kirolaren hedapen unibertsalari esker, kirolaren nazioarteko garrantzia sortu dela azpimarratu beharra dago. Honen ondorio bat honakoa da; arautegia, txapelketaren egitura, txapelketaren egutegia, materialak, erreferentziak, ereduak,..., egitura internazionalen esku geratzen dira, eta txapelketa hauetan parte hartu nahi dutenek onartu beharko dituzte. Egitura hau guztia ezarrita geratzen da, bertako kirolarietan ezik agian, hots, 48 Euskal Elkarteetatik, 3tan. Beraz, bertako kirolentzako (Euskal Pilota, Arraunketa eta Herri Kirolak), kirolaren eredu zehatz baten garapenarekin aurrerantz jo daiteke; honetan, txapelketa arauak, sistemak eta egutegiak, ereduak, entrenamendu sistemak eta abar aldatu daitezke, beren iraupena bilatzeko asmoz eta kanpo kirolaren egiturek mugatu ez ditzaten, unibertsalizazio eredu batekin baterakide eginez.

#### ***4. Goi errendimenduko kirolarien / entrenatzaileen finantzazioari dagokionez; estatuak, goi mailako esparruaren barne bultzatu eta sustatu nahi dituen kirol motak aukeratu eta indartu ditu. Baita ere, kirolari eta entrenatzaile batzuentzat, finantziario publikoak eta pribatuak osaturiko zenbait laguntza diseinatu ditu***

Laguntzarako programak, kirol-elkarteek garatutako parametro edo irizpide zehatz eta objektibo batzuk betetzen dituzten kirolari / entrenatzaileei daude zuzenduta.

Goi errendimenduko kirolari / entrenatzaileei zuzendutako Institutu eta programa ezberdinek, bai kirolari / entrenatzaileei zuzendutako kirol-hezkuntza, baita beren hezkuntza akademiko eta profesionala ere barneratzen dute.

Normalean, ematen diren laguntzak bi multzo handitan antola daitezke; ekonomikoak (entrenamendurako finantza-laguntzak, materialaren erosketa, janaria, txapelketatara jotzeko garraioa, e.a.) eta teknikoak / profesionalak (mediku zerbitzuak, biderapen eta hezkuntza profesionalaren zerbitzuak, entrenamenduak eta instalazioak, e.a.).

Australian edo Eskozian, adibidez, bertako elitezko kirol-zentroek (Kirolaren Institutuak) programa zehatz bat dute, ACEa (Athlete Career





and Education); honetan, hautatutako goi errendimenduko kirolariek kurtso zehatzak jasotzen dituzte, eta lan munduan murgiltzeko aholkularitza zerbitzuak eskaintzen zaizkie. Horretarako, unibertsitateen edo zerbitzu enpresen edo Giza Baliabideen aholkularitzen laguntza dute.

Quebec-en, eskola eta unibertsitateekin, bertako ordutegiak elitezko kirolarien beharrei egokitzeko itunak daude; honela, bere prestakuntza teknikoak ez du hezkuntza akademikoan eta lan etorkizunean eragin negatiborik izango.

Australian Institute of Sport delakoaren babesaren %10a pribatua da. Zehazki, elitezko kirolarientzako biderapen profesionalaren programa, ACEa, %60an enpresek eta unibertsitateek finantzatzen dute.

Team Danmark (Danimarkan goi errendimendua sustatzen duen Fundazioa) delakoaren aurrekontuaren %42a babes pribatutik dator.

Estatu mailan, ADO plana (CSD) eta Andalucía Olímpica plana (Andaluziako Junta), bere finantzaketaren zati garrantzitsu batek babes pribatuan du jatorria.

### ***5. Beren sail edo ministerioetan autonomia maila ezberdina duten Gobernuko kirolaren agentziak ezartzeko joera dago***

Honela, Suitzak Baspo, du, Eskoziak SportsScotland, Zeelanda Berriak SPARC, Australiak ASC (Australian Sport Commission), Irlandak Irish Sport Council, Flandesek Bloso eta Quebec-ek SLS.

Autonomia honek, erabakiak hartzeko unean eta merkatuko beharrei iraunkortasunez egokitzeko unean malgutasunaren handitzea suposatzeaz gain, ekimen pribatuarekin irazkortasun handiagoa emango du batera proiektuak finantzatzeko unean, adibidez.

### ***6. Kirol-elkarte nazionalak, Konfederazioetan edo Federazioen Elkargoetan elkartzeko joera dute***

Honek, gobernuarekin elkarrizketan daudenen kopurua murrizten du, adibidez, administralgo batzorde edo kontseilu ezberdinak osatzeko unean (Finlandian doping-aurkako erakundean gertatzen den bezala, edo Danimarkan Team Danmark delakoan bezala).

Konfederazio hauek bi erantzukizun orokor dituzte; bata, Kirol-Elkarteei zerbitzu ematea (erakundeen aurreko ordezkariak, aurreko adibidetan aipatu den bezala, edo zerbitzu orokorrak ematea, adibidez, datu-baseen kudeaketa, e.a.); bestea, estatuko kirol agentzia edo sailean eskuorde zerbitzu ematea (adibidez, Sportsquébec delakoak, Quebec-eko Jokoak antolatzen ditu, edo, SLSaren agindupean, entrenatzaileei hezkuntza teorikoa ematen die).

### ***7. Administrazioak kirol-elkarte eta elkargoei eman beharreko diru-kopuruaren eta elkarte hauek helburuak betetzearen artean (Administralgoak bere plan estrategikoetan zehazturiko batzuk), korrelazio handia dago. Gainera, helburu hauen zati garrantzitsu bat "Guztiontzako Kirola" programen sustapenari dago loturik, biztanleen kirol jarduketan partehartze maila handitzeko asmoz***

Administrazio Publikoak kirol-elkarte eta elkargoei ematen dien diru-laguntza ezberdinak, aurretik kirolaren agentzia edo sail publikoak definitu dituen irizpide eta helburu multzo baten betetzearen esku daude (kirolen lehentasuna, entrenatzaileen hezkuntza, entrenamenduen antolamendua, txapelketen antolaketa, e.a.).

Gainera, Elkarrekin burutu nahi dituzten proiektu berezien edo berritzaileen arabera, diru-laguntza bereziak ematen dituzten zenbait herrialde dira, Quebec edo Irlanda adibidez.

Hiritarren jarduketa mailaren handitzea, aztertutako herrialde gehienentzat lehentasun bihurtzen ari da. "Guztientzako Kirola" programen eta jardueren sustapenean eta antolakuntzan, kirol-elkarrekin inplikatze joera ere dago. Inplikazio honen lortzea, diru-laguntza publikoen ildoak eta kirol mota honen sustapena elkarrekin bidez egiten da, bere osotasunean edo zati batean.

#### ***8. Eragile publiko eta pribatuen arteko baterakoak diren jarduketa esparruak daude, kirol estrategia definitzeko eta estrategia honetatik eratorritako ekintzak ezartzeko asmoz***

Aztertutako herrialdeek, kirol strategiaren definizioan eta burutzean, eragile pribatuen partehartze maila ezberdinak dituzte.

Honela, jarduketa publikoek indar handiago duten herrialdeak identifikatu ditzakegu; hauetan, estrategia zehatz batzuk definitu eta ezarri baino lehen, eragile pribatuei kontsulta egiten zaie. Bestalde, jarduketa pribatua oinarritzeko elementua izan den zenbait herrialde daude, bai estrategia definizioan, baita bere ezarpen eta kudeaketan ere.

Suitzan, kirol mailako nazioko kontsultarako batzordearen heren bat (Kirolen Batzorde Federala), erakunde pribatuek ordezkatzeko dute. Beste herrialde batzuetan, Danimarkan adibidez, bere kirol fundazioen eta erakundeen administrazio kontseiluetan, Gobernuak eta kirol enpresa eta elkargo pribatuen ordezkariak dituzte.

Kirolaren kudeaketari dagokionez, partehartze pribatua argiago azaltzen da. Kirolaren politikaren burutzearen funtzio asko, etorkizuneko gazteen identifikatzea, kirolari bekadunen hautatzea, eskola-kirolaren programen garapena, adibidez, elkarrekin esku daude.

Bestalde, egitura publiko eta pribatuen arteko lankidetzaren eta ezagutzaren trukearen formulak ugariak dira, maila ezberdinetan eta herrialde ezberdinetan. Adibidez, goi errendimenduko kirolean, Australian edo Scottish Institute of Sport eta Team Denmark delakoak, erlazio hau hobetzen saiatu diren formulak dira.

Honek, honako abantaila hauen lorpenean lagundu du:

- Helburuak elkarrekin definitzen dira.
- Eragile guztien jarduketan, koordinazio maila handiagoa da.
- Baliabide urrien ustiapen hobea sortzen da (finantzaketa, azpiegiturak, ezaupideak, e.a.).

#### ***9. Kirol loterien edota apustuen sistemak, aztertutako kasu askotan, kirolarentzako finantzaketa publikoaren iturri garrantzitsutzat hartzen dira***

Danimarka, Finlandia, Irlanda edo Zeelanda Berria bezalako herrialdeetan, (estatu mailako) kirol jarduketan ia osoa, kirol loteriatik edo kirol apustu sistemetatik eratorritako aurrekontu-funtzen edo aurrekontu-sailen bidez finantzatu da. Beste herrialde batzuek, Eskozia adibidez, finantzaketa iturri honetatik eratorritako fondo garrantzitsuak dituzte ere.

Erantsitako taulan, loteriak kirolaren sistemarako sortzen dituen baliabideen garrantzia ikus daiteke.

Kirol loteria/apustuen garrantzia kirol sistemak finantzatzeko iturri gisa				
Herraldea/ Lurraldea	Kirola finantzatzeko duen loteria eta apustu organismoaren definizioa	Loteriaren sorkuntzaren urtea	Kirolaren aurrekontua (Milioi €-tan)	Loteriak finantzatzeko duen aurrekontuaren %
Eskozia	The National Lottery: Kirolezkoa ez den Loteria	1994	61,74 milioi €	%68
Zeelanda Berria	Kirol apustuen sistema	n.d.	16 milioi €	%90
Irlanda	The National Lottery: Kirolezkoa ez den Loteria	1987	25 milioi €	%100
Danimarka	Dansk Tipstjeneste: Kirol apustuen sistema	1948	95,6 milioi €	%100
Finlandia	Oy Veikkaus: Kirol apustuen sistema	1940	82,86 milioi €	%98
Suitza	Sport-Toto: Kirol apustuen sistema	1938	Loteriaren mozkin garbiaren %75a kantonamenduek jasotzen dute, hauek kopuru hau kirolean jartzen dutelarik. Gainontzeko %25a Suitzako Batzorde Olinpiarrek jasotzen du.	
	Gobernu Zentralak ez du sistema honetan parte hartzen, eta beraz ez du, beren programatzeko, inolako finantzaziorik jasotzen			

*Iturria: Aurrekontuak estatu-agentziei dagozkienak dira; Sportscotland (Eskozia), SPARC (Zeelanda Berria), Irishsports council (Irlanda), Kultur Ministerioaren Kirol Bulegoa (Danimarka), Hezkuntza Ministerioaren Kirol Zuzendaritza eta Baspo (Suitza)*

### 10 “Kirolaren sektoreak” herrialde eta lurralde ezberdinen ekonomian duen garrantzia erreferentzizat hartuta, sektore honetan lanpostuak sortzen saiatzen diren ekimen ugari daude

Europako Erkidegoko herrialde guztietan lanerako egungo norabideen lau oinarriak honakoak dira; murgiltze profesionalaren gaitasunaren hobekuntza, enpresa-izpirituaren garapena, langileen eta enpresen egokitzearen sustapena, eta emakume eta gizonentzako aukera berdintasunen bultzapena.

Oinarri hauen izpirituaren barne, EBaren barne, kirolaren sektorean lanaren indartzea bilatzen duen gobernuko ekimen sorta bat topatu da:

- Zailtasun gehien duten hiritarren lan murgilpena: programa ezberdinak ditugu, Herbehereetako “60.000 programa”, Erresuma Batuko “New Deal” programa eta Finlandiako “Kirolak lana sortzen du eta bizi kalitatea hobetzen du” programa, adibidez. Guztiek antzeko ezaugarriak dituzte, hots, langabezian denbora luzea daramatenei, gazteei eta lan murgiltzerako zailtasunak dituzten pertsonen lanaren bilatzea erraztu. Ministerio ezberdinek, kirol-egituretan pertsona horien soldatak aldi berean finantzatzeko dituzte, eta langileei hezkuntza ematen diete.
- Kirol-egituren indartze kualitatiboa: kirolaren sektorearen barne (kirol elkarteak), lanpostu gaituak garatzearen helburua duten planak dira. Planik interesgarrienak honakoak ditugu; Herbeheretako “PRIMS” delakoak, eta Frantziako “klub bat, lanpostu bat” plana; hauetan, klubek diru-laguntzak jasotzen dituzte, kudeaketa munduan zuzendari profesionalak kontratatatu ditzaten. Baita ere “Enplegu-emaleen elkargoen” posibilitatea ageri da; hauetan, zenbait klub edo elkarteek, zuzendaritza profesionala bera dute (bere osagarrikotasuna dela-eta, finkoagoak bihurtu daitezkeen lanaldi partzialeko lanak).

- Elkargoen barne, jarduketa berrien garapena. “Zerbitzu berriak, lanpostu gazteak” programa frantsesak filosofia hau argi eta garbi jarraitzen du. Bere helburua, kirol erakunde berritzaileak edo lan formula originalagoak bilatu dituztenak identifikatzea da (balio erantsizko zerbitzu berriak ematea, e.a.).
- Enplegu-erregulazioak; Frantzia, titulu nazional bat edo lizentziatura bat (BEES) beharrezkoa da irakaskuntzan lan egiteko. Titulu hau, enpresariei eta kontsumitzaileei gutxienezko berma emateko erabiltzen da.

### ***11. Teknikari taldearen hezkuntza planek, espezializazio maila handikoak direnak, bere diseinu eta ezarpenean Gobernuaren laguntza eta kirol elkarten lankidetzaren dute***

Orokorrean, aztertutako teknikarientzako plan oro mailen arabera dago egituraturik (behe mailakoa, boluntario gisa eta maila txikiko klubetan lanean dauden teknikariei zuzendutakoa, eta goi mailakoa, elitezko kirolarien teknikariei zuzenduta).

Gobernuak, oro har, zati teorikoaren eta hasierako kurtsoen definizio eta irakaskuntzan parte hartzen du. Horretarako, adituekin eta entrenamendu eta hezkuntza zentroekin sare bat kudeatzen du, geografikoki eta funtzionalki herrialde / lurralde osoan hedatzeko.

Elkargoek, orokorrean, azken kurtsoen eta teknika eta praktikarekin erlazionaturiko moduluen diseinuan eta irakaskuntzan parte hartzen dute. Orokorrean, haiek berek, kurtso hauetan beren burua presatatu nahi duten entrenatzaileak aukeratuko dituzte.

Estatuak kurtsoen zati bat finantzatu du erakundeei ematen dien diru-laguntzen bidez, erakundeek horretarako dirua neurritz erabili beharko dutelarik. Suitzian izan ezik, aztertutako gainontzeko herrialdeetan (Kanada, Australia eta Zeelanda Berria), entrenatzaileak berak matrikularen zati bat bere poltsikotik ordaindu beharko du.

Aztertutako herrialde eta lurraldeen artean, (Kanadako) Quebec-eko programa, bai bere sorreran, baita bere kudeaketa eta irakaskuntzan ere, elkarteek gehien kontrolatzen duten programa da (izatez, kanadar elkarte nazionalak eta entrenatzaileen elkargoa programaren jabeak dira). Bestalde, Zeelanda Berria dugu; bertan gobernuak (SPARC) bere entrenatzaileen zertifikazio programaren modulu guztiak diseinatzen eta kontrolatzen ditu.

### ***12. Adin-txikikoaren babesari eta kirolaren joko garbiaren indartzeari zuzendutako programak nabarmendu beharra daude***

Adin-txikikoaren babesari dagokionez, Irlandan landu berri den gutuna nabarmendu beharra dago (“Kode Etikoa eta Manera Onak”). Manifestu hau, haiek kirol jarduketak era osasuntsu eta errespetutsuaz egiten dituztela ziurtatzen saiatzen da, baita, jarduketa haiek burutzen dituztenean, adin haienganako abusua eta tratu





txarrak prebenitzea eta haien aurka borrokatzea ere. Honetarako, klubean barne burutu daitezkeen neurri batzuk zehazten dira, besteak beste, adin-txikikoaren babeslearen irudia sortzea, klub eta elkarten egituraren beran integraturiko "gazte ofiziala" (Irlandako elkarten %75ak bere organigramatan irudi hau barneratu du dagoeneko). Gutun hau diziplina arteko batzorde batek idatzi du; batzorde honen barne, unibertsitateko, osasungintzako, hezkuntzako, gurasoen elkartetako, adingabearen elkarteetako, eta kirol munduko kideak ditugu.

Joko garbiaren sustapenari dagokionez, "Franc-Jeu" (Quebec) aipagarria da. Maila baxuetako izotz-hockey jokalarien artean biolentzia-ezaren indartzearen programa bat da, Unesco-ren sari bat jasozuena (1991). Programa hau, bere txapelketetan falta gutxien dituen taldea "saritzean" datza, saria, sailkapen orokorrerako puntuak jasotzea delarik.

Bestalde, Australian, herrialde honetako Kriminologia Institutuak, kirolaren garapenean inplikaturiko eragile ezberdinek bete beharreko estrategia zehatzak garatzen ditu. Jokabide kodeak ezartzen dira, elkarren artean erlazioatuak, administrarietzat, gurasoentzat, ikusleentzat, irakasleentzat, komunikabideentzat eta jokalarientzat.

### ***13. Mugetatik kanpo Estatu edo Herrialde baten irudia sustatzen edo proiektatzen saiatzen diren ekintza zehatz ugari daude, nazioarteko txapelketen ekitaldietatik at antolatzen direnak***

Zenbait naziok, Quebec adibidez, kirolarekin erlazioaturiko alderdiren baten gaineko ezagutzaren trukerako ospakizunak antolatu dituzte (Guztionezako Kirolaren Nazioarteko Kongresua, 2000).

Beste lurralde batzuk, Katalunia adibidez, iraunkortasun handiagoa izango duten trukerako ekimenen buru dira, hauek koordinatuz. Kasu honetan, Goi Errendimenduko kataluniar Zentroa "Eliteko Kirola-

ren Nazioarteko Foroaren” buru da, hots, kirolaren bikaintasunari buruzko ikerketak, eztabaidak, mintegiak antolatzen dituen elkargo bat; gainera, gai honetan adituek parte hartzen duten urteko kongresua antolatzen du. Azkenekoan, Londresen, Erresuma Batuko, Australiako, Frantziako eta Kataluniako ordezkariak elkartu ziren.

Flandes bezalako beste lurralde batzuek, *abaguneko egoerak aprobetxatu dituzte*, adibidez, EBko Belgikaren lehendakaritza (2001eko uztaila-abendua bitarte), ezagutzaren trukea eta doping-aurkako politikari buruzko bilerak eta kongresuak antolatzeko.

Lurraldeko eta tokiko ekimenak ere topa daitezke; adibidez, Calgary-ko Unibertsitateak (Alberta, Kanada) *informazioaren trukerako sareak* koordinatzen ditu, NASLIN adibidez (North American Sport Library Network).

Honekin batera, *mugatatik kanpoko txapelketen ekimenak ere daude (baita lan eta ikerketa taldeak ere)*, nolabaiteko lotura kulturala duten estatu, lurralde edota herrialde ezberdinak bilduz (subiranoak ez direnak ere), adibidez:

- Frankofonoen Jokoak: aldizka antolatzen diren txapelketak, non frantses hizkuntza erabiltzen duten estatu nahiz nazioek parte hartzen duten.
- Commonwealth-eko Jokoak: aldizka ospatzen diren txapelketak (azkenekoa, 2002ko udan ospatu zen Manchester-en); bertan Commonwealth-an barne dauden estatu eta herrialdeak parte hartzen dute.
- Europan, erreferentzia interesgarri eta garrantzitsua den ARGE-Alp izeneko alpetar lurraldeen elkargoa dugu (Lonbardia, Adigio Gaina eta Trentino lurralde eta probintzia italiarrak, Grisonen, Sank Gallen eta Ticino kantonamendu Suitzarrak, Baviera eta Baden Wütemberg alemaniar ländler delakoak, eta Vorarlberg, Tirolo eta Salzburg austriar estatuak barne). Lurralde / estatu / kantonamenduz osaturiko elkargo honek, bi bide ditu kirola lantzeko eta sustatzeko; ikerketa eta txapelketa (urtero, adibidez, mugatatik kanpoko 20 ospakizun baino gehiago antolatuz). Honi dagokionez, eta espainiar estatuan barne, Kataluniak, Alemaniako Baden-Wurtemberg-eko Land-arekin, Lonbardiako italiar lurraldearekin eta Rhône-Alpes frantziar lurraldearekin batera, Europako “Lau Motorrak” deituriko elkargoa osatzen du, 1988. urtean sorturikoa (1991. urtetik aurrera, Gales eta Ontario behatzaile gisa daude barne). Adibide hurbilagoa, Kirolaren Europar Sarean dugu; Andaluziako Juntak, Instituto Portugues do Sporto de Algarve-k, BAB distrituak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak osatzen dute.

**14. Gobernu zentralek, udal mailan burutzen diren kirolerako azpiegituren eraikitzea koordinatzen eta planifikatzen dute. Bestalde, kirol azpiegituren lan handiak, edo “interes nazionalekoak”, aukeratzen dituzte eta lehentasun maila ematen diete**

Aztertutako kasu guztietan, azken finean, udalak dira oinarritzko kirol azpiegituren eraikitzeaz arduratzen direnak. Halere, honen kudeaketa, formula ezberdinak jarraituz burutzen da, besteak beste, ekimen pribatuari, instalazioen ustiapenerako lizentzien ematea.

Bestalde, kirol azpiegituren lan handiak, normalean gobernu zentralek edo herrialdekoek zuzentzen dituzte. Azpiegitura lan handi honen planifikazio, eraikitze eta kudeaketarako, antolaketa alternatiba ezberdinak aztertu dira, besteak beste, honakoak:

- Irlandan, Gobernuak enpresa bat sortu du, “Sports Campus Ireland”, azpiegitura lan handiak finantzatzeko kapital pribatua erakartzeko asmoz. Honen truke, entitate pribatuak, kirol ekipamenduek berek eta dauden beste zerbitzuek (garajeak, bulegoak, dendak, ostatuak, e.a.) ekaritzen duten diru-sarreraren zati bat jasotzen du.
- Danimarkan, kapital pribatu eta publikoaz osaturiko fundazio bat (kirol elkarte nazionalak bezala, adibidez), kirol azpiegituren eraikitzearen finantzazioaz arduratzen da, nahiz eta gero, bertako udalak instalazio horiek kudeatu. Esan beharra dago finantzazio hau, neurri batetan, kreditu bigunen bidez eusten dela.
- Azkenik, Suitzan, “ad hoc” batzorde bat ezarri da, interes nazionaleko kirol azpiegituren eraikitzerako (CSIN). Batzorde honek, non organo publiko eta pribatuak ordezkaturik dauden, elkar-teeek aurkeztutako kirol lehentasun ezberdinak ikertzen ditu, eta aurretik ezarritako irizpide batzuk betetzen dituztenak aukeratzen ditu.

## EUSKAL KIROLAREN EGOERAREN AZTERKETA

4







# euskal kirolaren egoeraren azterketa

Kirolaren Euskal Sistemaren egungo egoeraren azterlan hau egiteko, aztertu dira Kirolaren Euskal Eredua osatzen duten lau kirol jarduera mota bakoitzaren aldagai batzuk, plan honen sarreran adierazia dagoen bezala. Hona hemen: Eskola-Kirola, Partaidetzako Kirola, Errendimenduko Kirola eta Goi Errendimenduko Kirola. Beste alde batetik, zeharrezko aldagai batzuk ere aztertu ditugu, arestian aipaturiko lau kirol jarduera motetan, maila bertsuan, ageri direlako.

Jarraian, azterturiko aldagai nagusien koadro laburpena ageri da:

Arterturiko aldagai nagusiak	Eskola Kirola	Partaidetzako Kirola	Errendimenduko Kirola	Goi Errendimenduko Kirola
Partaidetzari buruzko Estatistikak				
Eragile partehartzaileak eta garrantzi ekonomikoa				
Kirol Mendikuntza				
Prestakuntza eta Enplegua				
Etika eta Indarkeria				
Euskal Federazioen finantzaketa				
Kirolari laguntzeko Fundazioak				
Euskal Selektzioak				
Kirol ekitaldiak				



Azterturiko gaia



Aztertu gabeko gaia

Bestelako zehar-aldagaiak
Titular ofizialen eta ez ofizialen lan merkaturatzearen maila
Euskara eta Talde Nortasuna
Babesa eta Mezenasgoa
Euskal Herriko Kirolak; Arraunketa, Pilota eta Herri Kirolak
Loteria eta apustu sistema
Kirol moldatua
Emakumea kirolean



ESKOLA-KIROLA

4.1







## 4.1.1. Eskola-Kirolaren kontzeptua

Eskola-Kirola 0 eta 16 urte arteko hurrek egindako kirolada, alde batera utzita eskaintzaren antolaketan parte hartzen duten Kirolaren Euskal Sistemaren egiturak edo eragileak.

Ondorioz, Eskola-Kirolaren barnean daude 0 eta 16 urte arteko hurrek egindako jarduera fisikoak, motrizak edo/eta kirol jarduerak, antolatuak edo espontaneoak, *eskola orduetan edo eskola ordutik kanpo*. Hau da, barne dago hala eskola-kirolaren legezko kontzeptua (eskola orduetatik kanpo) nola ikaslearen joko, motrizitate eta gorputz heziketaren jarduerak.

Pertsonak eskola-adinean *hasi behar du kirol jardun zuzenean*. Eskola-adineko jarduera fisikoa *haurra-aren osoko hezkuntzaren osagaia* da, balore positiboak transmititzeko bidea eta *bermea da etorkizuneko kirol jardunari begira*.

## 4.1.2. Eragile partehartzaileak eta garrantzi ekonomikoa




\* Lehiaketako daturik baizik ez dago eskura

\*\* Bizkaian, lehiaketako jardueren partaidetza daturik baizik ez dago eskura (9-14 urteko jomuga-populazioaren hurren % 36.37)

Gipuzkoa

% Partaidetza	Jomuga Biztanleri-gipuzkoa	% Emakumeak	
		gipuzkoa	Partaidetza *
%54,2	6-16 urte	%49	%38

36 kiroletaik 10 kirolek Partaidetzaren osoaren %74 bereganatu zuten



\* Lehiaketako daturik baizik ez dago eskura


Iturria: KPGM Consulting etxeak egina, Foru Aldundiek eta INEk emaniko datuetan oinarriturik. Kirol jardueren eragin ekonomikoa EAEn 2001

Hasiera batean, eta aurrerago azpimarratuko den bezala, ez dago eredu bateraturik hiru aldundien artean. Horrek eragirik, elkarren artean ezberdinak dira eskainitako kirolak, kirol bakoitzaren jomuga-populazioak eta iraupenak. Beraz, ez dira konparagarriak hiru lurralde historikoen arteko partaidetza datuak.


Halaber, azpimarratu behar da sexuen artean dagoen aldea lehiaketako jardueretan parte hartzeari dagokionez. Kasu guztietan, askoz ere mutiko gehiago aritzen dira neskatoak baino eta hori hiru lurraldeetan gertatzen da.

Eskaintzaren aberastasunari dagokionez, eta lehiaketa programez ari garela, hiru lurralde historikoetan kirolei buruzko eskaintza handia eta aberatsa dago.

Beste alde batetik, eskola-ikasleek lehiari aritzeko aukeratzen dituzten kirolei dagokienez, nabarmendu behar da hiru lurralde historikoetan kirol batzuetan metatzen dela partaidetza. Horrela, futbolaren inguruan (bere aldaera guztiak barne) egiten dira eskola-kirolako jarduerarik gehienak, eta saskibaloia eta eskupilotaren inguruan ere bai.



Iturria: Eustat



Iturria: Eustat

Gorputz Heziketaren irakasgaiari dagokionez, gaur egun, ikasleek jaso behar dute lehen hezkuntzan (6-12 urte), bigarren hezkuntzan (12-16 urte) eta batxilergoko lehen mailan (gaur egun, ordubete ematen da bigarren ikasmilan, baina 2003-2004 ikasturtetik aurrera bi ordu emanen dira lehen mailan eta bigarreanean kenduko da).

Gaur egun, eskolatutako ikasleak, denetara, 200.900 dira lehen eta bigarren (derrigorrezkoa eta derrigorrezkoa ez dena) hezkuntzan. Ikasle gehienak lehen hezkuntzako 6 ikasmiletan ari dira (%47), ikasleen %33 derrigorrezko bigarren hezkuntzan ikasten ari da eta, azkenik, %20 inguru derrigorrezkoa ez den bigarren hezkuntzan. Ondoan dauden eskola-adineko populaziorako eginiko islapenaren arabera, eskola-populazioa (6 eta 18 urte artekoa) %4,63 murriztuko da hemendik zortzi urtera (biztanleria osoa %1 murriztuko litzateke). Murrizketarik handiena derrigorrezkoa ez den bigarren hezkuntzan ari diren ikasleen artean gertatuko litzateke (%-21). Aldiz, lehen hezkuntzakoak %5 haziko lirateke.

*Lehen hezkuntzako ikasleek dituzte ordurik gehien astean gorputz heziketari dagokionez. Dena dela, ikasleria goiko mailetara pasa ahala, gero eta ordu gutxiago dituzte. Gainera, ordu banaketak eta ikastetxearen antolaketak eraginik, askotan ordu horiek egun bakarrean ematen dira. Beraz, horrek esan nahi du ikasle batzuek astean behin besterik ez dutela kirol jarduerarik egiten.*

*Adin-txikikoaren derrigorrezko eskolatzearen aurreko etapetan, aipatu behar da, gorputz heziketarik ez dagoela irakasgai gisa eta ez duela halako ordu kopuru zehatzik, baina ageri da modu zeharrean etapa horretako curriculum osatzen duten hiru esperientzia barruti edo alorretan. Praktikan, aipatu barrutien azken osaketa ikastetxeen eta beren organo eskudunen autonomiaren baitakoa denez, –Eskola Kontseilua izan daitekeen moduan– Gorputz heziketari loturiko gaiak modu ezberdinean ematen dira ikastetxetik ikastetxera.*

	DLH	DBH	DBHO
% Biztanle Guztira	%4,51	%3,30	%2,00
Gorputz Heziketa. Asteko ordu kopurua	2,5 ordu	2 ordu	2 ordu lehen kurtsoan/ 0 ordu bigarren kurtsoan
Eduki beharreko titulua	Irakasle Eskola	Lizentziatura	

*Iturriak: KPMG Consulting etxeak egina Eustat-etik lortutako datuetan oinarriturik. Eta Diario El Correo egunkarietatik ere bai*

Berritzeguneak, Hezkuntzako Prestakuntza eta Berrikuntza Sustatzeko Zentroak dira eta, haietan, irakasleak aholkatu eta orientatzen dituzte hezkuntza-lanari heltzerakoan. Gorputz Heziketari doakionean, Gasteizko Berritzegunean baizik ez dago Alorreko Aholkularirik. Hau da, Gipuzkoan dauden sei Berritzeguneetan ez dago era horretako aholkularirik. Gauza bera gertatzen da Bizkaian dauden hamar Berritzeguneetan. Araban bi zentro izanik, horietako batean badute Alorreko Aholkularirik.

Laburbiltzeko, hona hemen zeintzuk diren irakasgaiaren eragozpen nagusiak:

- Kirol jarduerekin dagoen *lotura urria* eskola orduetatik kanpo.
- Irakasgaiaren *izaera sinbolikoa* (beste herrialde batzuetan, aldiz, AEB, Kanada edo Alemanian, gainditzen ez duenak ez du ikasmila pasatzerik).

- Familien *sentsibilizatorik eza*.
- Irakasgaiari batzuetan ematen zaion *lehia tankera handiegia*.
- Ez *zaiela behar bezalako harrera egiten hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei*, kalitatearen ikuspegitik.

#### 4.1.3. Eragile partehartzaileak eta garrantzi ekonomikoa\*

	Eusko Jaurlaritzaz	Foru Aldundiak	Udalak	Kirol federazioak	Klub eta kirol elkarteak	Ikastetxeak	Euskal herritarrek	Besterik (enpresas pribatuak)
Erantzukizunak, legearen arabera	Eskola-kirolako oinarriak, irizpide orokorrak, diziplina araubidea eta lehiaketak arautzea.  Autonomia esparruko eskola-lehiaketak antolatu, sailkatu eta baimendu.	Urteko programak prestatu, onetsi eta gauzatu  Lurralde esparruko eskola-lehiaketak antolatu, sailkatu eta baimendu	Eskola-kirola gauzatzeko (Elkarlana, batez ere kirol instalazioak lagata)	Laguntza teknikoa	Elkarlana kirol jardueran	Eskola-kirolean aritzeko oinarrizko esparruak dira		
Eskola-kirola. Finantzaketa (portzentaia)	%0,38	%12,73	Oharra: Udalerriek ematen diote eskola-kirolari (batez ere, beren udal kirol ekipamenduak lagata). Ez da horren zenbatekoa kalkulaterik izan eta partaidetzako kirolari dagokion atalean sartu da.				%86,85	%0,05
Dirulaguntza publikoaren banaketa	%2,9	%97,1						

Iturriak: 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena, Kirol jardueren eragin ekonomikoa Euskadin, 2001

Legearen arabera, *Eusko Jaurlaritzari dagokio eskola-kirolaren oinarri eta irizpide nagusiak ematea, eta, aldiz, Foru Aldundi bakoitzari dagokio bere lurralde historikoaren eskola-kirola garatu, onartu eta burutzeko programen ardura*. Udalerriek, bestalde, Aldundiekin elkarlanean aritu beharko dute, aipatu programak gauzatzeko.

Bi erakundeek eskola-kirolari eginiko ekarpena ikusita, *Aldundien gain dago ia dirulaguntza publiko guztia, zehazki eskola-kirolari emaniko dirulaguntza guztien %97,1*. Laguntzak 3.209.519 koak izan ziren, 2001ean.

Azpirarratu behar da *banakako gastua oso nabarmena dela eskola-kirolaren finantzazioan, hau da, gastu osoaren %86,85* (egiazko banakako gastuaren %76,68 gehi gurasoen kuotaren %10,17).

2001ean, eskola-kirolean egin zen gastua guztira 25.214.688 € izan zen, hau da, EAEn kirol jardueretan eginiko gastu zuzenaren %3.

\* Azterketa hau eskola ordutik kanpoko eskola-kirolari baino ez dagokio.



Legearen arabera, eskola-kirola da derrigorrezko eskolatze aldian ikasleek egindako kirol jarduera antolatatu oro, hau da, 16 urte artekoa.

Legeak ondoko irizpide edo *printzipio orokorrak* ezartzen ditu, eskola-kiroleko programa orok aintzatu hartu behar dituenak:

- “Eskola-kirolean, ahal dela, *kirol anitz praktikatuko da eta lehiaketa-kirola ez da izango helburu bakarra*. Horrela, ikasle guztiek hainbat kirol-mota ezagutu eta horietan aritzea lortu nahi da, zeinnek bere borondate, gaitasun fisiko eta adinaren arabera”.
- “Lurralde historikoetako foru-organoeek urtero onartuko dituzte eskola-kirolari buruzko programak. Programen helburuak hauek izango dira: *ikasleei osotasuneko eskola-heziketa osatzea*, ikasleen nortasuna modu orekatuan garatzea, gorputz eta osasun ezaugarri jakin batzuk lortzea, eta geroago kirola egiten jarraitzea posible egingo duen prestakuntza ematea”.
- “Bideak jarri beharko dira eskola-kirolerako programetan *ezintasunak dituzten ikasleek beren ikaskideekin batera jarduteko modua* izan dezaten. Batera jardutea ezinezkoa denean, ekintza bereziak antolatu beharko dira ezintasunak dituzten taldeentzat”.

Era berean, legeak, eta eskola-kiroleko lehiaketa kirolari dagokionez, *muga geografikoak ezartzen ditu lehiaketak egin ahal izateko*, partehartzailearen adinaren arabera, eta ondoko taulan ageri den bezalaxe, geografi eremua handitzen da kirolariaren adina goratu ahala.

#### Muga geografikoak lehiaketan, adin taldearen arabera

Kategoria	Adina*	Lehiaketa moldeak
Aurrebenjamin	7-8	Ikastetxea
Benjaminak	9-10	Eskualdea
Alebinak	11-12	Lurralde Historikoa
Haurrak	13-14	Autonomia Erkidegoa

\* Urteak programaren bukaera urtean

*Iturria: Eskola-Kirolari buruzko 337/1997 Dekretua*



Oro har, begi bistakoa da, gaur egungo egoeran ez dagoela jarrera bateratua Foru Aldundien artean eskola-kirolari dagokionean. Horrek eraginik, badira eskola-kirolari buruzko hiru eredu ezberdin: bana lurralde historiko bakoitzean. Hona hemen eredu ezaugarriak:

- Hainbat kirol modalitatetan aritzeko aukera ematen duen kirolanitz programari dagokionez, *Arabian ia hastapen mailetan baino ez dago. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, lehiaketa mailetan ere ematen da*.
- Beste alde batetik, *Gipuzkoako benjaminek (9-10 urte) kirolanitz programan parte hartu behar dute. Araban eta Bizkaian, ordea, norberaren borondatean datza, hein handian*. Gipuzkoako benjaminek kirolanitz programan parte hartu behar izateak, kirolanitzaren zenbakia askoz ere

handiagoa da lurralde historiko horretan. Horri, gainera, mintegia bezalakoa da kirolanitzeko partaidetza goratzeko, goiko adinetan:

– *Eragileekiko lankidetzari dagokionez, ezaugarri hauek daude:*

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Lankidetzta udalekin	Noizbehinkako elkarlana (%33,33)	Oro har, ez da inolako elkarlan esparrurik	Udalerrien %69ren lankidetzta; 61 udalerrri
Lankidetzta klubekin	Klubak antolaketa esparruan partaide dira		<i>Laguntza Teknikoa</i>
Lankidetzta ikastetxeekin	Ikastetxeen partaidetzta % altua da, %85	%71ren lankidetzta	%62ren lankidetzta

– Azkenik, aipatu behar da Araban eta Bizkaian badituztela prestakuntza programak, “Federazioetako Teknikariak Prestatzea” eta “Garapena Hobetzeko Jarduerak”, hurrenez hurren. Gipuzkoak, aldiz ez du gai horri buruzko programa berezirik. Beste alde batetik, talentuak atzemateari doakionean, Bizkaian eta Gipuzkoan badira programak: “Hobekuntza eta Garapen Jarduerak” eta “Atzemate eta Teknikazioa Jarduerak”, hurrenez hurren.

#### 4.1.4. Medikuntza Eskola-Kirola

Federatu gabeko eskola-kirolean, *ez da ohikoa Kirol Medikuntzarik egotea*. Udalerrri gutxi batzuetan bai badituzte Kirol Medikuntzako beren zentroak edota zentro hitzartuak, bereziki *prebentzio lanez* arduratzen direnak (jarduera fisikorako gai den ala ez esatea).

*Kirolak eragindako istripu edo lesioetan, urgentziazko lehen laguntza Osakidetzaren instalazioetan ematen da eta, askotan, baita ondotik eman beharreko laguntza guztiak eskola-kirolaria erabat sendatu arte, erakunde horren ardura izatea ala ez. Beste aldi batzuetan, lesionatuei harrera egiten zaie ikastetxeek berek hitzartutako zerbitzu-zentroetan.*

Modu osagarrian, *Aldundiek poliza-aseguruak hitzartuak dituzte, aurreko atalean jasota ez dauden alderdiak estaltzeko: hortzak haustea, betaurrekoak haustea edota erantzukizun zibiletik datozenak.*

Ikastetxeetako gorputz heziketako profesionalek ondoko egoerei aurre egin behar izaten diete, hots, mediku zerbitzuarekin elkarlanean aritu nahi dute (Osakidetzta, gehienetan) gorputz heziketako saioak moldatu ahal izateko ikaslearen errekupeziara edo disfunzio motorera. Baina, maiz, ez dute behar bezalako laguntzarik jasotzen eskumenari dagozkion arazoak direla eta, elkar ulertze ezarengatik. e.a.



#### 4.1.5. Prestakuntza eta Enplegua Eskola-Kirolean

Sektoreko ezaugarrien nondik norakoak		
Langileak	Teknikariak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 14-18 urte (%45)</li> <li>- Harremana ikastetxearekin (ikaslea, ikasle ohia)</li> <li>- Prestakuntza eskasa</li> <li>- Ordainketa eskasa</li> <li>- Kontraturik ez</li> </ul>
	Koordinatzaileak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeko irakasleak (%65)</li> <li>- Bada kontraturik, ustez lege barnekoa (%84)</li> <li>- Unibertsitate mailako prestakuntza</li> <li>- Helduagoak, (36 urte)</li> <li>- Erantzukizun handiagoko funtzioak</li> </ul>
Enplegu emaileak		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxea bera</li> <li>- AMPA</li> <li>- Ikastetxeak edo AMPAK azpi kontrataturiko enpresak</li> <li>- Ikastetxeko kirol kluba</li> </ul>

*Iturria: Gipuzkoako eskola-populazioaren eskola-kirolaren kalitatearen ebaluazioa eta hobekuntzari buruzko azterlana. Gipuzkoa. Kirolarte 2002*

Beste alde batetik, *eskola-kirola boluntarioen menpe dago neurriz gora*. Boluntarioek eskola-kirolean arduraren postuak izaten dituzte behar bezalako prestakuntzarik gabe eta horrek kalte egiten dio zerbitzuaren kalitateari.

Teknikariek betetako lanpostuetan oso maiz *aldaketak gertatzen* dira.

Ez dago prestakuntza balianizdunik. Ondorioz, arduradunak ezin dira kirol jarduera mota honetan etengabe gertatzen diren aldaketetara moldatu.

Era berean, esan behar da, eskola-kirola *enplegu iturri* nabarmena dela, eta badirela *aukera onak prestakuntzari dagokionez*, arlo honetan profesionalak prestatzeari begira Gipuzkoan, adibidez, eskola-kirolak jauzi kualitatibo bikaina eman du. Izan ere, ikastetxeen %82k kirol-jarduerak kobratzen dituzte eta teknikarien eta koordinatzaileen %60k dirua jasotzen dute.

*Ez datoz bat* eskola ordutik kanpoko eskola-kirolaren *lanak eta gorputz heziketako programak*. Horrela, ez dago behar bezala aintzat hartua "hezitzailearen" zeregina hala postu teknikoetan nola eskola-kirola koordinatzeko postuetan. Horrek eraginik, *kontraesanak sortzen dira irakaskuntza arautuaren eta eskola ordutik kanpoko kirol jardueren artean*.


Azkenik, merezi du aipatzea, gaur egun, badirela *arriku nabarmenak* enplegu bai emailearentzat (diru zehapenak, e.a.) bai kirol teknikarientzat (gizarte aseguratik ez, kotizaziorik ez, e.a.) eskola-kirolaren garapenean. Hori guztia kendu beharko litzateke egun indarrean dagoen lan legeria ezarrita:

- Adibidez, lana adin-txikikoei emateak dakartzan arazoak lan arloan eta juridikoan. Gogoratu, indarra duen legeriak lanean aritzea debekatzen diela 16 urtetik behetikoei. Beste batzuetan, bada lan-harremana baina ez dira betetzen lotura horrek sortutako erantzukizunak. Edo, erabilitako kontratu mota ez dator bat eginiko lanaren tankerarekin.

#### 4.1.6. Etika eta Indarkeria Eskola-kirolean

Eskola-kirola, hezkuntzan sortua den aldetik, balore etikoak eta indarkeriarik ezaren baloreak transmititzeko euskarri nagusietako bat da.

Eusko Jaurlaritzak eginiko azterlanaren arabera, hona hemen zeintzuk diren eskola-kirolean dagoen indarkeriaren inguruan atzeman ziren gabeziak edo ahuldadeak:



Iturria: Indarkeria eta Kirola Euskadin. Azterlana

- Grafikoa aztertutik, ikastetxeko arduradunen arabera, indarkeria zokoratzeko aspektu nagusiak hauek dira: gurasoen hezkuntza eta monitoreak prestatzea.
- Halaber, bada eskolan lehia molde ezberdinak sortzeko beharra, lehiaketa profesionalean dauden irizpideak erabili gabe, beste batzuk baizik. Hori landu beharra dago.
- Bestaldetik, epaileak prestatzea eta balore hezkuntza ere azpimarratu behar dira.
- Arazorik nabarmenen artean ere badago istiluek edota egoera ez etiko horiek komunikabideetan duten oihartzuna.

Orain artean, erakundeak ahaleginean aritu direla indarkeria kirolek kendu eta balore etikoak kirolaren bidez, eta zehazki eskola-kirolaren bidez, transmititzeko, baina orain artean ez dirudi emaitza onik eman dutenik.

- Lehenik eta behin, *loturirik gabeko proposamenak eta programak izan dira*. Hau da, ez da estrategia, apustu edo ahalegin bateraturik izan eta horrek indarren sakabanaketa ekarri du eta kalte egin dio eraginkortasunari. Hala erakundeek (Aldundiek, bereziki) nola federazioetako araudiek neurriak abiarazi dituzte arlo honetan:
  - Aldundiek ahaleginik egin dute, hezkuntzaren ikuspegitik kirolaren kalitatea hobetzeko neurriak hartzen dituzten ikastetxeei dirulaguntzak (eta beste) emateko.
  - Era berean, jokabide ez etikoak kontrolatzeko bideak hobetu dira (fitxa faltsifikazioak, e.a.) eta, alde horretatik, lehiaketaren funtzionamendu egokia zaintzeko taldeak eratu dira.
  - Dena dela, *ez da modu iraunkor edo egonkorrean inplikaturiko eragileak bilduko dituen lan talderik aurkitu*.




- Bestaldetik, aipatu ahalegin askok aurrez aurre *berehalako diru interesak topatu dituzte*. Arestian esan den bezala, eskola-kirola ez dago profesionalen esku, ez dago behar bezala prestatuak beti lan-ingurunea eta jarduerarentzako laguntza, ikastetxe gehienek kopuruaren alde jokutzen du (saskiak, taldeak, sailkapenak...) kalitatearen kaltetan. Gainera, komunikabideak hasi dira kirol jardue-  
ra hori ematen: alegia, saltzea nahiago dute hezi edo eraikitzea baino.
- Ageriko edo ezkutuko indarkeriak, eta transmititzen dituen balore okerre-  
k, maiz, eskola-kirola hez-  
kuntzatik desbideratzen dute. Azpimarratu behar da eskola-kirolean dutela etorkizuneko kirolari-  
ek, profesionalak eta ez profesionalak, lehen harremana kirolarekin. Kirolarien bizitza aro honetan  
balore etikoak eta ez biolentoak transmititzeari ematen zaion garrantzia nolako, halakoa izanen da  
aipatu baloreen garapena kirolariaren kirol ibilbidean. Balore horiek lortzeko estrategiek epe erdi  
eta luzekoak izan beharko dute. Izan ere, *berehalako ikuspegitik eginiko irtenbide eta programek  
oso iraupen laburreko efektuak ekartzen dituzte*.
- Laburbiltzeko, esan liteke, salbuespenak salbuespen, gaur egungo kezka nagusia hauxe dela, hots,  
*haurrak kirolerako prestatzea eta, ez ordea kirola haurrentzako planifikatzea*.



## PARTAIDETZAKO KIROLA

# 4.2







# partaidetzako kirola

## 4.2.1. Partaidetzako Kirolaren kontzeptua


Partaidetzako kirola da kirolariak egiten duen huraxe hainbat arlotan dituen premiak asetzeko: aisia, olgeta, estetika edo/eta osasuna, alde batera utzita jarduera kirol-esparru antolatuetan, lehiaketan, modu arautuan egiten den ala ez.

Ondorioz, kirol jarduera honen atzean bizitza osasuntsuari loturik dago, gure gizarteak sustatu eta erraztu behar duena, herritarren osasuna eta seguritatea errespetatuko diren bermeak eta guzti.

Azpimarratu behar da partaidetzako kiroleko eskaintzak gero eta hobeagoak direla eta kirolariak oso argi du zergatik hautatu kirol jarduera mota hau.

Azterturiko lau kirol jarduera moten artean, hauxe da gehien hazi daitekeen kirola mota, nahikoa bate-ragarri baita euskal herritarrek duten bizimoduarekin, ondoko gauza hauetan, zehazki: ez da kirolaria erabat nekaturik uzten duen horietakoa, ez da sofritu behar, eta erraz aski moldatzen da herritarrek eguneroko bizitzan egin ditzaketen beste gauza batzuetara. Era berean, kirol jarduera mota hau da, oro har, egun herritarrak dituen baloreei hobekien egokitzen zaiena. Uste horrek erabat du zerikusia aurrerago adieraziko den beste batekin, hots, kirol antolatua edo federatua ez doa aurrera, eta, are gehiago, atzerantz ere hasia da.

## 4.2.2. Jarduera fisikoaren maila EAEn estimazioa



Iturria: (1) Compass Proiektua 1998; (2) Partaidetza in Exercise, Recreation and Sport; (3) Plan d'action 2000-2005 Kino Québec; (4) Osasun inkesta 1992 eta 1997 eta bizi baldintzei buruzko inkesta 1999 (urte horretan sedentarisismo tasa = kirolik egiten ez duten herritarren maiztasuna)

Oro har, datu gutxi daude euskal herritarrek kirolean duten partaidetzari buruz. Eskura dagoen informazioa bat dator irudipen orokorrarekin, hau da, *azken urteotan gora egin du partaidetzak jarduera fisikoan (jarduera fisikorik egiten ez zuen jendea %69 zen 1992an eta %50, aldiz, 1999an)*, zalantzarik gabe EAEn kirol mota hau indartzeko aurrera eraman diren ekimen guztiei esker. Batez ere, udalek egin dute lan handia.

Gaur egun, EAEn, 6 urtetik gorako biztanleriaren %50ak jarduera fisikoa egiten du, mota hau dela edo bestea dela. Federatuak %9 direla kontuan hartuta, esan dezakegu gutxi gorabehera *biztanleriaren %41k nola edo halako jarduera fisikoa egiten duela, federazioen egituretatik kanpo*, hau da, portzentaje hori partaidetza-kirolean aritzen da. Bestela esanik, *kirolean aritzen den jendearen %18,7 baizik ez dago federaturik*.

Erreferentzia batzuk izateagatik, *aipatuko dugu EAEn kirola egiten ez dutenen portzentaia Irlanda, Britainia Handia edo Holandakoaren antzekoa da*, eta Portugal, Espainia edo Italiakoa baino apalagoa eta beste leku batzuetan dutenaren gainekoa: Finlandia, Australia, Suedia edo Québec. Hau da, *oraindik partaidetzaren maila handiagoa izan daiteke*.

Hala ere, kontuan hartuta jarduera fisiko hau eta maiztasuna, datuak ñabartu behar dira: biztanleriaren %25ak dio aldi behin kirola egiten duela eta hori oso gutxi da (eta uste izatekoa denez, horien artean egonen da, noski, euskal federatuen %9). Aldiz, %11k asteburuan baizik ez du egiten, %3k oporretan baizik ez eta, azkenik, %11k dio kirolean aritzen dela urtean oso noizbehinka.

Beste azterlan estatistiko batzuek datuak zehatzago ematen dituzte. Horien arabera, egunean 3 ordu eskura izanik, *euskal herritarren %24 baizik ez litekeela aktibotzat jo*, eta, *%57k baino gehiagok egiten dutena baino kirol gehiago egin nahiko lukete*.

#### **4.2.3. Azterketa: partaidetza maila, adin taldeak, sexua eta gizarte maila kontuan hartuta**

Eskura dagoen informazio urria bat dator irudipen orokorrarekin, hots, *jarduera fisikoan dauden partaidetza mailak azken urteotan goratu dira adin talde guztietan*.


Deigarri gertatzen da, *16 eta 24 urte arteko gazteetan dagoen portzentaia*, gutxi gorabehera %53k ez baitu kirol egiten. Ohitura osasungarriak haurtzaroan eta nerabezaroan ezartzen direla kontuan hartuta, hala nola trebezia fisikoak eta motrizak errazago hartzen direla gaztetan, datuak oso kezkarriak dira. Horri gehitu behar zaio *adin tarte horretan gertatu dela portzentaia murrizketarik txikiena kirolarik egiten ez dutenen artean (%13 eta batezbesteko zenbakia %17 izan da)*. Bizitzaren aro honetako bizipen onak eragin onuragarria izanen dute etorkizunean jarduera fisikoa eta kirola egiteari begira. Datu horiek ez dute zerikustekorik beste herrialde batzuetan gazteen artean dauden jarduera mailekin; Québec, Australia edo Finlandia. Izan ere, haietan, sedentarismo tasa %10ren inguruan dago eta, nolahi ere, beren herrialdeetan dagoen batezbestekoa baino askoz ere apalagoa da.

Sedentarismo mailak, adin taldeen arabera, biztanleria osoa kontuan hartuta									
	C. A. País Vasco		Quebec %	Australia %	Finlandia %	España %	Suecia %	GB %	Holanda %
	% 1992	% 1997							
Guztira	69	57	30	22	21	75	30	44	43
16-24	61	53	9	11	13	59	17	26	28
25-44	69	57	30	17	22	72	37	41	35
45-64	68	58	31	27	25	85	54	54	49
+65	69	58	43	40	—	—	56	82	72

Iturria: proyecto Compass 1998, Participation in Exercise, Recreation and Sport, Plan d'action 2000-2005 Kino Québec, Encuesta de Salud 1997

Ohikoa izaten da *jarduera maila adinez gora joan ahala murriztea*, eta EAERI dagokionean, 24 urtetik gora, jarduera mailak pixkana murrizten dira. Izan ere, *25 eta 44 urte arteko pertsonen %57k ez du jarduera fisikorik egiten*. Beraz, ez dituzte jasotzen jarduera hori egiteak dakartzan onura ugariak.

Kontuan hartuta hurrengo adin taldeetan, 45etik 64ra eta 64tik gora, kirolik egiten ez dutenen portzentaia antzekoa dela, badirudi *kirolik ez egitearen ohitura helduaroan errotzen dela*. 64 urtetik gorakoan artean, badirudi *egunetik egunera gero eta gehiago ari direla jarduera fisikoa egiten*. Izan ere, *adin talde horretan gertatu da murrizketarik handiena (%25 modu erlatiboan)*. Dena dela, kirolik egiten ez dutenak %60 direla kontuan hartuta eta adin talde hori izanen dela *datozen urteotan gehien haziko dena*, agerian dago zeinen garrantzi handia duen 64 urtetik gorakoan artean behin eta berriz lan egitea, lehentasunez gainera.



Iturria: Osasun Inkesta 1997

	1997	1999	1997-1999
Gizonak	%53	%41	-12 puntu
Emakumeak	%60	%58	-2 puntu
Guztira	%57	%50	-7 puntu

Iturria: Osasun Inkesta 1997 eta Bizi Baldintzei buruzko Inkesta 1999

Eskura ditugun datu gutxi horiek diote, bana beste, *emakumea gutxiago aritzen dela kirolean gizona baino*. Kirolik egiten ez duten emakumeak %61 dira eta kirolik egiten ez duten gizonak, aldiz, %53. Ondorio hori, *aztertutako adin talde guztietan gertatzen da*.

*Maila horiek are okerragoak dira emakumea etxetik kanpo lanean arituz gero*, batez ere gizonarekin alderatuz gero. Etxe gehienetan, bi bikotekideak lanean aritzen badira, emakumea da oraindik ere etxeko lan gehien arduraduna eta haurrez ere arduratzen dena. Hori kontuan hartuta, denbora kontuek eta lehentasunek emakumea behartzen dute jarduera fisikoa zokoratzera.

Dena dela, azpimarratu behar da jarduera mailari buruzko alderik handiena *gazteen artean gertatzen dela*. Hau da, kirolik


egiten ez duen emakume gaztearen tasa hori mutil gaztearen baino 19 puntu goragokoa da, portzentaiari begira.

EAEen eginiko bi inkestaren emaitzak alderatuz gero, bata 1997koa (Osasun Inkesta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egina) eta, bestea, 1999koa (Bizi Kalitateari buruzko Inkesta, Eustatek egina), eta bi inkesten eta metodologiaren arteko ezberdintasunak kontuan hartuta, hona hemen atera daitezkeen ondorioak:

- Gizonezkoen sedentarismo maila %12 murriztu da 1997 eta 1999 artean. Emakumearena, aldiz, %3 baizik ez da murriztu. Hau da, *gizonezkoen artean %9 gehiago jaitsi da emakumezkoen artean baino.*
- Beraz, are handiagoa da bi sexuen arteko ezberdintasuna. Horrela, 1999an, gizonen sedentarismo maila %41 zen, eta, emakumeena, aldiz, %58.

Hala orokorrean nola sexuz sexu zatituta, *lanean ari den jendea kirolean gehixeago aritzen da, bana beste biztanleria osoa aritzen dena baino, %45 eta % 43, hurrenez hurren.*

Gizarte mailai begira, *gizartean prestakuntza gutxienean duen maila da kirol gutxiago egiten duena (%38 inguru, gizonetan nahiz emakumeetan).*



Iturria: Osasun inkesta 1997

	Batazbesteko orokorra	Lanean ari direnen batez
Gizonak	%53	%51
Emakumeak	%60	%59
Guztira	%57	%55

Iturria: Osasun Inkesta 1997

Aldiz, *gizarte mailarik faboratuena dira jarduera mailarik handiena dutenak. Kasu horietan, handiagoa da aldea gizon eta emakumeen artean.* Horrela, *gizonezkoen artean jarduerarik ezak oso tasa apala duen bitartean (%44) emakumeena %52 da.*

Beraz, *esan dezakegu, bizi maila zenbat eta jasoago izan, jarduera maila ere altuagoa dela.*

Horrenbestez, *badirudi EAEen, errenta maila apalenean askotan, prestakuntza eskasa eta enplegu eskasagoarengatik – sarbide murriztagoa dutela aisia eta kirol jardueretan. Alde hori bereziki handia da etorkin eta langabeen artean eta, are handiagoa, landa-eremuetan.*

Halaber, *sexuen arteko jarduera tasen ezberdintasunik handienak erdiko gizarte mailan daudela (%15).*

#### 4.2.4. Eragile partehartzaileak eta garrantzi ekonomikoa

	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Udalak	Kirol federazioak	Klub eta kirol enpresak	Euskal herritarrak	Besterik (Aurrezki Kutxak, e.a.)
Erantzukizunak, legearen arabera		Guztiantzako kirola sustatzeko kitol politika onetsi eta gauzatu (azken hori Udalekin elkarlanean) Kirola sustatzea, Guztiantzako kirola programak*	Lurralde historikoetako foru erakundeek onetsitako guztiantzako kirola programak gauzatzea	Bakoitzak bere kirolaren olgeta jarduera sustatu behar du			
Partaidetzako kirola. Finantzaketa (portzentaia)		%0,3	%6,51		%23	%67,79	2,4
Dirulaguntza publikoaren banaketa		%1,85	%98,15				

\* 27/1983 Legea Autonomia Erkidegoko Erakundeen eta Foru Erakundeen artekoa

Iturriak: 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena, Kirol jardueren eragin ekonomikoa Euskadin, 2001

Kirol jarduera mota honetan, guztira, 2001ean eginiko gastua 409.729.744 € izan zen, hau da, aipatu urtean EAEko kirol jarduera guztietan eginiko gastu zuzen osoaren %48.

Erakunde Publikoek aipatu gastuaren ia %7 finantzatu zuten (%6,61) eta *nagusiki kirolariak* hartu du bere gain Partaidetzako kirolak dakarren gastua: EMD (gastuaren ia %10), klub eta elkarte pribatueta-ko kuotak (%23), edota kirol gaiak, arropa, e.a. (%58). Kalkuluen arabera, kirolari bakoitzak –federatu gabeak–, aldez edo moldez, partaidetza-kirolean, *bona beste*, 440 € gastatzen ditu urtean.

Azpitarratu behar da legeriak federazioei ematen dien eginkizun publikoen artean dagoela kirol jarduera hau sustatzea. Hala ere, gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarriak ditu argi eta garbi era horretako helburu eta irizpideak, federazioei eman beharreko dirulaguntzen kalkulua egiterakoan. Arabako Foru Aldundiak, bere aldetik, “sustapen planentzako laguntzak” izeneko dirulaguntzen ildoari jarraikiz, baditu irizpide batzuk dirua banatzerakoan, hots, irizpideek diote kirol modalitatea sustatu eta hari lagundu behar zaiola, besteak beste, olgeta kirola bere programetan sartzen den neurrian. Bizkai-ko Foru Aldundiak ez du horri buruzko irizpiderik, baina federazioek dirulaguntza lortzeari begira aurkeztu beharreko agirien artean Kirol Proiektua dago, eta horretan baren sarturik egon daitezke Partaidetzako kirolari dagozkion jarduerak.

#### 4.2.5. Kirola eta Osasun politikak

Eusko Jaurlaritzak, Osasun Politikari loturik atera dituen agirietan, jarduera fisikoa egiteari dagozkion helburuak sartu ditu, bizimodu osasungarri gisa.

- Osasun Sailaren “Euskadirako Osasun Politika-2000” agirian 16 helburu zehatz sartu ziren, lau taldetan banaturik, horiek guztiak “Ariketa fisikoa eta osasunari” lotutakoak. Ondoren, “1994ko Osasun Planak” 2.8 helburu gisa ezarri du bere osasun helburuen artean hauxe: “2000 urterako, jarduera fisiko osasungarria, astialdian, egiten duen 15 urtetik gorako proportzioak %25etik gorakoa izan beharko du”. Jarduketa ildoak hainbat sektore hartuko ditu estrategia pean.

- Halaber, esan behar dugu “Euskadirako Osasun Politikak, Osasun Plana 2002-2010” agirian, 2002an onetsia, Jarduketarako Lehentasunezko Alorrek eta Bizitza estiloak: 1.4. Jarduera Fisikoa, helburua hau ageri dela: “2010 urterako, jarduera fisiko osasungarria, astialdian, egiten duen 15 urtetik gorako en portaentzioak %32ra iristea”. Helburu hori lortzeko begira, proposatzen da maila komunitarioan eta sektorez-sektore jardutea eta osasunean dauden desberdintasunei ere ekitea. Era berean, proposatzen da kirol gaixotasun eta istripu batzuetan eskuartzea hala nola harrera bereziko taldeetan: gazteria eta eskola-ingurunea.

Oro har, gizartean bada irudipen adostua kirola neurritz egiteak osasunari ekartzen dizkion onura ugarietz, baina, hala ere, oraindik ez dira modu orokorrean neurriak hartu kirola ikuspegi horretatik sustatzeko.

Ekintza zehatzen ikuspegitik, badira ekimen batzuk, baina ez dira orokorrak, jarduketa fisikoa eta kirola sustatzeko, osasuna mantendu eta hobetzeko begira.

- Sustapenari dagokionez, Osakidetzak zenbait iragarkitan hala nola zabalkundeko zenbait eskuorritan, aipatzen ditu jarduera fisikoa aldian behin egiteak osasunari ekarri ahal dizkion onurak.
- Beste alde batetik, Oinarrizko Osasun Laguntzaren Ikerketa Unitatea aztertzen ari da gaur egun “jarduera fisikoa sustatzeko esperimantazio-programa” bat. Programa horren garapenerako, laguntza eskatu diote Bizkaiko Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritzako Kirol Medikuntzaren alorrari.
- Badira tokian tokiko ekimen batzuk herritarrei (Irunsaioi) eta gaixo daudenei ere ariketa egina-razteko (Osasunkirol zentroa, Hondarribia), baina hori ez da modu orokorrean gertatzen EAEko lurralde osoan.

Komeniko litzateke osasun eragile arduradunen arteko inplikazio instituzional handiagoa, koordinatua, jarduera fisikoa eta kirola eraginkortasunez sustatzeko begira.

#### 4.2.6. Medikuntza Partaidetzako Kirolean

Oro har, esan daiteke ez dagoela zentro berezirik prebentzio lana egiteko. Eta, kasu batzuetan, huraxe aurreikusten duten udal instalazio batzuk badaude ere, inola ere ez dira koordinaziopean aritzen edota plan berezien eta irizpide orokorren arabera.

Horrez gain, esan daiteke Partaidetzako-Kirolean ari direnek ez dutela inolako laguntza berezirik. Ondorioz, Euskadiko Osasun Sistemara jotzen dute Osakidetzaren sarearen bidez eta han oinarrizko osasun laguntza hartzen dute, larrialditakoa eta orokorra, eta espresuki laguntza horretatik kanpo dago kirol lesioen ondoko errehabilitazioa eta sendatze funtzionala, eta, era berean, kanpo daude larrialditakoak ez diren osasun laguntzak edota sistema publikoaren osasun laguntzetatik haratago doazenak, Kirolaren Euskal Legearen 78. artikulua dakarren bezala.

Beraz, ez da laguntza eta prebentzio zerbitzu berezirik Partaidetza-Kirolerako eta hori azaldu daiteke betidanik federazioek baizik ez dutelako era horretako zerbitzurik eduki eta horretarako, lizentziak banatu baino lehen alde aurretik azterketa egoten zaio ikusteko gai den ala ez jarduera fisikoa egiteko.

Azpimarratu behar da, osasun laguntza sareari erabat ezezaguna egiten zaiola kirolaren mundua. Egoera horrek zaildu egiten ditu sendagilearen eta gaixo kirolariaren arteko harremanak eta zaildu ere egiten du prebentzio lana eta behar bezalako diagnostikoa ematea.

#### 4.2.7. Prestakuntza eta Enplegua Partaidetzako Kirolean

Kirolariak *garrantzi handia* ematen diete kirol instalazioetako *profesionalei* (bigarren faktorerik balortuena da, ondoko grafikoan ageri denez). Instalazioetan sartzeko ordaindu behar duten prezioaren gaitetik baloratzen da, gainera.

Halaber, pentsatzeko modukoa da *garrantzi horrek gora egitea* urteak aurrera joan ahala, bereziki kirolari adintsuagoak eskuratzeko joerari begira edota arazo bereziak dituztenak eta kirol kultura handiagoa dutenak.


Hala ere, *langileen arteko errotazio handia, kolokatasuna eta lanbidea goizegi bazter uztea* ez da inola ere lagungarri izanen zerbitzuaren fidagarritasunarentzat bezero-kirolariaren begietan. Izan ere, kirolariaren osasuna profesionalaren menpe dago.

Izan ere, oro har, pentsatzen da ez dagoela *profesional mailako araudirik* era horretako kirol jarduerako langileentzat. (45. Kapituluari, tituludun ofizialen eta ez ofizialen lan egoeraren azterketa egina dago). Gainera, sektore honetan ari diren langileen lan baldintzen kolokatasuna handitzen ari da.

Horrek guztiak eraginik, *neurritz gorako garrantzia ematen zaio ekonomia eta administrazioa kudeatzeari, profesionalen balorazio teknikoaren kaltetan*.

Beste alde batetik, gaur egun, oro har, *ez da diziplina anitzeko talderik, kirol profesionalak eta osasun alorreko teknikariak* elkarrekin aritzeko. Beraz, ez dira behar bezala zaintzen, ezta behar lukeen indarrez ere, eta behar lukeen indarrez osasunari loturiko baloreak, eta, balore horiek berez lotuak daude kirol jarduera mota honi.

Kirol jarduera mota hau ere, hein handian, *boluntarioen menpe dago*, eta, horrek larriagotzen du prestakuntzarik ezaren arazoa. Izan ere, askotan ez dute behar diren eza-gutzarik, teknikoak nahiz osasun arlokoak, eta hori *arriskutsua da kirolarientzat*.



Iturria: "Bezeroen gogobetetze maila Gipuzkoako kiroldegien zerbitzuarekin" T. Zubimendi




Prestakuntza teknikoa edo profesionala ez daude indar osoz garatuak. Hortaz, hori izan daiteke kirol jar-duera mota honetako langileen prestakuntza beharrak betetzeko modua.





## ERRENDIMENDUKO KIROLA

# 4.3





## 4.3.1. Errendimenduko Kirolaren kontzeptua

Errendimenduko Kirola da, kirolariak lehiatzeagatik eta kirol emaitza onak lortzeagatik egiten duen huraxe. Kirolariak jarduera horren bidez bere kirol beharrak asetzeko aukera ikusten du lehia eta emaitzak gainditzea funtsezko helburu diren giroetan edo/eta kirolariak ikusten du huraxe egin beharreko bidea dela kirol mailarik gorenera iritsiko bada (goi errendimendua).

Kirol jarduera mota hau *lehiaketa arautuari* loturik dago. Lehiaketa horren emaitzak eta hartan parte hartzea edota espezializazioa dira kirolaria kirol mota hartan aritzera bultzatzen duten gakoak. Beraz, eskuartze erregularra behar da, lehiaketak dakartzan konpromisoei aurre egin ahal izateko.

Errendimenduko Kirol *klubetan* euskarritua dago, gaur egun. Klubak, aldi berean, beren *federazioetan* elkartzen dira. Klubak eta federazioak, beraz, kirol jarduera honen oinarriak dira. Dena dela, gaur egun, haietarik askok arazoak dituzte. Arazo horiek konpondu beharko dituzte, klub eta federazioek barnean daukaten indar osoa ahalik eta gehien baliatuko badute, eta, txostenaren hurrengo atalean ikusi ditugun zenbakiak kontuan hartuta, indar hori aintzat hartzeko modukoa da.

- Klub eta federazioek gogoeta egin beharko lukete kirol gizartean edo Kirolaren Euskal Sistematan duten egiazko izaeraz edo egitekoaz. Kirol jarduera mota honi (errendimendua) neurritz gora loturik egoteak ez die aukerarik eman Euskadiko herritar talde zabalak dituen beharretara moldatzeko eta, ondorioz, herritar horiek beste kirol jarduera batzuetara jotzen du (partaidetzara, esate baterako). Beste bezero mota batek klub eta federazioek dituzten giza baliabideak eta baliabide teknikoak aprobeztatzea kontuan hartzeko moduko alderdi nabarmena litzateke era horretako antolamenduentzat.
- Iritzi orokorrak dio neurritz gora dagoela boluntarioen menpe, eta boluntarioek ez dutela behar bezalako prestakuntzarik eta inplikaziorik, baliabiderik ez dagoelako edo zaletasun eza dela medio. Horrenbestez, sistemak egituratu beharko liriateke boluntarioak beren eginkizunetan prestatzen lagundu eta motibatuzko, jarduera alde batera utz ez dezaten.
- Diru baliabideak dirulaguntzen menpe daude neurritz gora, bazkide kopurua murrizten ari da eta kirol ekitaldietara joaten den ikusle kopurua ere bai. Horrela, klub eta federazioak badute beren bazkideei balio erantsiko zerbitzuak eskaintzeko aukera, autofinantzaketa mailak goratu ahal izateko.
- Era berean, iritzi orokorrak dio kirolariak alde batera uzten ari direla kirol jarduera hau, ez direlako bateragarri eguneroko bizitzan hartzen ari diren erantzukizunak eta klub eta federazioek ezartzen dizkieten betebeharrak (prestaketa orduak, entrenamendu orduak, lehiaketa orduak, e.a.). Halaber, kirolean aritzen den jendea bestelako kirol jarduera eskatzen ari da gero eta gehiago: banakakotasunari lehentasuna emango diona, naturarekiko harremana, konpromiso txikiagoa, ez horren nekagarria, sufrimendurik ez dakarrena, eta, azken buruan, kirola egitea egungo bizi maila eta moduekin bat eginik, hau da, Partaidetzako Kirola.

### 4.3.2. Errendimenduko kirolari kopurua eta izan dezakeen bilakaera

Klubak eta federazioen Lizentziak. Estadistikak (2001)				
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Klub kopurua*	1.120	1.647	1.136	<b>3.903 *</b>
Federazioen lizentzia kopurua	30.514	80.153	67.007	<b>177.674</b>
Lizentzia kopurua Klubez klub	27,24	48,66	59	<b>45,52</b>


\* Egia esan, 3123 Klub eta 780 elkarte dira

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza

Eusko Jaurlaritzak emaniko datuen arabera, gaur egun, denetara 177.674 federazio-lizentzia daude Euskadin eta, guztira, badira 3.903 klub eta kirol elkarte. Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren estatistika horien arabera, bana beste, *45,52 pertsona dira kirol klub bakoitzeko EAEn.*

Kontuan hartuta, gainera, Euskadiko 6 urtetik gorako biztanleak, kalkulatzen da klub bakoitzaren "batezbesteko merkatu potentziala" *510 herritar direla*. Azkenik, Eustatek 1999an Bizitza ohiturez egini Inkestaren arabera, euskal herritarren %50k kirola egiten du (maila, maiztasun eta kirol guztietan), eta hori kontuan hartuta, gaur egun, *klub bakoitzak gehienez 255 kirolari izan ditzake.*

*Egoera hori larriagotzen da kontuan hartuz gero biztanleriak datozen urteetan izango duen bilakaera, hurrengo orrialdeko azterketan ageri den bezala.*



\* Tarteko eszenarioa

Iturria: Eustat

15 eta 19 urte arteko kirolari gazteen bilakaera azterturik (adin tarte horretan daude derrigorrezko eskolatzearen ondotik, kirolari gisa finkatzen direnak), ikusten da aipatu taldea %32 murriztu dela 1981etik hona, eta, kalkuluaren arabera, 2050rako beste %46 murriztuko da, hau da, 15 eta 19 urte artekoak 69.500 izango dira (biztanleria osoaren %3,75).

Horrez gain, kontuan ere hartu behar da *biztanleria zahartzen ari dela*. Hasieran, behintzat, badirudi datozen urteotako murrizketa apalagoa izango dela aurreko urteetako baino, baina kontuan hartzean biztanleria osoaren murrizketa aurreko urteetako baino apalagoa izango dela dioen estimazioa (%3,8 2002 eta 2050 bitartean. Aldiz, %10 izan zen 1981 eta 2002 artean), *murrizketa are kezka garriagoa da*. Adibide gisa aipatuko dugu 1981ean, 15 eta 19 urte artekoak biztanleria osoaren ia %9 zirela. Baina 2050ean, %3,75 baizik ez dira izango.

### 4.3.3. Eragile partehartzaileak eta garrantzi ekonomikoa


	Eusko Jaurlaritza	Foru Aldundiak	Adalak	Kirol federazioak	Klubak eta kirol enpresak	Kirolariak	Besterik (enpresa pribatuak)
Erantzukizunak, legearen arabera	-Euskal Kirol Federazioak onetsi, eta, horrekin batera, haien laguntza, finantzaketa, eskuartzea eta kontrola ere onetsi, beren funtzio publikoen betekizuna bermatzeko, kalte egin gabe beren ekimen pribatuari -Kirol ekitaldiak arautzea -Dopigna prebenitu, kontrolatu eta zigortzeko araudia	Lurralde Kirol Federazioak onetsi hala nola haien laguntza, finantzaketa, eskuartzea eta kontrola ere onetsi, beren funtzio publikoen betekizuna bermatzeko, kalle egin gabe beren ekimen pribatuari Laguntza tekniko, herrialdean dagoen dirulaguntza klubei eta kirol elkarteei, dirulaguntzak eman eta kontrolatu		Lurraldeetako lehiaketa ofizialak kalifikatu, ordenatu eta baimendu (lurralde federazioak edo erkidegokoak (euskal federazioak) Euskal Fed: Euskadiko kirol federatuaren ordezkari bakarra estatuan/hazioartean Federazioen lizentziak eman eta tratatzea Kiroleko indarkeria prebenitu, kontrolatu eta zehatzea Dopigna prebenitu, kontrolatu eta zehatzea			
Errendimenduko kirola. Finantzaketa (portzentaia)	%30	%3,2		%5,3	%49	%38,7	%0,8
Dirulaguntza publikoaren banaketa	%48	%52					

*Iturriak: 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena, Kirol jardueren eragin ekonomikoa Euskadin, 2001*

Errendimenduko Kirola garatzea Euskadiko eta lurraldeetako kirol federazioen esku utzita dagoen funtzio publikoa da. Hala ere, Erakunde Publikoei dagokie Errendimenduko Kirola onetsi, lagundu, finantzatu eta berrikustea (bakoitza bere mailan). Halaber, Foru Aldundiek badute beren lurralde historikoe-tako klubei eta gainerako kirol elkarteei teknikoki laguntzeko agindua.

Erakunde Publikoek, errendimenduko kirolean 2001ean, guztira egindako gastuaren %6,2 finantzatu zuten: 146.112.021 . Hala ere, gastu horren zatirik handiena kirol klub eta enpresek finantzatu zuten, kuota, abonua eta ekarpen pribatuak erabilita (%49). Azpimarratu behar da, azken zenbaki horrek, kirolariak berek egiten duten gastuari erantsita (%38,7) ez duela ezer ikustekorik federazioek berek egindako finantzazio mailarekin, hau askoz ere murriztagoa baita, hots, %5,3.

#### 4.3.4. Euskal Federazioak finantziatzea\*: Finantzazio Iturriak



Iturria Kirol jardueren eragin ekonomikoa Euskadin, 2002

Euskal Federazioei dirulaguntza ematen dien erakunde nagusia Eusko Jaurlaritza da. Alde horretatik, Jaurlaritzaren dirulaguntzak dira Euskal Federazioek jasotako sarrera gordinen %49.

Beste Erakunde batzuek, esaterako, Nazioarteko Federazioek, Espainiako Federazioek, eta abarrek, Euskal Federazioek jasotako sarrera gordinen %9 ematen dute.

Ondorioz, esan daiteke, bana beste, **Euskal Federazioek beren sarrera gordinen %42 sortzen dutela.**

Azpimarratu behar da gutxi gorabehera *federazioen %28ren* aurrekontua –kirolari federatuen %30 biltzen dutenak– *gutxienez %75ean datorrela Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzetatik.*

Bestaldetik, Federazioen %66ren (euskal federazioen aurrekontu osoaren %51) aurrekontuaren erdia baino gehiago, *Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua da.*

Azkenik, auresan daitekeen bezala, lizentzia gehien dituzten federazioak dira sarrera propio handiagoak sortzeko gauza direnak. Batez ere, futbola eta mendi federazioan gertatzen da. Izan ere, bien artean, *federazioen sarrera gordin guztien %25,6, eta lizentzien %27 dute eta Eusko Jaurlaritzak emaniko dirulaguntza beren sarreraren erdia baino apalagoa da.*

#### 4.3.5. Federazioak finantzatzea: finantzazio publikoa jasotzeko irizpideak

Lehenik eta behin, aipatu behar da euskal eta lurralde federazioei dirulaguntzak ematen dizkieten lau administrazioek (Eusko Jaurlaritza, Arabako F.A., Bizkaiko F.A. eta Gipuzkoako F.A.) ez dutela beren federazioak finantzatzeko molde bateraturik.

Oro har, nabarmendu behar da federazioei emaniko dirulaguntza ildoak iraganeko irizpideetan oinarritzen direla, hainbat urtetarako etorkizun proiektuen arabera egin beharrean. Horrek aukera emango luke erakunde publikoen eta kirol federazioen helburuak parekatzeko eta, horrela, baliabide publikoak eraginkorrago erabili.

\* Ez dira atal honetan Lurralde Federazioak sartzen, eta federazio horiek, bana beste, administrazio publikoetatik *dirulaguntza zuzenen* %38 jasotzen dute. Gainerako %26an barne dago federazioek berek sarrerak sortzen duten gaitasuna eta, baita bestelako dirulaguntza publikoak ere, bakoitzaren Euskal federaziotik iristen zaiena. Kopuru handia da, baina ezin izan da kalkulatu.

Oro har, lau administrazioek *irizpide batzuk erabiltzen dituzte dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko*. Hala ere, ezberdinak dira aipatu irizpideei emaniko garrantzia, hala nola dirulaguntza publikoa egituratzen dituzten ildoak:

- **Gipuzkoako Foru Aldundiak** baditu *hainbat dirulaguntza ildo*, federazioen jarduera guztiak barne hartzen dituztenak kirol jarduera bakoitzean. Horien artean errendimendua dago (ohiko jarduera, aparteko ekitaldiak antolatzea, epaileak, teknikariak eta jokozainak prestatzea, promesak hobetzeko planak eta teknifikazio planak, lehiaketara joan-etorriak eta materiala. Dirulaguntza ildo bakoitzean bideratua dago gai edo esparru zehatz batera. Beraz, dirulaguntza mota bakoitzaren irizpideak bereziak eta ezberdinak dira.
- **Arabako Foru Aldundiari** dagokionez, azpimarratuko dugu hiru dirulaguntza bide dituela: gutxienezko dirulaguntza, kirol federatua laguntzeko dirulaguntza osagarria, eta sustapen planentzako laguntza. Gutxienezko hori federazio guztiei maila berean ematen zaie; osagarria, lizentzia kopuruaren arabera, eta, sustapen planentzako laguntza, aldiz, ematen da, harturiko eragile kopuruaren arabera (epaileak, teknikariak, e.a.), eta, era berean, *etorkizunari begira egiten diren programak eta neurriak*, Arabako kirol federatua indartzeko.
- **Bizkaiko Foru Aldundiari** eta Eusko Jaurlaritzari dagokionez, ez dute dirulaguntza ildo ezberdinik, baizik eta irizpide bateratuak eta orokorrak ezartzen dituzte. Gainera, bi erakundeek irizpide gisa erabil-tzen dute ea federazioari *zenbateko dirulaguntza eman zaion aurreko urteetan*, urtealdi berrian eman beharreko laguntza publikoa zehazteko. (Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzaren %75 ematen du aurreko urtean emaniko dirutzaren arabera. Hori horrela egiten du, hein batean aurrekontuen luzapenak eraginik).

Azkenik, nabarmendu behar da, azterturiko Erakunde Publiko guztiek eskatzen dutela aurreko denboraldi-ko memoriak, estatistikak eta eginiko programak. Informazio hori, zenbaitetan, erabiltzen da prozedura burokratiko hutsez edota ikusteko ea helburuak bete ote diren. Beste batzuetan, izan daitezkeen diru desbideraketak aztertu, eta, hala bada, “neurri zuzentzaileak” sartzeko, dirulaguntza berritzailekoan.

### 4.3.6. Medikuntza Errendimenduko Kirolean

*Kirol Medikuntza Erakundeetan*

- Kirol Medikuntza bi erakunde publikoren organigraman baizik ez da ageri modu berezian; Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia.
- Osasun Saileko eta Osakidetzako egituretan ez dago Kirol Medikuntza espezialitaterik.
- Kirolari loturiko osasunarekin zerikusia duen beste kasuetan, enpresa edo profesional liberalekin hitzartutako zerbitzuak dira, baina, orokorrean, ez da kontuan hartzen haien partaide-tza organikoa.

Oro har, osasun arloko profesionalek ez dute behar bezalako lekua EAEko kirolean *era instituzionalean*, eta, lekua duten kasu gutxi horietan ez dago koordinaketarik.

*Osasun laguntzari doakionean, kirol jarduera honetako prebentzioa nahiz sendaketa estalia dago*, baina maiz hutsuneak edo eragozpenak ageri dira:

- *Ez dago behar adina zentro publiko edo hitzarturik udalerrietan.* Horrek eraginik, kirolariek joan-etorrian ibili behar dute gaitasun ziurtagiria lortuko badute, eta ziurtagiri hori nahitaezkoa da hainbat federazioetan. Gainera, ukituriko adinak ikusita, joan-etorriak egiteko, maiz, arduradunekin edo familiakoekin egin behar dira, eta, ondorioz, aldaketak gertatzen dira lan eta eskola orduetan.
- *Ez dago federazioen arteko kudeaketa bateraturik, aseguruen baldintzak negoziatzerakoan.* Horrek hiru eragozpen ekarri ditu: bat, kontratu egilearen ahuldadea negozio-bolumenari dagokionez; beste bat, estaldurak osotara ezberdinak dira elkarren artean, eta, azkenik, lesio-naturiko kirolari federatuari laguntzeko inplikaturik dauden erakundeen egoera nahasia eta sakabanatua.
- Errendimenduko Kirolak dakartzan ahalegin izugarriek, askotan, *gainkarga-lesioak* eragin dituzte, eta, hori ez da “istripuaren” ohiko definizioan sartzen. Osasun galera da, baina *espresuki kanpo utzia dago* federazioek hitzarturiko aseguru-poliza askoren artikuluetan. Horrek babesik gabe utzi ditu erabat kirolari promesak eta errendimendukoak.

*Dopinga EAEn: zenbait gogoeta\**

- Dopatzearen prebentzio eta kontrolari dagokionez, azpimarratu behar da, gaur egun, *ez dagoela erakunde eta bitarteko antolaturik EAEn, espresuki dopingaren prebenitzea lantzeko.*
- Beste alde batetik, kontrolak egiteko erabakia nazioarteko edo estatuko federazioek hartzen dute, lehiaketaren maila zein den ikusita. Horrez gain, lurralde edo autonomia mailako federazioek kontrol gehigarriak ere eska ditzakete estatuko federazioetan, bakoitzak berean, eta, ohikoa izaten da federazio bakoitzak antolatutako lehiaketetan kontrola egitea.
- Erantsi behar da Euskadiko Kirolaren Legeak ahalmena ematen diela autonomia edo lurralde mailako federazioei dopingaren kontrako kontrolak egiteko haien eskumeneko probetan (14/1998 Legea, Euskadiko Legearena. 25. eta 86. Art.). Dena dela, oraindik garatu gabe dago dagozkion artikuluen araudia.
- Dopingaren kontrako kontrolak egiten diren estatu mailako lehiaketetan, laginak hartzeaz *Gobernu Zentralaren Kirolaren Kontseilu Nagusiko* sendagileak arduratzen dira, eta, kirol epaileak, aldiz, administrazio kontuez arduratzen dira. Hemen eginiko naizoarteko lehiaketetan, kontrolak antola daitezke aipatu Kirolaren Kontseilu Nagusiaren baimenik gabe.
  - Orokorrean, Kirol Medikuntzako mediku espezialistak dira edota alor horretatik hurbil dabiltzanak, eta, maiz, profesional liberal moduan ari direnak.
  - Egoera horrek mugaraino eramaten du medikuaren etikan jarri beharreko konfiantza, eta, zalan-tzak eragiten ditu eginiko kontrolen inpartzialtasunaz eta objektibotasunaz, agerian baitago aldi berean “juez eta parte” izatearena.
- Proba edo liga bakoitzaren arduradunaren lerruna ikusita eta, kontuan hartuta lehiaketa hori autonomia, estatu ala nazioarteko mailakoa den, laginak Kirolaren Kontseilu Nagusiaren laborategira eramaten dira, Bartzelonara edo Madrila.

\* Atal hau ere kiroleko goi errendimenduari dagokio.



- Dopingari buruz, jendeak dio baietz badagoela, baina kirolaren arabera. Baina susmoak, baita frogarik gabe ere, indar handiagoz bideratzen dira ditu interes handiak dituzten kiroletara, profesionalizazio kontuengatik edo dirua jokatzen delako.
- Badira kirolaria dopatu nahi duten familiako eta teknikariak, arrakasta lortzeagatik, eta, instalazio batzuetan bizi dira bai dopingaren aurkako araudiaren murrizketari loturiko kirolariak eta halako loturarik ez dutenak (e.b. Fisiokulturistak). Horregatik, askoz ere gehiago komeni da prebentzioari heltzea (prestakuntza eta kontrola), kirolarien osasuna eta kirolaren etika bermatzeko.

#### 4.3.7. Prestakuntza eta Enplegua Errendimenduko Kirolean


Federazioen egitura teknikoak hutsune nabarmenak ditu. Hori frogatzen du Kirol Zuzendaritzaren azterlanak. Hartan aztertu zen zuzendari teknikoaren egitekoa euskal federazioetan, eta hona hemen ondorioak:

- Euskal federazioen %60k (29) badute zuzendari teknikoa.
- Aipatu zuzendari teknikoen %20k (6) baizik ez du unibertsitateko titulurik eta %65k (19) ikasketak motaren bat edo beste egin du kirol teknikari gisa.
- 29 zuzendari teknikoen lan kontratuari dagokionez, hona hemen:

Aipatu zuzendari teknikoen %79 (23) boluntarioak dira kargu horretan (dietak edo gastuak jasotzen dituzte joan-etorriengatik). %17,5 baizik ez da lan kontratu bidez lanean ari, gehienak lanaldi partzialean.

Gaur egun, ikusten da federazio eta klubetako zuzendari eta administrari askok ez duela behar bezalako prestakuntzarik kudeaketan, plangintza estrategikoan, kalitatean, giza baliabideetan, eta abar. Horrek eraginin, era horretako antolamenduek zaila dute bestelako baliabideak sortuko lituzketen balio erantsiko zerbitzuak ematea. Federazioek garai berrietara moldatu eta baliabideak sortu beharko dituzte: kirolarien prestakuntza kobratu, txapelketak erakargarriagoak egin, instalazioak kudeatu (Katalunian, bela, mahai-tenis, tenis, esgrima eta euskal pilota federazioek instalazioak kudeatzen dituzte), eta, are gehiago, beren jarduketa esparrua ere zabaltzea beharko dute, Errendimenduko Kirolaz harantzago joanez.

#### 4.3.8. Kirolari laguntzeko Fundazioak: Bizkaia-Bizkaialde eta Kirolgi




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza

Gaur egun, EAEn bi Fundazio dira kirolari laguntzeko, biek lurralde banari lotuak daudenak. Bizkaian, Bizkaia-Bizkaialde Fundazioa ari da eta, Gipuzkoan, aldiz, Kirolgi Fundazioa. Biek dirulaguntza hartzen dute, partez, beren Foru Aldundietatik.


Oro har, esan daiteke:

- Era horretako fundazioak bi lurralde historikotan daudela.

- Bizkaia eta Gipuzkoako fundazioak diru pribatuaren bide finantzatzen dira.
- Kirolgik kirolariei beka ematen dizkie. Ez, ordea, besteak. Ez soilik promesei, baita goi errendimenduko kirolariei, nahiz-eta bakoitzaren federazioak bekatu egon.



Iturriak: Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzza (Kirol jardueren eragina EAEko ekonomian, 2001)



Iturriak: Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzza (Kirol jardueren eragina EAEko ekonomian, 2001)

## GOI ERRENDIMENDUKO KIROLA

# 4.4





# goi errendimenduko kirola

## 4.4.1. Goi Errendimenduko Kirolaren Kontzeptua

Goi errendimenduko kirola da, kirolariak bere espezialitateko lehia mailarik handienak iritsi nahi dituen huraxe da, eta, kasu gehienetan, gizartearentzako kirol arloko eredu bihurtzen da.

Kirol jarduera mota honetan, kirol ikuskizunarekin batera (klub eta kirolari profesionalak eta nazioarte-ko lehiaketak) bada era horretako erakargarritasunik ez duen kirol jarduerarik, baina kirolean emaitza eta maila bikainak lortzen ditu eta herrialde barnean nahiz kanpoan aintzat hartuak dira.

Garatu beharreko jarduketak talde bakoitzaren behar berezietara moldatu behar dira, noski:

- Kirolari profesionalak, hau da, kiroletik bere lan sarrera nagusiak jasotzen dituzten pertsonak.
- Maila altuko kirolariak, beren sarreren maila hau edo bestea izan arren, beren kirol espezialitatean emaitza maila altuak lortzen dituzten pertsonak.

## 4.4.2. Goi errendimenduko kirolari kopurua (profesionalak eta ez profesionalak) eta bilakaera

Kirolari profesional eta Goi Mailakoak*		
Federazioa	Profesionalak	Goi Maila*
Euskal Pilota	147	–
Futbola	120	–
Saskibaloia	71	–
Eskubaloia	40	2
	40	6
Mendia	5	9
Errugbia	–	10
Boxeo	8	–
Irristaketa	–	6
Xakea	6	–
Neguko kirolak	5	1
Triatloia eta beste	4	1
Piraguismoa	–	4
Automobilismoa	4	–
Gimnasia	–	3
Beisbola eta Softbola	–	3
Bela	1	2
Surf	1	2
Atletismoa	–	3
Taekwondo	–	2
	–	1
Judo eta beste	–	1
	–	1
Golf	1	–
Ehiza	–	1
<b>Guztira</b>	<b>453</b>	<b>58</b>

Kirolari Olinpikoak (Sydney 2000)				
Herrialdea	Erakundea	Biztanleria	Kirolariak Sydney 2000	Kirolariak bizila. mill. bakoit.
Zeelanda Berria	New Zealand Academy of Sport	3.650.000	147	40,27
Australia	Australian Institute of Sport	18.500.000	617	33,35
Danimarka	Team Danmark	5.200.000	97	18,65
Irlanda	NCTC	3.650.000	64	17,53
<b>Euskadi</b>	<b>CPT-HTZ</b>	<b>2.065.500</b>	<b>32</b>	<b>15,49</b>
Kanada		30.007.094	294	9,80
Espainia		40.850.000	321	7,86
Italia	CONI	57.000.000	361	6,33
Eskozia	Scottish Institute of Sport	5.100.000	28	5,49
Alemania		81.000.000	422	5,21

*Iturria: Lausanakoko Museo Olinpikoa, CPT eta KPMG Consulting*


*Iturria: Euskal Federazioak, Eusko Jaurlaritza eta KPMG Consulting*

\* KPMG Consulting etxeak kirolari horiek aukeratzeko erabili duen irizpidea hauxe da: munduko 16 lehenen artean behin sailkatu izana edota Europako 12 lehenen artean.

Gaur egun, EAEn profesionaltzat jo ditzakegun 453 kirolari daude eta goi mailakotzat har ditzakegun 58 kirolari, emaitzei erreparatuta.


Nabarmendu behar da euskal federazioen ia %55k, gutxienez goi errendimenduko kirolari bat duela (profesionala edo ez profesionala). Dena dela, fitxa profesionalen %92 bost kiroletan metatuak daude (euskal pilota, futbola, saskibaloia, eskubaloia eta txirrindularitza) eta emaitzei erreparatuta goi mailakotzat jotzen ditugun kirolarien %60 5 kirol hauetan ari dira (txirrindularitza, mendia, errugbia, patinajea eta piraguismoa).

Azken Joko Olinpikoetara joan ziren kirolari kopuruari erreparatuta (Sydney 2000), kirolari-biztanleria kopurua kontuan hartuta, Euskadi herrialde hauen gainera dago: Kanada, Espainia, Italia, Eskozia eta Alemania.



Iturria: CPT Eusko Jaurlaritza

2001ko datuak: 17 kirolari




Iturria: CPT Eusko Jaurlaritza

Horrela, kontuan hartuta komunikabideetan eta gizartean eragina duten kirolen selekzio nazionaletan aritu diren euskal kirolarien kopurua, ikusten da euskal kirolari gutxiago ari dela goi mailako txapelketetan.

Euskal kirolarien bilakaera olinpiadaz olinpiada azterturik, ikusten da, bana beste, partaidetzak behera egin duela %12,5 azken bost ziklo olinpikoetan. Azken lau ziklo olinpikoak azterturik, aipatu murrizketa are nabarmenagoa da (%43).

Azpiratu behar da azken sei urteotako joera beharrezkoa izan dela oso nabarmen. Hau da, Espainiako Selektzioarekin nazioarteko lehiaketetan aritu diren kirolariak gutxiago izan dira, %57,5 gutxiago, zehazki (funtsean, futbolean %46, arrauketan %38, piraguismoan %31, atletismoan %23 eta esku-baloian %23 gertatu diren murrizketengatik).



Iturria: Klub ezberdinetako web orrietatik


2001. Datuak: 17 kirolari

Azken 13 urte edo kirol denboraldietan, gehienez ere urte bakoitzean lau euskal talde aritu dira nazioarteko txapelketetan. Nolanahi ere, euskal kirolak, aipatu denboraldian, beti izan du ordezkariak era horretako lehiaketetan.

Aztertutako kirol bakoitzak bere ibilbidea izan du:

- Saskibaloia ibilbide ikusgarria aipatu behar da, 92/93 denboraldiaz geroztik, urtero aritu baita nazioarteko lehiaketetan.
- Txirrindularitzari dagokionez, nabarmendu behar da euskal ordezkariak sartu berri dela lehen mailako nazioarteko lehiaketetan. Beraz, kirol honek urrats nabarmena egin du.
- Eskubaloia ibilbidearen arabera, atzerapen nabarmena gertatu da 94 eta 99 urteen artean, Bidasoa taldearen jaitsierarengatik. Dena dela, kirol honek partaidetza handiagoa izan du nazioartean Bera Bera taldearen jarduerari esker, 99/00 denboralditik hona urtero Europar aritu delako.
- Azkenik, futbolean, ez dago ez igoera ez jaitsiera nabarmenik. Tarteka izan du lekua nazioarteko lehiaketaren batean eta tarteka ez.

### 4.4.3. Eragin handiko ekitaldiak kirolean eta ekonomian



\* Ageri denez, kontuan hartu dira soilik Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak diruz lagundutako ekitaldiak. Hala ere, ekitaldien tankeran berean badira baldintzak (osasuna, turismoari eta besteri dagozkienak) Administrazioiko beste Sail edo atal batzuen laguntza jaso ahal izateko, ekitaldien tankerari lotuagoak daudenak (Turismoa, Industria, Osasuna, Aldundiak, Udalak,...)

*Iturria: Kirol jardueren eragina EAEko ekonomian 2001, UCI, CPT, Nazzioarteko Atletismo Federazioa, Euskal Federazioak*

Grafikoa aztertuz, ikusten da 2001ean, Eusko Jaurlaritzak 43 ekitaldi diruz lagundu zituela, komunikabideetan eta kirolean eragin handia dutenen artean, eta, horietatik, aipatu behar da bost kirolek aipatu ekitaldi horien guztien %80 metatu zituztela. Halaber, azpimarratu behar da bost kirol horien artean, txiurrindularitza eta atletismoa nabarmentzen direla, bien artean diruz lagundutako ekitaldi guztien %60 metatzen baitute.

Kirol bakoitzeko kirolari profesionalak eta goi errendimenduko kirolariak diruz lagundutako ekitaldiekin alderatuz gero, ikusten da txiurrindularitzan izan ezik, Euskadiko profesional asko biltzen dituen kirola baita (40), aipatutako gainerako ekitaldiak dagozkio EAEn profesional edo goi errendimenduko kirolari kopuru handirik ez duten kirolei. Gainera, kirolari gehiagoko beste kirol batzuek ez dute Euskadin Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ekitalditik (euskal pilota, futbola, saskibaloia, eskubaloia, mendia, errugbia...).

Diruz lagundutako ekitaldi gehien dituzten kirolei dagokienez, ikusten da txiurrindularitza eta atletismoa maila guztietan badirela Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ekitaldiak, eta, goiko kategoriak dira diruz lagundutako ekitaldi gehien dituztenak. Igeriketa eta arrauketa dagokienez, esan behar da goiko kategorian baizik ez dagoela diruz lagundutako ekitaldirik. Horregatik, laburbiltzeko, esango dugu, batez ere goiko kategorietako ekitaldiak diruz laguntzeko joera dagoela.



Azkenik, laburbiltzeko, esango dugu EAEn goi mailako lehiaketa nabarmen ugari egiten direla. Dena dela, arrazionalizatu beharko lirateke optimizazio irizpideetan oinarriturik ez dauden ekitaldi batzuen egutegia eta administrazioarekiko mendetasuna.

#### 4.4.4. Eragile partehartzaileak eta garrantzi ekonomikoa

	Eusko Jaurlaritzza	Foru Aldundiak	Udalak	Kirol federazioak	Klub eta kirol enpresak	Euskal herritarrak	Besteril (enpresa pribatuak)
Erantzukizunak, legearen arabera	Goi Mailako kirola ordenatu eta sustatzea Dopingaren prebentzioa, kontrola eta zigortzea arautzea Kirol ekitaldiak arautzea Euskal Herriko kirolak sustatzea Goi mailako zentroak sortu eta haien funtzionamendua bulzatzea Teknifikazio programak eta entrenamendurako plan bereziak baimentzea (Goi mailako kirol zentroak)	Promesei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea		Goi mailako kirolaren ordenazioa eta sustapenari laguntzea Administrazio Publikoaren kirol programen garapenean parte hartu/laguntzea; goi mailako eta eskolako programetan, batez ere Euskal kirola estatuko nahiz nazioarteko lehiaketetan ordezkatzeta Euskal Herriko kirolak indartzea Dopinga prebenitu, kontrolatu eta zigortzea Teknifikazio programen eta entrenamendurako plan berezien prestaketan laguntzea (Goi mailako kirol zentroak)	Teknifikazio programak eta entrenamendurako plan bereziak prestatzea (Goi mailako kirol zentroak)		
Goi errendimendua. Finantzaketa (portzentaia)	%0,17	%0,48			%75	%23,89	%0,46
Dirulaguntza publikoaren banaketa	%26	%74					

*Iturriak: 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena, Kirol jardueren eragin ekonomikoa Euskadin, 2001*

Legearen arabera, *Eusko Jaurlaritzari* dagokio Goi Errendimenduko kirola antolatu eta sustatzea eta kirol federazioek ere parte hartu behar dute. Beste alde batetik, legeak dio Foru Aldundien jarduketa mugatua dagoela promesei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematera.

Dena dela, bi erakundeek Goi Errendimenduko kirolari eginiko ekarpena ikusita, *Aldundiek laguntza publikoen ia hiru laurdenak* ematen dituzte, zehazki %74, kirol jarduera honek jasotzen dituen laguntza guztien artean, eta, 2001ean, guztira, 1.312.298 izan ziren.

Eragile kopurua kontuan hartuta, azpimarratu beharra dago *kirol klubek (profesionalek, bereziki) eta enpresek baliabideen %75 sortzen dutela. Erakunde Publikoek, bestalde, guztiaren %0,65 ematen dute.*

Nabarmendu behar da aipatu laguntza publikoen %68 lau kirol hauentzat izan zirela: txirrindularitza, atletismoa, hockeya eta hipika.

Kirol jarduera mota honetan eginiko gastu osoa 201.075.227 izan zen, 2001ean, hau da, EAEn kirol jardueretan *guztira eginiko gastu zuzenaren %23,5*. Azpimarratu behar da futbolak egiten duela goi errendimenduko kirolaren gastu osoaren %79 inguru.

#### 4.4.5. Goi Errendimenduko Kirolaren egungo eta etorkizuneko egoeran eragiten duten faktore nagusiak

##### Ahuldadeak

- *Demografiari begira*: Biztanleria urria. Jaiotze tasa txikia Goi Errendimenduari gutxienez 20 urte barru arte eragingo diona. Kirol lizentzia gutxi emakumezkoen artean (kirola uzten dute ez dutelako bizigarrikeria ez ekonomian, ez gizartean).
- *Bitartekoak/ Baliabideak*: Ez dago behar adina azpiegitura eta ekipamendurik (publikoak). Ez dago orekatua baliabideetarako sarbidea mundu profesionala eta amateurraren artean. Diskriminaziorik ez dago baliabideen erabilpenean. Medikuzko aseguruak ez dute sendotasunik (*Ikus Errendimenduko Kirolari buruzko azterketa*).
- *Prestakuntza eta Enplegua*: Entrenatzaile eta federazioetako arduradun teknikarien prestakuntza eskasa eta lan baldintza eskasak. Federazioetako zuzendaritza teknikoak ez daude prestatuak Goi Errendimendutik datorren informazioa erabiltzeko. (*Ikus Errendimenduko Kirolari buruzko azterketa*).
- *Ikerketa/Eguno egoera ezagutzea*: azterketarik ez dago Euskadiko Goi Errendimenduan izan daitekeen atzerapenaren aurrean. Ikerketarik ez.
- *Nazioartean aritzea*: Euskadiko selekzioak nazioartean lehiatzeko dituen mugak, nazioarteko epaile eta jokozainak (*Ikus 4.4.6 atala: Euskal Selekzioen Eguno Egoera*).
- *Erakundeen arteko lankidetzak / Erakunde eta beste eragileen arteko lankidetzak*: EAEko administrazio egitura korapilatsuak koordinaketa zailtzen du. Beste eragileekiko koordinaketarik ezak eragina izan dezake kirolariaren prestaketa atletikoaren "continuum"-ari begira.

##### Alderdi sendoak

- *Euskadin Goi Errendimenduko kirolarien portzentaia handia da* biztanleriaren tamaina ikusita. Zehazki, Goi Mailako kirolari emakumezko asko dago: Sydneyen euskal ordezkariaren %38 emakumezkoa zen (Estatua: %32).
- EAEko kirolariak nabarmentzen diren kirolen *eragina gizartean*, eta *jendeak aintzat hartzen ditu* Goi Mailako kirolariak: Mendia eta Txirrindularitza federazioek fitxa asko dituzte (21.438 eta 8.000, hurrenez hurren), hein batean Goi Errendimenduko kirolaren irudiak kirol jarduera handia eragiten duelako.
- *Federazioek indarrak biltzen dituzte* Errendimenduko eta Goi Errendimenduko kirolean.
- *EAEko ezaugarri geografikoak*, aukera ematen baitute hainbat kirol egiteko.
- *Euskal emakume kirolarien potentzial handia* (Sydneyen EAEko kirolarien %38 emakumeak izan ziren. Aldiz, espainiarren %33 eta italiarren %32).
- *Goi Mailako kirol ekitaldiak antolatzeko* dagoen esperientzia: Europako txapelketak, mundukoak (*Ikus, 4.4.3: Kirolean eta ekonomian eragin handia duten ekitaldiak*).
- *Boluntarioen garrantzia*.

##### Mehatxuak

- *Aldaketak bizimoduetan, Errendimenduko/Goi Errendimenduko kirolari eta bere inguruneari kaltegarri zaiona, joera baita jarduera ludikoagoa eta ez horren sufrimendu handia.*
- *Kirol jarduera olinpikoaren unibertsalizazioa, eta horrek are zailago egiten du munduko goi maila iristea diziplina horietan. Moskuko 1976ko olinpiadetan: 80 ordezkari/5.175 kirolari eta Sydneyen 2000an: 200 ordezkari/10.651 kirolari. Seulen, 1988an, estatuko ordezkariak 26. Postua eskuratu zuen eta 4 domina. Sydneyen, aldiz, estatuko ordezkariak 11 domina lortu baina 25. postua geratu zen.*
- *Ez dago kirolarientzat Goi Errendimenduaren betebeharrekin bat datorren prestakuntza profesional edo akademikorik.*
- *Baliabideak metatzeko joera, audientzien arabera (futbolak, EAEko Goi Errendimenduan eginiko gastu osoaren %79 ematen du).*
- *Esperientzia txikia Goi Errendimenduko kirolarentzako teknifikazio proiektuetan.*
- *“Fair play” kontzeptuak indarra galdu izana: balore galera dopignarengatik (Ikus Errendimenduko kirolaren azterketa) eta kirol jarduerak berak sortutako lesioak.*
- *Gorputz heziketa lantzeko dauden eskola orduak gutxi dira derrigorrezko irakaskuntzan (Ikus Eskola-Kirolaren azterketa).*

##### Aukerak

- *Euskadiko klub/selekzioen ezagutza eta ikerketa: Baliabideak ahalik eta hobekien honela erabiltzea, hots, euskal klub eta selekzioen aurkikuntzak eta know how zehertasunez baliatzea Goi Errendimenduan eta federazioek ere modu aktiboan parte hartu behar dute. Klub handien interesa baliatzea teknifikazio kontuetan.*
- *Administrazio Publikoen barnean, “continuum” bat koordinaziopean prestatzen laguntzea Goi Errendimenduko kirolariaren eboluzio faseen sostengurako, behar baino azkarragoko garapena eta kirol Errendimenduaren bilaketa eragotziz kirolariak bere gorpuzkera eraiki behar duen faseetan. Informazioa zehertasunez erabiltzea, eta horretarako Errendimendua lantzeko zentroen garapen dimentsionatua eta iherarkizatua behar da.*
- *Klubak eta federazioak teknifikatzeko prozesuak hastea. Administrazioetik zuzendutako prozesuen garapena azkartzea.*
- *Euskal Herriko kirolen identifikazio tekniko eta biomedikoen prozesuak garatzea, kirol profesionalaren eta erakustaldiko kirolaren esparruak zehazteari begira.*
- *Lan berezia kirolari emakumezkoekin mugaketa genetiko ez diskriminagarriko kiroletan.*
- *Euskadi nazioarteko lehiaketan ordezkatzeko aukerabideak edo eredu berriak garatzea.*
- *Etorkinak. Goi errendimenduko kirolari berriak lortzeko iturria eta gizarterako bidea.*
- *Zuzendariak, epaileak eta jokozainak nazioarteko antolamenduetan.*

#### 4.4.6. Euskal Selektzioen egungo egoera

Kanpoaldeko islapenerako eta nazioarteko errekonozimendurako dauden beste bide batzuk ahaztu gabe, gaur egun, nazioarteko gizarteetan nortasun berezia duen taldea aintzat hartzen da nagusiki nazioarteko kirol federazioen lehiaketa ofizialetan parte hartzearen eskutik, selektzio nazionalen bitartez.

Ikuspuntu juridikotik, nazioarteko kirol federazioak, *izaera pribatuko sozietateak dira, ezarrita dauden estatuaren legeria nazionalari lotuak*. Entitate horiek beren arauak ezartzen dituzte, eta, horien artean, kideak onartzeari dagozkionak. Gehienetan, kide izatea betebeharra da herrialdeko taldea edo selektzioak nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.


Kide izateko sarbideari indarra ematen dioten irizpideak:

- Federazioek kirol jakin bat “herrialde” (country) edo “kirol herrialde” batean zuzentzen dute. Beste batzuetan, “muga argi eta garbiak dituen lurraldea”, edo “kirolean autogobernua ziurtatzen duen herrialde edo lurraldea”.
- Beste batzuetan, federazio bakoitzak “ad hoc” hartutako erabakia da, edota kirol agintari nazionalaren ziurtagiri administratiboa, horixe izaten da kide izateko gakoa.

Laburbiltzeko, azpimarratu behar da *nazioarteko federazio guztiek ez dutela betebeharr gisa ezartzen herrialde burujabearen federazioa izan behar dela*.

- 1999an, *200 Batzorde Olinpiko kide ziren Nazioarteko Batzorde Olinpikoan, baina Nazio Batuek 188 estatu burujabe aintzat hartzen zituzten* (Pierre Thibault, UQAM 2002).
- Beste alde batetik, estaturik gabeko 42 nazio badute gutxienez ordezkaritza bat nazioarteko federazioen batean; *Guztira, udako kirol olinpikoen hogeita zortzi nazioarteko federaziotatik hogeita hiruk elkarte nazional gehiago aintzat hartzen dituzte Nazio Batuetan partaide diren estatu burujabeak baino*.

EAEk ez du Batzorde Olinpikorik eta federazio bat bakarra partaide da dagokion Nazioarteko Federazioan, hots, mendikoa. Beste saialdi batzuk izan dira nazioarteko antolamenduetan sartzeko baina ez da ezer zehaztu. Alde horretatik, euskal pilotari dagokionez, mereziko luke ukazioaren arrazoiak eta eragile publikoek nahiz pribatuek eginiko saialdiaren kudeaketa zehatz-mehatz aztertzea, aurrera begira nola jokatu jakiteko.



Iturria: El concepto de país deportivo. Ignasi Doñate



Beraz, ez da oztoporik arlo juridiko-publikoan nazioarteko Federazioetarako sarbidea galarazteko. Baina, aldi berean, Euskadiko legeak euskal selekzioak aintzat hartzen baditu ere, horrek ez du esan nahi lortu direnik. *Legeak badauka agindu bat aginte publikoek selekzioak lortzera bideratutako lana egin dezaten.*

Afera esparru pribatuan dago, baina federazioetako bulegoek harantzago doa (Legeak, horri begira, hauxe aurreikusten du: *Euskal Kirol Federazioen Batasuna eragile izatea eta federazioen lana sustatzea helburu horri begira.*) eta *EAEko aginte publikoak behartuak daude ekintza positiboa egitera*, euskal federazioei laguntzeko nazioarteko errekonozimendua eskuratzen.

Esparru pribatuari buruz, eta aferaren mamiari dagokionez, *Estatuak presio politiko handiak egiten* ditu, euskal kirol nortasuna nazioartean hezurramitu ez dadin, eta, presio horiei argudio juridikoen estalkia eman nahi zaie (esate baterako, Euskadiko kirolaren legearen aurkako inkonstituzionalitate helegitea).

#### ***Kanpoaldeko islapenerako beste bide batzuk***

*Kirolariek eta kirol erakundeek* indar handia dute kanpoaldeko islapenari begira. Dena dela, denek ezin dute beren euskal nortasuna proiektatu.

Kirolari buruzko nazioarteko ekitaldiak (kirol nahiz zientzia arlokoak), unibertsitate eta eskola mailako kirol topaketak, zaleen bidez ekitaldi handietan egiten den islapena (e.b. Tourra) edota kirol eredu bera, euskal nortasuna kanpoaldean zabaltzeko lanabes eragingarriak dira, baina *ez da hori planifikatu*, eta, gainera, zenbaitetan, beste nortasun batzuk zabaltzeko balio izan dute.

Federazioetatik kanpo ere badira beste esperientzia batzuk kanpoaldean euskal nortasunaren irudia jorratzeko. Esate baterako: Euskarians.



#### 4.4.8. Etika eta Indarkeria

Oro har, esan daiteke, kirol ikuskizunetako ikusleek eragindako indarkeria egoerak gutxiagoak direla gurean beste autonomia erkidegoetan baino eta ez dira horren gogorrak.

Ikuskizun hauetan, bada indarkeriarik ikusleen artean, baina etxeko eta kanpoko zaleen artean gertatzen dira.

Badira estatu mailako lan taldeetatik datozen plangintzak eta konpromisoak. Esate baterako: "Indarkeria ezabatzeko konpromisoa", non eragileek (ez inplikaturik dauden guztiek) hobetzeko proposamenak egiten dituzten. Puntu askori gainera programaren tankera ematen diote.

Jokabide etikoak sustatzearen aldeko politikak daude kirol elkarte profesionalen eskutik (futbolean, zehazki). "Fair play" (UEFA) bezalako kanpainak indarra hartzen ari dira, eta, dagoeneko, European badi-  
ra tokiak baremazio paralelo honetan irabazle gertatzen diren taldeentzat.

*Errendimenduko Kirolean*, epailearen inguruan gertatzen dira indarkeriazko egoerak. Ondorioz, jarduketa zehatzaile gehienak bideratzen dira epailea babestera. Gainerakoan, joko-zelaian gertatzen den indarkeriari doakionez, esan daiteke goi errendimenduko kirolaren jarraimendua dela, baina bere giroan kokatua:

- Zenbaitetan, talka egiten dute ohiko justiziak eta kiroleko erakunde "legegileek".
- Bada indarkeriari aurre egiteko Europako Batzordea, eta erabaki nabarmenak izan dira goi errendimenduko kirolarentzat.

BESTELAKO ZEHAR-ALDERDIAK

4.5







# bestelako zehar-alderdiak

## 4.5.1. Tituludun ofizialen eta ez ofizialen lan merkaturatze mailaren azterketa


Aurreko kapituluetan ikusi dugun moduan, esan daiteke, oro har, Euskadiko kirolgintzako enplegu egoera erabat loturik dago aipatu sektorean dauden prestakuntza koadroei, ofizialei eta ez ofizialei.

Oro har, laburtzeko, esan daiteke Euskadiko kirolgintza oso *korapilatsua* dela prestakuntzaz eta enpleguaz mintzo bagara, hainbat arrazoi direla medio:

- Alde batetik, lan merkaturatze kirol tituludun ofizial eta ez ofizial asko sartu dira, *sektore horren lan arauketa egin gabe dago* eta hori beharrezkoa da, eta horrek eraginik, neurritz gaineko kualifikazioak eta neurritz beheko kualifikazioak gertatu dira.
- Beste batetik, *lan berri asko sortu dira* eta horrek desdoikuntzak eragin ditu eskatutako kualifikazioaren eta prestakuntzaren bidez eskuratzen denaren artean. Horrek eraginik, enplegu zailtasunak sortu ditu, *egungo prestakuntza ez baita egokia egungo beharrak asetzeko*.
- Horri erantsi behar zaio sektorearen *espezializazioa eta profesionalizazioa* eta, horretarako, langile gaituak eta espèzializatuak behar dira.
- Aurreko joeretatik, *argi dago ez dela egokia egungo prestakuntza sistema, ez baititu dauden beharrak asetzen* eta enpleguari buruzko arazoak dakartza sektore honetan. Gai hori Euskadiko Administrazio Publikoetako kezkarik nabarmenetakoa da gaur egun. Beraz, komeniko litzateke lanbidea arautu eta sektore honetako langileen lanbide eskumenak eta lan esparruak argitzea.

Gaur egun eta Euskadiko CAFYDen lizentziatutako elkargoak eginiko azterlanaren arabera, lizentziatuen %85 lanean ari da. Horietatik, *gehienak irakaskuntzan edo prestaketa fisikoan ari dira*. Lanean ari direnen ia %15 eskola-kirolean ari dira, ia beste %15 *olgeta-kiroletan* ari dira (mantenimendua, fitness...) eta %5 *Errendimenduko kiroleko (federatua) teknikariak* dira.

Orokorrean, *ez dago lan merkaturatzeari buruzko aldi behingo jarraitimendurik edo ikerketarik*. Baina somatzen da jakin-mina hasia dela datu horiek eskuratu eta aztertzeko.



Iturria: Lizentziatuen Elkargoa CAFYD, 2002

Tituludun ofizialak/Ez ofizialak: lan baldintzak					
		SHEE	G.H. an espezializatu maisuak	FP	Tituludun ez ofizialak
Lanean ari direnen tasa		%85		%72	
Lanean kirolgintzan			%75	%71	
	Lankontratua	%40,6		%87	
Kontratua	Mugarik gabea	%13		%6	%6,2
	Lanaldi osoa	%21			%12,3

Iturria: Lizentziatuen Elkargoa CAFYD, 2002. Lan merkatua Euskadin. Behatokia

Unibertsitateko tituludunen artean, gehienek betetzen dituzten lanpostuetan ez da inolako titulaziorik eskatzen. Beraz, aipatu postuetan *neurritz gaine*ko kualifikazioa gertatzen da.

*Behin-behinekotasuna* (%87 GHEEn eta %94 LZn) eta *lanaldi partzialak* (%79 GHEEn) eta, askotan, *lan-kontraturik eza* (%40,6 GHEEn) neurritz gora ageri diren ezaugarriak dira.

Unibertsitateko tituluak aurrera begira, *beheranzko joeran daude*, EHUK duen sailkapenaren barnean. Beraz, ez da gehikuntza nabarmenik izanen unibertsitateko titulazioek lan merkatuan izango duten atarabideari dagokionez.

Hala ere, *LHko erdi mailako tituludunek aterabide gehiago izanen dute merkatuan*, merkatuak berak eskaturik. LHren alde ona da curriculum merkatu moldatzen duela eta malgua da. Beraz, horrek abantaila ematen die titulazio horiei lehian aritzerakoan.

Hortaz, begi-bistakoa da *unibertsitateko irakaskuntza planak eta kirol titulazioak moldatu behar direla gizarte*, merkatu eta enpresa munduko premietara. Plan eta titulazio horien tankera balioanizduna handitu behar da, etengabeko prestakuntzaren bidez. Hori aukerabidea izan daiteke.

Tituludun ez ofizialei dagokienez, estatistikek agertzen dituzten *kontratu motak eta egonkortasunak tituludun ofizialen artean gertatzen direnen antzekoak dira*.

## 4.5.2. Euskara eta talde nortasuna

### 4.5.2.1. Euskara

Euskararen gaineko egoera Kirolaren Euskal Sistemari

#### Alderdi ahulak

- Kirol federazioen egitura ez da lagungarria Administrazioak hartan hizkuntza irizpideak jar ditzan.
- Federazioetan ez dago euskalduntze planik.
- Ez dago teknikari eta monitore euskaldunik.
- Federazioen agiri idatzietan gaztelera erabiltzen da.
- Estatuko egiturekiko mendetasuna eta harremanak EAE kanpoko erakundeekin.
- Astirik ez itzulpenak egiteko.
- Euskarak leku txikia du komunikabideetan (EITBn izan ezik). Gainera, ez dago kirolari buruzko euskarazko egunkaririk.
- Federazioetako ardura karguetan dauden pertsonen jarrera axolagabea euskarari buruz.
- Federazioen batzarrak eta bilerak gazteleraz egiten dira.
- Bazkideen eskari urria federazioei.
- Kirol batzuek lotura txikia dute kulturarekin.

#### Alderdi sendoak

- Euskara geure gauzatzat hartzea.
- Pixkana, teknikari euskaldun gehiago dago. Udaletan kirol teknikari euskaldun asko dago.
- Federazioetan zuzendaritza ardurak dituztenak aldekoak dira.
- Euskara erabiltzen da eremu euskaldunetan eginiko lehiaketetan.
- Euskara lehiaketa zehatz batzuetan sartzearen esperientzia.
- Federazio batzuetako kide gehienak euskaldunak dira.
- Eskola-kirolak, ikastetxeetatik eta Administrazioetik eginiko kontrolari esker, hizkuntza irizpideak modu berezian hartzen ditu kontuan, egoera sozio-linguistikoak ahalbidetzen duenean.
- Gorputz heziketaren espezialitatea irakasleen eskola-unibertsitarioetan.
- Badira Gorputz Heziketako Euskal Erakundearen hezitutako profesional euskaldunak.
- Zale eta kirol elebidun gehiago dago.

#### Mehatuak


- Erakundeek emaniko laguntza handitu beharra.
- Itzulpenak garestiak dira.
- Egoera sozio-linguistiko ezberdinak.
- Gaztelerazko komunikabide gehiago.
- Erakunde batzuen gogorik eza.
- Euskalkien mailako zailtasunak.

#### Aukerak

- Pixkana, euskara maila gora doa.
- Euskara erabiltzeko eskari handiagoa eta errefusatze txikiagoa.
- Langile euskaldunak kontratatze aukera.
- Eliteko kirolari euskaldunen adibidea.
- Komunikabide batzuen eragina: EITBk euskara kirolean normaltzeari eginiko ekarpena.
- Kirol batzuk euskal kulturarekin identifikatzea.

*Iturria: Bai Euskarari akordioaren Plan Estrategikoaren moldaketa. Kontseilua eta Euskararen Erabilera Susutatzeko Plan Orokorra (Eusko Jaurlaritzaren).*

Euskarari dagokionez, lehenik eta behin, esan daiteke inolako okerrik gabe, egungo errealitateak ezinezko egiten duela kirol bizitza zikloa hautaturiko hizkuntza ofizialean egin ahal izatea, bai kirol instalazio publikoen edo pribatuen erabiltzaile gisa, bai kirol federazio edo klub bateko bazkide gisa. Orokorrean, ezin da euskarazko harremanik izan aipatu erakundeekin hainbat arlotan: agiriak hautaturiko hizkuntzan jaso ahal izatea, erakunde horietako web orrietan, batzar eta informaziorako bileretan edo prestakuntza bileretan (kirol titulazioak), curriculumaz kanpoko kirolean edota unibertsitate mailako kirolean.



Iturria: KPMG Consulting

Alde horretatik, azpimarratu behar da Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak 2002ko hasieran, plan bat abiarazi duela, euskararen erabilera EAEko kirolean normaltzeko. Kirola Euskaraz deritzo. Aipatu plana egituratua dago hiru ekintza ildo nagusiotan, aurreko lerroaldean atzemandako hutsuneak zuzentzeko asmoz:

- Heziketa gaiak euskaraz sortu edo moldatzea. Gaur egun, jadanik, bost liburu itzuli dira eta 2002an argitara eman daitezke; Kirol Errendimendua, gaitasun motorra, euskal pilota, trinketa eta aparatu motorraren eta neuro-muskularraren mekanikaren atlasa.
- Kirol eragileentzako euskarazko prestakuntza. Eskaintza.
- Sentsibilizazio neurriak.

Hiru ardatz horien inguruan, 10 programa egituratu dira eta bakoitzak badu bere jarraitimendu batzordea.

#### 4.5.2. Euskera eta talde nortasuna

Bestaldetik, euskarazko *komunikabideen erabilera* dago kirol ekitaldi eta lehiaketak zabaltzerakoan. Egun, euskaraz ematen dira futbol partiduak eta hori babestu beharreko balioa da. Aurrera begira, telebista kontratuen birnegoziaketa dela eta, emankizun eskubideen titularitatean aldaketa gerta daiteke eta horrek zalantzak sortzen ditu euskaraz egiten diren futbol emankizunei buruz.

Jendetza handiak segitzen dituen beste ekitaldi handiei dagokionez, Estatuak berak interes orokorrez deklaratuak, gehienak gazteleraz ematen dira. Alde horretatik, kirol emankizunak arautzen dituen 21/1997 legeari buruzko berrirakurketa egin liteke eta erabili hizkuntza kontuetarako duen indarra. Izan ere, aukera nabarmenak eskaintzen ditu eta merezi du arretaz aztertzea.



### *Talde Nortasuna*

Bestaldetik, *euskal nortasuna* EAeko muga politikoetatik harantza doa. Aipatu nortasunaren euskarrian ez dago nortasun politikorik, baina horrek ez du oztopo izan behar loturak egiteko.

Dena dela, *aipatu talde nortasunaren oinarrian nortasun politikorik ez izatea ez da traba izan behar Euskal Herriko kirol nortasuna eraikitzeari begira*. Are gehiago, kirola, askotan, mekanismo malguago eta moldagarriagoen bidez egituratzen da politika baino, eta horrek aukera ematen du banako eta talde borondateen akordioaren bidez, elkarren arteko kirol nortasuna eraikitzeko, egun aintzat hartuak dau den egitura politikoetatik harantz joko duena:

- Esate baterako, lehiaketek izan dezakete kirol antolamenduek erabakitako irismena (beraz, legearen aldetik egingarri dira Euskal Herri osorako egiturak, kirol erakundeak, kapoaldeko islapenak edo lehiaketak. Adibidez: azken Herri Kirol txapelketa).
- Euskadiko Kirolaren Legearen seigarren xedapen gehigarriaren arabera, federazioek lankidetzaz hitzarmenak egin ditzakete EAE kanpoko beste euskal lurraldeetako kirol erakundeekin. Adibidez: euskal pilota federazioak pilota munduko eragileekin Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparaldean hasitako bidea. Dena dela, oro har, ezin gauza bera esan federazioak, oro har, hartuta, ez baita ezer ere egin horri buruz.
- Europa mailako elkarteak lanabes juridiko egokiak dira era horretako eraikuntzei begira.

### 4.5.3. Babesa eta Mezenasgoa

Oro har, esan daiteke, *mezenasgoa zenbaitetan Partaidetzako Kirolean erabiltzen dela eta babesa, aldiz, gehiago erabiltzen da Goi Errendimenduko kirolean edo klubetan artean (KSAn barne).*

*Mezenasgoan sartzea gero banakago gertatzen ari da, salbu eta arrazoi pertsonalak direla medio, enpresa edo partikularra proiektuan partaide denean.*

Babesari dagokionez, kirolaria, taldea edo kirol proiektua babesleari lagungarri gertatzen zaio fama hartzeko, markaren irudia eta beste. Diru pribatua kirolean sartuko bada, ongi zaindu behar da proiektuaren kalitatea, tamaina, antolaketa eta iraupena.


- *Kirol babesak ere erakundeen proiektuak sostengatzen ditu.* EAeri dagokionez, Kirolgi eta Bizkaia-Bizkaialde Fundazioen bidez bideratzen da. Proiektu horiek abantaila batzuk dituzte: seriotasuna Administrazioa gidari izanik, komunikabideen sostengua eta zerga kenkariak.
- Hala ere, *erakunde pribatuei, esaterako klubei, babesa emateak* baditu gaur egun eragozpen batzuk, babesleen bila arrakasta izaterakoan. Hona hemen:
  - *Antolaketa moldatua dago* (tamaina, egitura, kalitatea, e.a.) bere jarduera edo kirolaren *egungo helburuetara.*
  - *Kirol babesleek ez dituzte zerga abantaila berberak lurraldez lurralde. Dena dela, bada hiru lurraldeetan parekatzeko joera.*
  - *Egituren profesionalizaziorik eza.* Ondorioz, “produktuak” ez du erakargarritasunik ospea eta irudiaren bila ari den enpresa pribatuarentzat.

### 4.5.4. Azpiegiturak

Hona hemen zein den kirol ekipamenduen egoera EAEn. Honela laburbildu daiteke:

- *Ekipamenduetan ez dago orekarik herrien artean, tokian tokiko politikak lehenesten direlako.*
- *Indarrak ez dira baliatzen; egungo legeria dela eta, ez dira eskola-ekipamenduak baliatzen, herri mugakideen ekipamenduak ez daude mankomunatuak, ez dago koordinaketarik eta plangintza osagarriarik ekipamendu publiko eta pribatuen artean, ez dago koordinaketa orokorrik inbertsioan eta ez dago dirulaguntza eta aholkularitzari buruzko politika orokorrik.*
- *Ez dago orekarik instalazioen eta horien kalitatearen eskaintzetan.*
- *Kudeaketa garestia da, diseinuak desegokiak direlako.*
- *Ez dago ekipamendurik teknika perfektionatzeko.* Zenbait kirolean baizik ez.
- *Udalez gaindiko ekipamenduen politika ez dago orekatua.*

Egun indarrean dagoen legeriari dagokionez, hona hemen ageri diren ezaugarriak:



Iturriak: 14/1998 Legea, Euskadiko Kirolarena

Itxura denez, azaldutako egoera hori gertatzen da ez dagoelako gidaritzarik kirol instalazioen plangintzan, ekipamendu mota orori harrera egin eta eginkizunok betetzeko:

- Oinarrizko ekipamenduen plana herriz herri zehaztea.
- Udalez gairiko ekipamenduen mapa.
- Autonomia mailako instalazioak.
- Azpiegiturak ahalik eta hobekien erabiltzea (eskolakoak, unibertsitatekoak...).
- Aholkularitza eraikuntzan.
- Aholkularitza kudeaketan.
- Planera moldatutako proiektuentzako dirulaguntzen politika.
- Instalazioen zentsoari buruzko jarraimendua eta huraxe etengabe gaurkotzea.
- Etengabeko prestakuntza.




Beraz, ez dago gidaritzarik eta arrazoi nabarmenen artean dago Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Kirol Zuzendaritza, orain artean, diru eta giza baliabide urri izatea. Beraz, badirudi erronka horiei helduko bazaie, aipatu baliabideak zabaldu behar dira, barnekoak edo kanpokoak.

	Egungo egoeraren azterketa																																																
Eskola-Kirola	<p>Kultura eta kirol agerpide honi heldu behar zaio haurtzarotik hasita eta bi ikuspegi kontuan hartuta: kultura eta hezkuntza. Gaur egun, euskal pilotak baizik ez du partaidetza nabarmena eskola-kiroleko programetan, hiru foru alduetan (fitxen %6 Araban; %2,2 Bizkaian eta %4,15 Gipuzkoan).</p> <p>Materialak, teknikak eta joko arauak moldatu behar dira.</p>																																																
Partaidetzako Kirola	<p>Jarduerak behera egiten du, nabarmen gainera. Euskal pilotari dagokionez, olgeta-jardueran beste kirol batzuk agertu dira hemengo kirolen ordean: paddel, squash, tenis edo frontenisa.</p> <p>Ekimen pribatua eta publikoa atzeratua gelditu da Euskal Herriko kiroletan.</p> <p>Premia osoz materiala moldatu behar da, eskuz aritzeko pilota, adibidez. Zesta-puntako materiala merketu behar dira, eta arraunketa olgeta-jarduetara moldatu behar da kostaldean edo urtegiak dauden eremuetan.</p>																																																
Errendimenduko Kirola	<p>Gaur egun, EAEn ditugun Euskal Herriko hiru kirolek euskal federazioen lizentzien %3,2 egiten dute. (Arraunketa %0,97, Herri Kirolak %0,66, Euskal Pilota %1,6).</p> <p>Kirolari kopuruak beherantz egin du (ondoko grafikoa ageri den bezala).</p> <div data-bbox="474 837 1391 1339" style="border: 1px solid black; padding: 5px;"> <p style="text-align: center;"><b>Euskal Herriko kirolen bilakaera</b></p> <table border="1" style="margin-left: auto; margin-right: auto;"> <thead> <tr> <th>Year</th> <th>Euskal Pilota</th> <th>Arraunketa</th> <th>Herri Kirolak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1992</td> <td>1986</td> <td>1986</td> <td>1986</td> </tr> <tr> <td>1993</td> <td>1986</td> <td>1986</td> <td>1986</td> </tr> <tr> <td>1994</td> <td>1986</td> <td>1986</td> <td>1986</td> </tr> <tr> <td>1995</td> <td>1986</td> <td>1986</td> <td>1986</td> </tr> <tr> <td>1996</td> <td>1986</td> <td>1986</td> <td>1986</td> </tr> <tr> <td>1997</td> <td>1986</td> <td>1986</td> <td>1986</td> </tr> <tr> <td>1998</td> <td>1986</td> <td>1986</td> <td>1986</td> </tr> <tr> <td>1999</td> <td>1986</td> <td>1986</td> <td>1986</td> </tr> <tr> <td>2000</td> <td>1986</td> <td>1986</td> <td>1986</td> </tr> <tr> <td>2001</td> <td>2885</td> <td>1566</td> <td>1195</td> </tr> <tr> <td>2002</td> <td>2885 (-5,8%)</td> <td>1566 (-17,3%)</td> <td>1195 (-17%)</td> </tr> </tbody> </table> </div> <p style="text-align: center;"><i>Iturriak: Euskal federazio hauek: Herri kirolak, arraunketa eta euskal pilota</i></p> <p>Klubak eta federazioak lehian ari dira sekula baino gehiago kirol eta entrenimendu eskaintza handiarekin. Gainera, gogorra da federazio-inguruetik begiratuta (joan-etorriak, dedikazioa...) eta ez dago itxaropenik kirol horiek lanbide bihurtzeko (esku pilota alde batera utzita). Horregatik, kirolari asko partaidetza-kirolera bideratzen dira.</p> <p>Kirol batzuk bazterrean uzten dira beste batzuetan arreta handiagoa jartzen delako, enpresen edo komunikabiden interesarengatik. (e.b. Oso nabarmena da zesta-punta, trainerilla eta batelen beherakada esku pilota edo traineruen aldean).</p>	Year	Euskal Pilota	Arraunketa	Herri Kirolak	1992	1986	1986	1986	1993	1986	1986	1986	1994	1986	1986	1986	1995	1986	1986	1986	1996	1986	1986	1986	1997	1986	1986	1986	1998	1986	1986	1986	1999	1986	1986	1986	2000	1986	1986	1986	2001	2885	1566	1195	2002	2885 (-5,8%)	1566 (-17,3%)	1195 (-17%)
Year	Euskal Pilota	Arraunketa	Herri Kirolak																																														
1992	1986	1986	1986																																														
1993	1986	1986	1986																																														
1994	1986	1986	1986																																														
1995	1986	1986	1986																																														
1996	1986	1986	1986																																														
1997	1986	1986	1986																																														
1998	1986	1986	1986																																														
1999	1986	1986	1986																																														
2000	1986	1986	1986																																														
2001	2885	1566	1195																																														
2002	2885 (-5,8%)	1566 (-17,3%)	1195 (-17%)																																														
Goi Errendimenduko Kirola	<p>Oso ezaugarri egokiak ditu kirol-industriak ustiatu dezan. Negoziorako aukera ederra izateaz gain, zalantzarik gabe, industri moduan ustiatzeak kanpoaldeko proiektio nabarmena ekarriko lioke eta eginkizun nagusia beteko luke beste kirol-jarduerak mugiarazteko.</p> <p>Dena dela, gaur egun, oso errendimendu txikia ateratzen zaie ezaugarri batzuei (arraunketa, zesta-punta, adibidez), eta beste garai batzuetan ateratakoa baino apalagoa. Egoera hori gainditu daiteke eragile guztien arteko akordioaren bidez: bereziki, telebista, kirol agintariak, kirolariak eta ekimen pribatua.</p> <p>Azkenik, egun finkatua dagoen enpresa-sektoreak –esku pilota–, komeni da lan harremanak arautzea. Horretarako, elkar aitortu behar dute nagusiek eta langileek, eta lan harremanak normalizatu behar dira.</p>																																																




Euskal Pilotako lizentzien bilakaera			
	T 2000-2001	T 2001-2002	T 2002-2003
Guztira	2.885	3.024	2.717
Kadeteak	457	448	388
Zesta-punta kadeteak	69	49	65

Iturria: Euskal Pilota Federazioa



Iturria: Euskal Joko eta Kirolen Federazioa



Iturria: Euskadiko Arraunteka Federazioa; CPTren datuak

Gidaritza horrek indarra egin beharko luke baliabide publikoak mugiarazi, koordinatu, eragin eta arrazionalizatzeko. Izan ere, zein ekipamendu mota eraiki, non kokatu, eta, beraz, eskaintza eta, eskaintza hori nori zuzendura izango den erabakitzea Udalari edo Aldundiari egokituko zaio. Izan ere, bi erakundeek eskubidea dute udalaren edo lurraldearen aurrekontua baliatzeko, herritarrei gehien komeni zaien moduan, betiere erakundearen iritzia arabera.

#### 4.5.5. Euskal Herriko Kirolen egungo egoera; Arrauketa, Euskal Pilota eta Herri Kirolak

Euskal Herriko kirolak oso bide egokia dira euskal kultura barnean finkatu eta kanpora begira zabaltzeko.

Euskal Herriko kirolen egoera EAEn zein den ikusita, zerkusua duten eragile guztiek ahalegina egin beharko lukete hemengo kirol bakoitza moldatzeko kirol jarduera mota bakoitzera. Kirolaren Euskal Legean, hemengo kirol bakoitzera, aurreikusita dauden plan estrategikoen eragile guztien arteko topalekurako eta gogoetarako lanabes izan beharko lukete gure kirolak sustatu eta moldatzeari begira.

Taulan ageri diren datuen arabera, euskal pilotako lizentzien kopurua nabarmen murriztu da EAEn, %5,8, zehazki. Kadetetan, murrizketa are handiagoa izan da, %15 zehazki. Kadeteak gazteenak dira, kirol honetako harrobia. Beraz, kirol hori beherantz doa are nabarmenago.

Zesta-puntari dagokionez, aipatu behar da euskal pilotaren lizentzia guztien %13,8 duela. Gaur egun, zesta-puntan aritzen diren kadete lizentzidunak 65 dira eta azken urteotan %5,8 erori da.

Herri Kiroletako lizentzien bilakaera azterturik, azken urteotan %17 erori da. Azpimarratu behar da azken bi urteotako murrizketa izugarria, %14, azken 10 urteotako murrizketaren %80,4, alegia.

Lurralde historiko bakoitzari begira, aipatu behar da herri kiroletako lizentziak Gipuzkoan mantendu, eta, aldiz, Araban eta Bizkaietan %35,7 eta %29,5 erori dela, hurrenez hurren.

Ondoko taulan ageri den bezala, 1993tik 2001era arraunketako lizentziak, guztira, %17,3.

Arraunketa mugikorrean (lizentzia guztien %18, 2001ean) murrizketa nabarmenagoa izan da (%44,4) arraunketako lizentziak, bana beste, murriztu direna baino, arestian adierazitako denboraldian. Beraz, uste izatekoa da *tostako arraunketako lizentziak gutxiago murriztu direla arraunketan, bana beste, murriztu direna baino (%7,5 inguru)*. Hala ere, datuak kontuz erabili behar ditugu, arestian ere azaldu baita, arraunketa mugikorrean ari dinerak tostako arraunketako kirolari ere izan daitezkeela.

Beste alde batetik, eta kadeteen kategoria aztertutik, 1996tik 2001era, lizentziak %6 goratu dira. Dena dela, *arraunketa mugikorreko kadeteak aipatu urteetan %52 goratu direnez*, uste izatekoa da tostako arraunketako lizentziak batezbesteko orokorraren behetik igo izana. Datu hori esanguratsua da, tosta-ko arraunketaren etorkizuna nondik nora joan daitekeen esaten digulako.

Kinielak biltzen duen diruaren banaketaren egungo egoera Estatuan (2001)				
EURO				
Sarrerak (Bildutako dirua)		Gastos y Transferencias		
Kiniela	530.481.845,23	LNFP	53.048.185	%10
Quinigol		Loteria Administrazioa	31.828.911	%6
		Sariak	291.765.015	%55
		CSD	5.304.818	%1
		AA.EE.	58.246.097	%11
		Sarrerak Altxorrean	68.962.640	%13
		Administrazio gastuak	21.325.370	%4
<b>Guztira</b>	<b>530.481.845</b>	<b>Guztira</b>	<b>530.481.845</b>	

Iturria: ONLAE

Kinielak bildutako dirutik EAeri itzulitakoa (2001)			
Kirol Sistemari itzulitakoa	Pribatua	EAEko Klubei itzulitakoa	560.000 €
	Publikoa	Foru Aldundiei itzulitakoa	2.705.472 €
<b>Kirol Sistemaren gutzizko partziala</b>			<b>3.265.472 €</b>
Beste Itzulerak	Sariak		11.891.000 €
	Loteria administrazioak		1.233.000 €
	<b>Beste itzuleren gutzizko partziala</b>		<b>13.124.000 €</b>
<b>Guztira</b>			<b>16.389.472 €</b>

Iturria: ONLAE

#### 4.5.6. Loteria eta Apustu Sistema EAEn

Kirol apustuen sisteman EAEn egiten den gastuari dagokionez, Euskadiko herritarrek kinieletan, 2001ean, guztira de 24.640.000 gastatu zituzten, hau da, kinielak aipatu denboraldian, Estatu osoan bildutako dirutzaren %4,64.

Gaur egun, EAera, osotara, 16.389.472 itzultzen dira, hau da, inbertitzen den guztiaren %66.

Kalkuluen arabera, EAEk bere kirol apusturako sistema edukiko balu, eta egun itzultzen den hainbateko dirutzara iristeko, bildu beharko litzateke egun biltzen denaren %73,9.

Eskumenei eta apustuen bidezko finantziaketa aukerari dagokionez, EAEko Autonomia Estatutuak eskumenetik kanpora uzten ditu elkarrekiko kirol apustu onuragarriak. Dena dela, 1994ko maia-tzaren 26an, Auzitegi Konstituzionalak emaniko epaiaren arabera, badirudi esan daitekeela kirol apustuak estatuaren eskumenekoak baizik ez direla izango baldin eta kirol emaitzei buruz egiten diren pronostikoen lehiaketak elkarrekikoak eta onuragarriak badira edota AAEEz gaindiko lurraldea ukitzen badu.

#### 4.5.7. Kirol moldatua. Egungo egoera\*

Esan daiteke Euskadi *munduko potentzia dela eliteko kirol moldatuari dagokionez*. Izan ere, azken joko paraolimpikoetan EAEk 13 domina izan zituen. Horrek esan nahi du Euskadi, eta biztanleria kontuan hartuta, besteak beste, Espainia, Kanada, Estatu Batuak, Frantzia edo Alemania bezalako estatuaren gainetik dagoela. Domina kopuruan aipatu estatu horiek izan ziren lehenak sailkapenean joko horietan.

Dena dela, *ez da gauza bera gertatzen oinarrizko kirol moldatuan*: ehunka pertsona minusbaliatu baizik ez da kirolean ari modu erregularrean eta kirol klubak hamarrera ere ez dira iristen. Horregatik, zaila dirudi etorkizuneko belaunaldiek eutsi ahal izatea eliteko kirol moldatuak egun duen mailari. Zehazki, hona hemen kirol moldatuak dituen arazoak:

- *Gizarteak errefusatzan du ezinduen arteko kirola*: gurasoek, irakasleek eta jendeak, orokorrean, eta ezinduen parte batek ere bai.

Herrialde				
Herrialde	Kirolariak Sydney 2000	Dominak	Kirolariak Milioi bat biz.	Dominak Milioi bat biz.
Australia	278	149	15,03	8,05
<b>Euskadi</b>	<b>16</b>	<b>13</b>	<b>7,75</b>	<b>6,29</b>
Dinamarka	38	30	7,31	5,77
Nueva Zelanda	43	17	11,78	4,66
Kanada	162	96	5,40	3,20
Espainia	200	107	4,90	2,62
Holanda	101	30	6,37	1,89
Frantzia	140	86	2,36	1,45
Alemania	251	95	3,10	1,17
Italia	63	27	1,11	0,47
Estatu Batuak	256	109	0,90	0,38
Errusia	90	35	0,62	0,24
Brasil	64	22	0,38	0,13

*Iturria: KPMG Consulting etxeak egina, <http://lafid.es/medallero> helbidean eta Nazio Batuen Populazioaren Atalean emaniko datuetan oinarriturik*

\* Iturria: Kirol Moldatua Garatzeko Plana. Saiatu Fundazioa.

- Kirol moldatuaren *sustapen urria*: informazio kanpainarik ez, ez zaio jende orokorrari argibiderik ematen, ezta ezinduei ere.
- *Eskola-kirolean oso leku txikia da*: irakasleek ez dakite kirol moldatuaren berri, ez da probarik kirol moldatuarentzat, eta beste.
- *Kluben egitura ahula*: Kirol moldatua lantzen duten klub gutxi dago, ezinduen artean kirola gutxi sustatzen den seinale.
- *Ez dago kirol teknikari espezializaturik*: Ez dago prestakuntza arloko eskaintzarik kirol moldatuan. Ondorioz, oso teknikari gutxi hurbildu ahal izan da kirol moldatura.
- *Kirol azpiegiturak ez dira beti irisgarri*: oraindik badira azpiegiturari dagozkion arazo nabarmenak kirol instalazio askotan.
- *Ez dago goi mailako lehiaketarik*: Salbuespenak salbuespen, orokorrean Euskadin ez da nazioarteko lehiaketarik egiten, eta, horrek eragozten du, batetik, kirol hau gizartean zabaltzea, eta, bestetik, gure kirolariei lehian aritzeko moduko maila bermatzea.
- *Komunikabideetako interesa ahula da*: Komunikabideak ari dira tartea zabaltzen kirol moldatuaren berri emateko. Beraz, poliki-poliki, hobetzen ari dira kirol moldatuari buruzko oihartzuaren mailak. Baina, oraindik asko dago lantzeko arlo honetan.
- *Babesaren maila apala* lehiaketako kirolean: hein handian, komunikabideetan ez dutelako kirol moldatuari buruzko interes handiegirik. Enpresek, bestalde, ez dute beren irudia lotu nahi ezintasuna duten pertsonekin.

#### 4.5.8. Emakumea eta kirola. Egungo egoeraren\*

Oro har, emakumeak kirol egituretan duen eginkizunari dagokionez, azpimarratu behar da emakume gutxi dutela federazioetako lizentziarik eta emakume gutxi ere ari dela federazioetan lanean.

Ondoko taularen arabera, azterturiko hogeita hamar federaziotatik lautan baizik ez dira emakumezkoen lizentziak gehiago gizonetzkoenak baino (Neguko Kirolak, Gimnasia, Hipika eta Boleibola) bai kirolari, bai epaile edo jokozainetan. Gainera, haietatik 17tan, gizonetzkoen lizentziak emakumezkoen lizentzia kopuruaren bi halako da.

39 federaziotako lanpostuak azterturik (ikus goiko taula), hona hemen aterako ditugun ondorioak:

- Federazio hauetan emakume gutxi ari da lanean. Azterturiko 38 federaziotatik 30ean, lanean ari den gizon kopurua emakumezkoen kopuruaren bi halako da.
- Eta gainera, oso emakume gutxi ari dira zuzendari postuetan edota kargu nabarmenetan (presidente, presidenteorde, zuzendari tekniko). Emakume gehienak administrazio edo idazkaritza postuetan ari dira.


Bestaldetik, eta euskal selekzio absolutuak azterturik, bakar bat dago erabat emakumez osatua, eta, 11tan, aldiz, denak gizonetzkoak dira.

\* Iturria: Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritza, 2001.


#### 4. EUSKAL KIROLAREN EGOERAREN AZTERKETA

Federazioetan lizentziak dituzten emakumeak/lanean ari dinerak. Banaketa (2001)			
Kirol Federazioa	% Lizentziak Emakumeak	% emakume langileak	Postuaren azalpena
Urpeko jarduerak	%10,00	%0,00	
Xakea	%20,00	<b>daturik ez</b>	<b>daturik ez</b>
Atletismoa	%35,00	%0,00	
Automobilismoa	%2,00	<b>daturik ez</b>	<b>daturik ez</b>
Badminton	%39,00	%11,10	Diruzaina
Saskibaloia	%42,00	%0,00	
Beisbola eta Softbola	%38,00	%50,00	Idazkaria
Boxeo	%2,00	%7,00	Administraria
Txirrindularitza	%0,75	%28,57	Administraria
Aireko kirolak	%4,00	%10,00	Idazkaria
Neguko kirolak	%60,00	%0,00	
Esgrima	<b>daturik ez</b>	<b>%67,00</b>	Diruzaina / Idazkaria
Eski nautikoa (Araba)	%34,00	%20,00	Presidentordea
Futbola	%5,46	%0,00	
Areto futbola	<b>daturik ez</b>	%13,00	Kideak
Gimnasia	<b>%90,80</b>	%62,00	Kide / Diruzaina
Golf	<b>daturik ez</b>	%11,00	Kide / Administraria
Halterofilia	%7,00	%12,50	Idazkaria
Herri Kirolak	n.d.	%9,00	Idazkaria
Hipika	<b>%60,00</b>	%12,50	Kide / Idazkaria
Hockey	<b>daturik ez</b>	%40,00	Zuzendari teknikoa / Administraria
Judo eta G.K.	%30,00	%10,00	Administraria
Borroka eta Sambo	%15,00	%33,00	Idazkaria
Mendia	%30,00	%13,00	Arduraduna /Administraria
Mendia	%0,00	%9,00	Idazkaria
Igeriketa	%41,00	%7,00	Idazkaria
Patinajea	<b>daturik ez</b>	%15,00	Presidentordea / Idazkaria
Euskal Piloa	<b>daturik ez</b>	%12,50	Idazkaria / Administraria
Petanka	%22,00	<b>%50,00</b>	Presidentea / Idazkaria
Piraguismoa	%15,00	%27,00	Kideak
Arrauketa	%8,00	%8,00	daturik ez
Errugbia	<b>daturik ez</b>	%12,50	Idazdaria
Squash	%5,00	%21,00	Presidentea / Idazkaria / Diruzaina
Surf	%15,00	%11,00	Kide
Taekowondo	%30,00	%0,00	
Tenis	%36,00	<b>daturik ez</b>	<b>daturik ez</b>
Mahai-tenisa	<b>daturik ez</b>	%18,00	Idazkaria / Ezinduen arduraduna
Thriatloia eta K.K.	%9,00	%0,00	
Arku-tiroa	<b>daturik ez</b>	%10,00	Diruzaina
Bela	<b>daturik ez</b>	%17,00	Idazkaria
Boleibola	%70,00	%9,00	Idazkaria

**Euskal Selektzio Absolutuen banaketa generoari begira (2001)**



**EJk diruz langundutako ekitaldiak, generoari begira (2001)**



Antzekoa gertatzen da Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ekitaldiei dagokienez. Izan ere, 8 ekitalditan emakumezkoak baizik ez ziren aritu (36tan, aldiz, gizonetzkoak besterik ez).

Beste alde batetik, erantsi behar da selektzioetan nahiz Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ekitaldietan, nagusi direla gizon eta emakumeentzako tokia dutenak (mistoa), gizonentzako ala emakumeentzako soilik diren kirolak edo txapelketak baino.

EGITEKOA, BALOREAK ETA IRIZPIDE OROKORRAK

5







# egitekoa, baloreak eta irizpide orokorrak

## 5.1. Kirolaren Euskal Sistemaren Egitekoa

Azpimarratu behar da jarraian xehetuko ditugun Egitekoa eta Baloreak Kirolaren Euskal Sistemari dagozkiola, hau da, EAEko kirola planifikatu, antolatu, gauzatu eta gainbegiratzearekin nola halako zerikusia duten erakunde publiko eta pribatu guztiei.

Puntu hori argiturik, hona zer den *Kirolaren Euskal Sistemaren Egitekoa*:

***“Kirolaren Euskal Eredua garatzea, etengabeko hobekuntzaren bitartez, herritarren bizitza hobetuko duena, kirol jarduera eta jarduera fisiko osasuntsua guztiengana zabalduz, hala nola kirol bikaintasunaren maila goratuz”***

## 5.2. Kirolaren Euskal Sistemaren Baloreak

Kirolaren Euskal Eredua garatuko da gure Gizarte Ereduaren baloreak aintzat hartuta. Hona hemen\*:

- *Berdintasuna*. Oro har, honetan datza, hots, pertsona guztiek balio bera eta eskubide berberak dituzte, edozein delarik ere haren gizarte maila, egoera ekonomikoa, fisikoa, minusbaliotasuna, arraza eta sexua. Zehazki, berdintasunaren balorea erabat loturik dago ondoko kontzeptuei, eta, kontzeptu horiek ere elkarren artean oso loturik daude:
  - Integrazioa: berdintasunean oinarrituriko harremanak ezartzeko ahalmena eta baldintza berdinetan ere bai.
  - Elkartasuna: besteen ekintza eta eginkizunarekiko atxikipena.
  - Dibertsitatea: garrantzitsua da aintzat hartzea gizartean partaide diren pertsonen eta taldeen era askotako jarduera eta erakundeak, pentsamenduak, antolatu eta ekiteko moduak dituztela.
  - Tolerantzia: Gizartea osatzen duten pertsonen eta taldeen identitateek adierazitako ezberdintasun guztiak errespetatzea. Kontzeptu honek esan nahi du, batetik, erlijioa, politika eta kulturako sinesmenak eta iritziak errespetatu behar direla eta, bestetik, arrazoi fisikoak, minusbaliotasun kontuak, gizarte baldintzak, baldintza ekonomikoak edo sexuari dagozkion baldintzak direla medio ezberdinak diren pertsonak errespetatzea.

\* EAEko II Gazte Planetik ataratakoa, 2002-2005.

- *Partaidetza*: pertsona guztiek parte hartu behar dute, gizarterako ezartzen diren helburuen betekizunean.
- *Erantzukizuna eta Konpromisoa*, gizabanako edo talde orotan dagoen gaitasuna, libreki eginiko ekintzaren ondorioak eta konpromisoak aitortu eta onartzeko.
- *Indarkeriarik eza*, jarduera fisikoa edo kirola egiten dutenek joko garbia erakutsi behar dute, alegia. Halaber, kirol ikuskizunetara joaten diren zale eta ikusleen artean, prebentzio lana egin behar da eta aurre egin indarkeriari.
- *Bizi kalitatea*, kirolaz eta jarduera fisikoaz baliatzea gizabanakoa bera eta euskal herritarren bizi baldintzak asetzeko iturri gisa.

### 5.3. Kirolaren Euskal Sistemaren Irizpide Orokorrak

Halaber, Kirolaren Euskal Sistema osatzen dutenen jokabideak ondoko irizpide orokorrak hartuko ditu kontuan:

- Kirola egiten da kirolarien *osasun eta segurtasun* irizpideei jarraikiz, era berean, *ingurumenarekin, gure kulturarekin* eta lurraldez lurraldeko berezitasunekin *harremanetan sartu* eta haiek guztiak errespetatu behar dira.
- Kirol Eredua eta Kirolaren Euskal Sistemaren antolamendua garatuko dira *baliabideak ahalik eta hobekien erabiliz*.
- Kirol Sistemak eskuartzen duten eragile guztien arteko *lankidetzak, koordinaketak eta errekonozimendua*. Gauza bera Kirolaren Euskal Sistemaren helburuekin bat datozen kanpoaldeko eragileei dagokienez edota interesgarritzat jo ditzakegunak ezagutzak eta esperientziak elkartrukatzeko.
- Kirol jarduera interes orokorreko gizarte jarduera dela ikusita, *botere publikoek*, beren eskumenean betekizunean, *bermatu eta bultzatuko dute* pertsona guztiek kirola egiteko duten eskubidea modu librean eta borondatean oinarriturik, kirol jarduera arautzen duten erakundeak baitira.
- *Ekimen pribatuak*, jokabide gardenez eta demokratikoz, *kirolaren sutapena eta betekizuna bultzatuko du*, balio erantsiko zerbitzuak eta kalitatea eskainiz bazkide, bezero eta kirolariei.
- Kirolaren plangintza eta kudeaketa eredu eta jarduerak *etengabe berritu eta hobetzea*. Aldaketa hartu beharra dago aukera bezala eta ez mehatxu gisa.
- Kirolaren Euskal Sistema partaide izanen da Euskal Gizartearen bizitzan eta *gizarte eta ekonomia garapenean*, enplegurako eta lanbide garapenerako formula berriak eratuz eta, jadanik dauden kalitatea hobetuz.
- Kirolaren Euskal Sistemak aintzat hartu eta baloratuko du *boluntarioen* nahitaezko lana, eta boluntarioen garapena eta prestakuntza erraztuko du.

## HELBURU ETA ILDO ESTRATEGIKOAK

6





# helburu eta ildo estrategikoak

Kirolaren Euskal Plana etorkizunean garatu behar da funtsezko lau helburu estrategiko handiri loturik eta helburu horiek hamabost ildo estrategikoren oinarriak dira. Hona hemen:

Helburu estrategikoak	Ildo estrategikoak
<b>1</b> <i>Euskadirako bertarako Kirol Eredua garatzea</i>	<b>1.a</b> Eskola-kirolerako Eredua zehaztea. <b>1.b</b> Gure herritarren jarduera tasa goratu eta mantentzea. <b>1.c</b> Kirol lehiaketa mota asko ziurtatzea Erendimenduko kirolean. <b>1.d</b> Behar Adina eragile eskura izatea, estatuan eta nazioartean errekonozimendua lortu ahal izateko.
<b>2</b> <i>Kirolaren Euskal Sistema egituratzea, zehazturiko Kirol Eredua garatu eta eskuartzten duten eragile guztien ahaleginak ahalik eta hobekien erabiltzeko aukera emango duena</i>	<b>2.a</b> Erakunde Publikoen erantzukizunak zehaztea Kirolaren Euskal Sistematan. <b>2.b</b> Bestelako eragile publiko eta pribatuen erantzukizunak zehaztea KES. <b>2.c</b> KESn inplikaturiko eragileak Koordinatzeko Moduak zehaztea.
<b>3</b> <i>EAEEn, kirol zerbitzuen eskaintzaren kalitatea goratzea</i>	<b>3.a</b> Kirol azpiegitura eta ekipamenduen planifikazioa egitea. <b>3.b</b> Eragile gehiago hartzea. <b>3.c</b> Kalitatezko baloreak sustatzea. <b>3.d</b> Kirol ekitaldien plangintza egitea.
<b>4</b> <i>Kirola sustatzea, herrialde garatuaren irudia eta euskal kulturaren identitatea zabaltzeko bide gisa</i>	<b>4.a</b> EAEren irudia kanpoaldean zabaltzea kirolaren bidez. <b>4.b</b> Euskal Herriko kirolak sustatzea. <b>4.c</b> Beste geografi eremuekin batera aritzea, euskaldunen kultur nortasuna sustatzeko. <b>4.d</b> Euskaren erabilera sustatzea Kirolaren Euskal Sistematan.

## 1. Euskadirako bertarako Kirol Eredua garatzea

Hona hemen zertan datzan helburu estrategiko hau: Kirolaren Euskal Sistematan eskuartzten duten eragileek kirol jardueren tipologia bat adostasunez zehaztu beharko dute, herritarrari bere kirol ibilbidearen hautua egiteko aukera emango diona. Zehazki, gogoeta estrategikoaren aldiaren identifikatutako lau kirol aukeren edukia eta etorkizunerako ikuspegia zehaztu beharra dago. Hona hemen:

- Eskola-Kirola.
- Partaidetzako Kirola.
- Errendimenduko Kirola.
- Goi Errendimenduko Kirola.

Eredu bakoitzerako ildo estrategiko bana zehaztu da:

- 1.a** Eskola-Kirola; Zehaztuko den Eskolarako Kirol Ereduak aukera eman behar dio haur kirolariari hezkuntza garapena osatzeko eta kirolari bakoitzaren premiak asetzeko.
- 1.b** Partaidetzako Kirola; gure herritarren jarduera mailak goratu eta mantendu herrialde aurreratuenen pareraino iristeko. Horretarako, gure ingurumena nahiz kultur aberastasuna errespetatuko duen kirol jarduera jarraitua, segurua eta osasuntsua sustatu eta erraztu behar da.
- 1.c** Errendimenduko Kirola; kirol lehiaketa ezberdin asko ziurtatzea eta haiei eustea, gaintitze eta lehia beharrak asetzeko aukera emango duena, hala nola kirolari gehienei Goi Errendimenduan aritzeko aukera emango diena.
- 1.d** Goi Errendimenduko Kirola; behar adina eragile eskura izatea, estatu mailako eta nazioarteko errekonozimendua lortzeko aukera emango duena. Horretarako, bereiziko dira xede horri begira egokiak diren kirolak.

## ***2. Zehazturiko Kirol Eredua garatu eta, eskuartzen duten eragile guztien ahaleginak hobetzeko aukera ematen duen Kirolaren Euskal Sistema egituratzea***

Helburu estrategiko honek, Kirolaren Euskal Sistemaren inplikaturiko eragileen erantzukizunak zehaztu, esleitu eta bakoitzak bere bereganatzea du helburu, Kirolaren Euskal Eredua garatzeko asmoz. Gainera, eragileen artean egituratu behar diren koordinaketarako mekanismo ezberdinen rol eta erantzukizunak zehazten saiatuko da.

Zehazki, ondoko eragileon erantzukizunak zehaztu behar dira:

- 2.a** Erakunde Publikoak; Eusko Jaurlaritza, hiru lurralde historikoetako Foru Aldundiak eta Udalak.
- 2.b** Eragile publiko eta pribatuak honakoak ditugu: Hezkuntza-zentroak –oinarrian eskolak, ikastetxeak, unibertsitateak eta lanbide heziketa zentroak– kirol klubak, kirol klub profesionalak, Kirol Sozietate Anonimoak, kirol elkarteak, euskal elkarteak, lurraldeko elkarteak, komunikabideak, kirolariak, kirol merkataritzako



zentroak, beste kirol zerbitzu eskaintzaile enpresa eta elkargoak eta kirol munduarekin nolabaiteko zerikusia duten beste eragile sozial batzuk.

**2.c** Koordinaketa mekanismo nagusiak KESn honako hauek ditugu:

- Kirolaren Euskal Batzordea eta dagozkion organo eta batzordeak (batzarra, batzorde iraunkorra, osasun batzordea, azpiegituren batzordea, eskola-kirolaren batzordea, hezkuntza eta lan batzordea, e.a.).
- Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordea.
- Kirol Justiziaren Euskal Batzordea.
- Kirolaren Euskal Eskola.
- Kirol Medikuntzaren Euskal Zentroa.
- Kirol Medikuntzaren Zentro-Sarea.
- Kirol-Indarkeriaren aurkako Euskal Batzordea.
- Unibertsitate Kirolaren Euskal Batzordea.
- Kirolaren Euskal Behatokia.

**3. EAEko kirol zerbitzuen eskaintzaren kalitatea handitzea**

Helburu estrategiko hau, oinarrizko lau ardatzetan eraginez lortuko dugu: azpiegituren planifikazioa, kirol eragileen gaikuntza eta bestelako zehar-balore edo alderdietan kalitatezko irizpideak lortzea (esaterako: osasuna, segurtasuna, etika, indarkeria-eza eta ingurumenari buruzko errespetua).

**3.a** Azpiegituren Planifikazioa: Zehazki, Euskadin, datozen hamar urteotan eredu gisa balioko duen azpiegituren eta ekipamenduen plan bat ezartzean datza; honen barnean, EAEko kirol azpiegitura mota guztien eraikitzearen eta kudeaketaren planifikazioa zehazten dituzten ildo orokorrak izango ditugu, honela, lurralde eta eskualde mailan esparru honen barne erakunde ezberdinen ekintzak koordinatuko dituelarik, honako helburuak betez:

- Kirol azpiegituren planifikazioari dagokionez, aldaketa prozesu baten buru izatea.
- Kirolaren Euskal Sistemari, inplikaturiko erakundeen eskumenak egituratuko dituen eta sail-politikak koordinatuko dituen organismo bat eratzea, lurraldearen antolamendutik sorturiko eragile eta sistema ezberdinak koordinatuz (hezkuntza, osasungintza, laguntza, turismoa, e.a.).
- Kirol ekipamenduari loturiko esparruetan, arau garapenari ekitea.
- Kirol zentroen araudi-erregulazioari ekitea.
- Baliabideak zentzuz erabili eta hobetzea.
- Zuzkiduren desorekak orekatzea.
- Ekipamenduak, egungo eta etorkizuneko eskaerei zuzentzea.
- Natur eta hiriko ingurunea errespetatu eta indartzea, aurrerapen jasangarriaren jarraibide unibertsalenetatik hasita.

**3.b** Jarduketako bigarren ardatz nagusia edo ildo estrategikoak Eragileen gaikuntza du helburu, hau da, eragileen prestakuntza neurriak bultzatu, indartu eta koordinatu, Euskal Kirol Planean definituriko desfazioei heldu diezaieten, baita beren helburu eta erantzukizunak gauzatzeko, agerian dauden aukerak aprobetxatu ditzaten. Zehazki, neurriak honetara bideratuko dira:



- *Finantzaketa iturri* ezberdinak lortu eta behar bezala erabiltzea, bai publikoak (erakundeen dirulaguntzak), baita pribatuak ere (oinarrian, babesak, laguntza, kreditu ildoak eta dagozkion kideei balio erantsiaren zerbitzu eskaintza).
- Baliabide eta bideen *erabilera eraginkorra* bultzatzea.
- Maila ezberdineko erantzukizuna duten lanpostuak *profesionalizatzea* kirol erakunde eta organismoetan, Kirolaren Euskal Sistema lan iturri garrantzitsua bihurtuz.
- Euskal kirol proiektuan *boluntarioak sartzea*, sozialki Kirolaren Euskal Sistemarekin identifikatzeko aukera emango dieten ekintzak egituratuz, eta zehazturiko kalitate eta prestakuntza irizpideen arabera joka dezaten.
- Eta orokorrean, maila guztietan, eragile guztien *hezkuntza indartzea*, beren prestakuntza eta “merkatuko” behar zehatzak etengabe parekatu egon daitezzen.

**3.c** Kalitatearen baloreak indartzea, Kirolaren Euskal Sistemaren Kalitatea indartu, ezarri eta errespetatzea helburu duten ekintzak bultzatu eta egituratzean datza, alderdi hauen inguruan:

- Kirolaren Euskal Sistematan, partehartzaile guztien *osasuna* zaintzea, definituriko lau kirol motatan, beren jarduketa fisikoa gomendaturiko osasun irizpideen barne egin dezaten eta beren kirolean minik har ez dezaten edo, min hartzekotan, osasuna berreskuratzea bermatzeko osasun estaldura nahikoa izatea. Gainera, kirol mota zehatz batzuetan (adibidez, Paratidetzan), osasuna, euskal biztanleen jarduketa maila mantentzen eta indartzen duen elementua da.
- Inguruaren *segurtasun* irizpideak zaintzea, non Kirolaren Euskal Sistematan partehartzaileek beren jarduketa garatzen duten, lehen aipaturiko lesioak eta istripuak aurreikusteko asmoz.
- *Etikari eta indarkeria-ezari loturiko baloreak indartzea.*
- *Ingurumenari buruzko errespetua eta harremana.*



**3.d** Kirol Ekitaldien Planifikazioa, zehazki, kirol motaren arabera, ekitaldi egutegi bat zehaztean datza, Kirolaren Euskal Sistemari zehazturiko lehentasun eta irizpideen arabera, baliabide publiko eta pribatuaren arrazionalizatzea eta erabilera eraginkorra bultzatzea. Planifikazio honetan, honako alderdiak izan beharko ditugu kontutan:

- Kirol motei eta aldaerei dagokionez, lehentasun estrategikoa.
- Azterturiko lau kirol jarduketaren barnean, proben, lehiaketaren eta ekitaldien arteko oreka.
- Aparteko kirol ekitaldien koordinaketa.
- EAEko herritar guztien aukera berdintasuna.
- Kirol ekitaldi edo lehiaketa horien antolaketan edota babesean, ekimen pribatua aintzat hartzea.

#### **4. Kirola sustatzea, herri garatuaren irudia eman eta euskal kultur nortasuna zabaltzeko**

Kirola baliabide garrantzitsua dugu, euskal kulturaren nortasuna eta gure gizarteak bere Kirolaren Sistema antolatu eta garatzeko duen gaitasuna finkatzeari begira, baita Sistema hau kanporantz proiektatzeko ere, eta hori guztia dokumentu honetan frogatu egin da. Kirolaren Euskal Sistemak eskaini dezakeen abantaila hau indartzeko zehazten diren ekintzak, lau ardatz edo ildo estrategikoen inguruan egitura daitezke.

- 4.a** Lehenengo ardatzak, kirola tresna bezala erabiltzea bilatzen du, *gure herrialdeak duen gaitasuna kanporantz proiektatzeko* (antolaketa, gaitasuna, e.a.) eta euskal kulturaren identitatea kanporantz proiektatzeko (adibidez, euskal selekzioei laguntzaren bidez, nazioarteko ekitaldietan euskal identitatearen irudia zabaltzearen bidez, identitatea zabaltzen duten zaleen partehartze masiboen jarduketaren ekimenak bultzatzearen bidez, ikerketa zientifikoaren baliabideen indartze eta bideratzearen bidez, kanpo islapenerako bide bezala balio dezaten, esperientziaren trukearen indartzearen bidez, eta mugaz kanpoko beste herrialdeekin lankidetzaren ekitaldi eta sareen antolaketaren bidez, e.a.).
- 4.b** Bigarren ildo estrategikoa, *Euskal Herriko kirolaren indartzeari* dagokio, bai kanporantz proiektatzeko tresna garrantzitsua bezala, baita euskaldunen artean euskal identitate kulturala zabaltzeko eta finkatzeko ere.
- 4.c** Hirugarren ardatza, euskal kultura duten lurraldeen barnean, *talde identitatearen garapenerako*, tresna eta ekimenak eraikitzearen indartzeari dagokio.
- 4.d** Azkenik, laugarren ildo estrategikoa, hots; kirolaren bizitza zikloaren garapena, partehartzaile aktibo bezala (bere alderdi guztietan: kirolaria, entrenatzailea, zuzendaria, kidea, e.a.), hautazko hizkuntza eman ahal izatea eta kirol-ekitaldi garrantzitsuen emankizunetan erabilitako hizkuntza *euskara* izan dadin bultzatzeko ekintza multzoa. Ardatz hau, bi ildo estrategiko nagusiotan bereiztuko da:
  - Alde batetik, hiru ekintza moten inguruan, plan bat egituratzea: materiala sortzea eta hedapena, entrenatzaileen prestakuntza ikastaroak eta sentsibilizatze eta zabaltzea, bai orokorrean, baita udal mailan.
  - Bestalde, EAEko enpresa edo entitate publikoekin lan egiteko pertsonak edo zerbitzu enpresak kontratatzeak unean, hizkuntza irizpideak kontutan izatea.


## KIROLAREN EUSKAL EREDUA



7



# kirolaren euskal eredua



## A. Eskola-Kirola

Otik 16 urtera bitarteko neska-mutilek egindakoa da, dagokion eskaintzaren antolakuntzan parte hartzen duten Euskal Kirol Sistemaren egiturak edo eragileak kontutan hartu gabe.

Ondorioz, Otik 16 urtera bitarteko neska-mutilek, modu antolatuan edo beraien kasa, eskola-ordutegian edo ordutegitik kanpo, burutzen dituzten jardun eragile, fisiko edota kirolezkoen multzoak osatzen du eskola-kirola.

## B. Partaidetzako Kirola

Kirolariak bere aisia, jolas, harreman, estetika edota osasun behar pertsonalak asetzeko egiten duena da, kirol-esparru antolatuetan, lehiatzkoetan, arautuetan izan ala ez, burututakoa den kontuan hartu gabe.

### C. Errendimenduko Kirola

Kirolariek funtsean lehiaketa eta kirol emaitzak eskuratzeko bokazioz burutzen dutena da. Jardun mota honetan bere kirol jarduera lehiaketa eta emaitzak hobetzea funtsezko helburu izan edota kirolean goimailara (goi errendimendukora) iristeko egin beharreko bidea asetzeko aukera eskaintzen dion jardun mota bezala ikusten du kirolariak.

### D. Goi Errendimenduko Kirola

Kirolariaren helburua da bere espezialitatean lehiaketa maila garaienak eskuratze, eta, kasu gehienetan, gizartearentzat kirol erreferentzia bilakatzen da.


## 7.1. Kirolaren Euskal Eredua: Eskola-Kirola

### 7.1.1. Eskola-kirola ereduaren definizioa: ibilbideen arteko oreka

Eskola-Kirolaren Eredua, zuzentzen zaion kolektiboaren etorkizuneko kirol ibilbide desberdinen arteko oreka kontuan hartuz antolatu behar da, beraien osoko hezkuntzari kalte egin gabe. Horrela, ereduak zehaztuko dituen erronka, programa eta ekintzak garatu beharko dira jarraian azaltzen diren hiru ibilbideen inguruan:

- Jarraitasuna partaidetzako kirol jardueran (A).
- Errendimendu kirolerako hastapena (B1).
- Talentu eta kirol promesen identifikazioa (B2).

Eskola-Kirolaren helburu nagusia neska-mutiko praktikatzailearen heziketa-garapenaosatzea da, kirolari bakoitzaren banako beharrak asez aldi berean, beharrezko litzatekeenean ondoko zikloa garatuz:



- A. Jolasa eta Motrizitatea. Haurrak (eskolatuak edo ez) eta jolasa, motrizitatea eta jardun fisiko-kirollekoaren munduaren arteko lehenengo harremana da.

Neskatoa eta mutikoa adinik goiztiarretetik, jolasak burutzean, jardun fisiko eta eragileetan jolas eta dibertsioaren ikuspegitik nahastea bilatuko du.


- B. Eskola-Hezkuntza Fisikoa. Heziketa fisiko, motore eta eskola-populazioaren praktika fisiko-kirollekoaren beharrak ase behar ditu. Euskal hiritarren multzoarentzat oinarritzkoa den etapa honetan helburuak hezkuntza legeak (LOCE/LOGSE) ezarritakoak izango dira, eta ondoko lau hauek laburbil daitezke:


- Mutikoa edo neskatoaren garapen fisiko eta motorea lagundu.
- Ikasle guztiei jardun fisikoko maila egokiak bermatzea.
- Ikaslearengan ohitura eta bizimodu osasungarriak sortzea.
- Ikasleen artean kirol ohiturak sortzea.

- C. Kirol jarduerarako hastapena. Nahitaez hezkuntza fisikoari lotu eta koordinatuta, kirol hastapenak zera bilatuko du:

- Haurren hezkuntza-garapena biribiltzea kirol jarduerak ematen dituen baloreak baliatuz, kirol-lehiaketaren berriarazoak barne hartuz, heziketa balore positiboak bermatuko dituzten inguru-eremuetan garatuak.
- Kirol modalitateen espektro zabalaren ezagutza sustatzea, lehiaketa jarduerak dakartzanak barne hartuz.
- Ikasle gaztearengan kirol ohituraren sorrera bizimodu osasungarrietan eta kirol jardun mota desberdinetan etorkizuneko kirol jardueratzaile eta ikusleen sorrera indartzea.


- D. Kirol errendimendurako hastapena. Kirol jarduera mota honetan zera bilatuko da:

 – Nahi duten neskato eta mutikoei errendimendua eta helburuak gainditzera begirako kirol jarduerarako hastapena erraztea.


 – Lehendik antzeman eta beraien gaitasun eta jarrerengatik aukeratutako promesa gazteentzat teknifikazio baldintza egokiak laguntzea.

- Gainera, Errendimenduko Kirolaren praktiketan mutikoa edo neskatoaren garapen harmoniko eta integralaren, bai fisiko zein intelektual eta soziala, kalte gabe burutu beharko da hastapena.

- E. Kirol jardueran jarraitasuna.

 – Kirol errendimenduan sartzeko gogorik ez duten edo kirolean promesen antzemate-programetan aukeratuak izateko baldintza egokiak biltzen ez dituzten ikasleentzat kirol jarraitasunerako kirol eskaintza egokia bermatuko da.

Hurrengo grafikoan erakusten da, modu eskematikoan, aurreko orrian zehaztutako eskola-kirolaren erdia. Bertan ikus daitezke programa desberdinak (A, B, C, D eta E), nahastutako eragileak eta adin zerrenda baten arteko harremana (azken bi alderdi hauek –eragileak eta adina– modu zehatzagoan deskribituko dira 7.1.5 Eskola-Kirolaren Batzordea atalean).



<b>1</b>	<p><b>Ereduaren homogeneizatzea hiru lurralde historikoetan</b></p> <p>– Zehatz-mehatz, Ereduaren ezarpen eta garapena lurralde bakoitzean bertako ezaugarri bereizgarriei egokitu beharko zaie, Kirolaren Euskal Planean definitzen diren oinarri orokor, ezaugarri eta helburuei eutsiz uneoro.</p>
<b>2</b>	<p><b>Eskola-Kirolaren jardueraren hurbiltasun geografikoa adin txikikoen ingurune naturalarekik</b></p> <p>– Gehienezko distantziak definitzeko aukera ere aztertu.</p>
<b>3</b>	<p><b>Polikirolzaletasuna, bi esanahitan ulertuta</b></p> <p>– Ikaslearen hasierako etapa batean, kirol modalitate desberdinen ezagutzaren sustapen bezala.</p> <p>– Kirol Sistemaren multzoan, kirol modalitate desberdinen arteko praktikan arrazoizko oreka erdiestea bezala.</p>
<b>4</b>	<p><b>Hiru kirol ibilbideen arteko oreka</b></p> <p>– Kirol bakoitzeko kirol eskaintza (gorputz eta kirol jarduerak, lehiaketak, talentuak garatzeko programak,...) moldatu behar da, hiru kirol ibilbideak batera egoteko moduan.</p>
<b>5</b>	<p>Talentuen atzemate, hautatze eta garapen programen sustapen eta garapena kirol modalitateen lehentasuna eta promesa gazteen hautaketa kirolari bezala garatzeko duten potentzialaren arabera (jarrera eta gaitasunaren ebaluazioa) burutzearen bidez.</p>
<b>6</b>	<p><b>Gutxieneko trebakuntza eta sektorearen lan-erregularizazioaren eskakizuna</b> talde teknikoei eta eskola-kiroleko programen eragile kudeatzaileei dagozkien titulazio ofizialen arabera.</p>



### 7.1.2. Eskola-kirolaren ereduaren erronkak: erronka estrategikoak

Euskal Kirol Sistemako partaide guztiek barneratu behar duten erronka da kirol jarduera mota honetan Euskal Eskola-Kirolaren eredia EAEko hiru lurralde historikoetan homogeneizatu eta ezartzea, haietako bakoitzaren ezaugarri soziodemografiko eta geografikoak errespetatuz. Helburuak hauek izango dira:

1. Kirol ohitura sortzea eskola-adineko neska-mutikoengan.
2. Ikasleen partehartze maila igotzea eskola-ordutegitik kanpoko hezkuntza fisiko eta kirol jardunetan.
3. Neska-mutikoen partehartzea orekatzea hezkuntza fisiko eta kirol jardunetan, neskatoen partehartzea igoaraziz jardun hauetan.
4. Bizimodu osasungarria eta gure ingurumena eta kultur-ondarearekin errespetutsua garatzea ahalbidetzen duten kirol jarduerak sustatzea.
5. Eskola-adineko neska-mutikoen kirol jarduera askotarikoa sustatzea, LHko (Lehen Hezkuntza) adinean, bereziki.

Horretarako ondoko erronka estrategikoak garatu beharko dira:

a) Eskola-ordutegian burututako Hezkuntza Fisikoko jarduna hobetzea:

- Hezkuntza Fisikoko irakasgaiaren curriculumak berraztertuz, bai LHaren alorrean nola DBHkoan eta DBHOkoan.
- Jardun eragileak, jolasekoak, eta orokorrean hezkuntza fisikokoak lagunduz, Lehen Hezkuntzaren (Haur Hezkuntza) aurreko etapetan.
- Kirol eremuari lotutako beste eragile batzuk parte hartzen duten jardun osagarri eta eskola-ordutegitik kanpokoan garapena ahalbidetuz.
- Osasuna eta kirol medikuntzako profesionalak eta hezkuntzako profesionalen arteko komunikazioa ahalbidetuz.
- Ikastetxeak Hezkuntza Fisikoko irakasgaiaren garrantziaz eta Hezkuntza Fisikoa eta kirol jarduerarekin zerikusia duten jardunen alorrean hezi eta eraberritzeaz kontzientziatuz.


b) Aitortutako eragile desberdinak nahastea (ikastetxe, klub, KSAk, beste kirol erakunde batzuk, federazioak, erakunde publikoak eta beste batzuk) eskola-ordutegiz kanpoko kirol ibilbide orekatuak ezar-tzen lagunduko duen zerbitzu eskaintzan. Eskaintza horrek ondokoak hartu beharko lituzke:

- Alternatiba mota zabala ezagutaraztea eta kirol ohitura eta bizimodu osasungarriak sortzea ahalbidetuko duten ekimen fisiko-kirolezkoak.
- Arauak eta espazioak ikasleen behar eta baldintzetara egokituz lehiaketa esparruaren barneko kirol modalitate desberdinak ezagutaraztea ahalbidetuko duen lehiaketa eraldatu eta partehartze sistema bat. Eraldatutako lehiaketa edo partehartze honek bi helburu izango ditu:



- ariketa fisikoaren jarraitasuna bermatzea jardun mota hauek jolaserako lehiaketa eremuetan kirol errendimenduarekin hertsiki lotutako esparruetatik kanpo burutu nahi dituzten ikasleei.
  - aldi berean lehiaketa hautakorreko sistemarako sarbidea ahalbidetzea hala nahi duten neska-mutikoei.
  - Atzemate eta teknifikazio programak diseinatu eta ezartzea kirol munduan promesatzat jotzeko jarrera eta gaitasun egokiak dituzten gazteentzat.
- c) Hezkuntza Fisikoko jardunak eta eskola-ordutegitik kanpoko jardunen arteko koordinazioa bultzatzea (bereziki kirol jardunak).
- d) Neska-mutikoen hezkuntza integrala babestuko duten mekanismoak antolatzea Eskola-Kirolaren helburuz kanpoko kirol jardunen aurrean.
- e) Eskola-kirolaren edozein barrutitan irakaskuntza edo entrenamendu lanetan dihardutenen ezau-pide eta titulazio maila egokiak bermatzea.

**Eskola-kirolaren ereduaren erronkak: lehiaketa, kirol ereduaren zerbitzuko bitarteko edo lanabes gisa**



## 7.1.3. Eskola-kirolaren ereduaren ikuspena

Egungo egoera		
Partaidetza tasa	Hastapen Tasa Eskola-Kirola Eskola ordutik kanpo, 0-16 urteko haurren artean	Daturik ez
	Neskatoen partaidetza tasa kirolean Eskola ordutik kanpo partehartzaile guztiak kontuan hartuta	Daturik ez
	Kirola uzten ez duten tasa Eskola ordutik kanpo, 12 urtez gorakoen artean	Daturik ez
GH eta Kirola koordinatzea Eskola ordutik kanpo	Kirol jardueretan parte hartzen duten Gorputz Heziketako irakasleen portzentaia Eskola ordutik kanpo	Daturik ez*
Eskuhartzen duten eragileak	Eskola-Kirolako programak eskola-ordutik kanpo eskaintzen duten ikastetxeen portzentaia	Daturik ez
	Kirol-eskolen koordinatzailea duten ikastetxeen portzentaia	Daturik ez
	Kirol klub, KSA eta beste kirol erakundeekin hitzarmena sinatua dutenen eskolen portzentaia	Daturik ez
Boluntarioak	Eskola-Kirolean elkarlanean aritzen diren boluntario kopurua	Daturik ez
Enplegua	Eskola-kirolean lan arautua edo bere kasako lana egiten duen pertsona kopurua	Daturik ez
Lehiaketa Eraldatua edo Partaidetzakoa	Ikasleentzako lehiaketa eraldatuak edo partaidetzakoak eskaintzen dituzten kirolak. Kopurua	Daturik ez
Prestakuntza	Adin-txikikoekin lan egiteko titulazio ofizial egokia duten kirol-prestatzaileak, Kopurua	Daturik ez



2007ko ikuspena		
Partaidetza tasa	Hastapen Tasa Eskola-Kirola Eskola ordutik kanpo, 0-16 urteko haurren artean	X
	Neskatoen partaidetza tasa kirolean Eskola ordutik kanpo partehartzaile guztiak kontuan hartuta	%45
	Kirola uzten ez duten tasa Eskola ordutik kanpo, 12 urtez gorakoen artean	X
GH eta Kirola koordinatzea Eskola ordutik kanpo	Kirol jardueretan parte hartzen duten Gorputz Heziketako irakasleen portzentaia Eskola ordutik kanpo	X
Eskuhartzen duten eragileak	Eskola-Kirolako programak eskola-ordutik kanpo eskaintzen duten ikastetxeen portzentaia	X
	Kirol-eskolen koordinatzailea duten ikastetxeen portzentaia	X
	Kirol klub, KSA eta beste kirol erakundeekin hitzarmena sinatua dutenen eskolen portzentaia	X
Boluntarioak	Eskola-Kirolean elkarlanean aritzen diren boluntario kopurua	X
Enplegua	Eskola-kirolean lan arautua edo bere kasako lana egiten duen pertsona kopurua	X
Lehiaketa Eraldatua edo Partaidetzakoa	Ikasleentzako lehiaketa eraldatuak edo partaidetzakoak eskaintzen dituzten kirolak. Kopurua	X
Prestakuntza	Adin-txikikoekin lan egiteko titulazio ofizial egokia duten kirol-prestatzaileak, Kopurua	X

\* Gaur egun, Eskola-Kirolako koordinatzaileen %65 ikastetxeko irakasleak dira

#### 7.1.4. Eskola-Kirola ezartzeko gakoak: Eskola-Kirolaren Batzordea

*Eskola-Kirolaren Ereduaren funtsezko erronka edo helburua hauxe da: "Euskal Eskola-Kirolaren Eredu homogeneoa eta bera herrialde historiko bakoitzeko ezaugarri berezietara moldatzea".*

Xede hori lortzeko, *Eskola-Kirolaren Batzordea* osatuko da, eta bere zeregina izango da helburu hau betetzen dela zaintzea ereduaren *oinarrizko alderdiekiko* edozein salbuespen aprobataz adostuz. Inolako adostasunik ez egotekotan, Eskola-Kirolaren Eredua plan honetan azaltzen diren irizpide edo printzipioen arabera gobernatuko da.

Alorrean parte diren erakunde eta eragileek osatuko dute eta bi maila edukiko ditu: eztabaida tekniko maila bat eta Ereduaren ezarpen exekutiborako beste bat.

Oinarrizko alderdiak ondoren aurkezten direnak dira:


1. Adinak (lehiaketan, batez ere).
2. Partaidetza edota lehiaketaren esparru geografikoa.
3. Partaidetzako egiturak.
4. Lehiaketa eraldatuen edo partaidetzakoen ezaugarri nagusiak.



### Eskola-Kirola ezartzeko gakoak: Adinak

Jarraian, zehazten dira lehiaketako partehartzaileek izan behar dituzten gutxienezko adinak (eraldatua edo partaidetzakoa eta errendimenduan hastekoa edo hautakorretan) hala nola kirolerako talentu gazteen atzemate eta teknifikazio programetarako. Adinari dagozkion aipamen guztiak (alebin, etab.) eskola kirola arautzeko 160/1990 dekretuari dagozkio.

### Eskola-Kirolaren eredia ezartzeko gakoak: Esparru geografikoa



Plan honek Eskola-Kirolaren Eredua ezartzeko irizpide sorta bat zehazten du (7.1.1.). Zehazki, bigarren irizpideak "Eskola-Kirolaren praktikak adin txikikoen ingurune naturalarekiko behar duen hurbiltasun geografikoa" aipatzen du.

Ildo honetan, euskal legeriak berak mugak ezartzen dizkie adin txikiko batek lehia dezakeen eremu geografikoei. Zehazki, ondoko esparruak zehazten ditu maila bakoitzarentzat.

Eskola-Kirolaren Batzordeak aztertuta ahal izango du distantzia minimoak ezartzeko aukera.

Nolanahi ere, aipatu Batzordeak, zehaztutako oinarritzko alderdiei eginiko edozein salbuespen onartuko du.

Oinarritzkoena adin desberdinetan ikasleek burutu behar duten jarduna ezaugarritzea da (helburuak, jolas eta lehiaketa arauak, hezkuntza programak, etab.) eta ez hau zein egitura baliatuz egiten den.

Nolanahi den ere, kirola antolatzeke egituren kalitatea eta eragileen gutxienezko trebakuntza eta behar bezalako kalifikazioa bermatu beharko da. Irizpide hau Eskola-Kirolaren Ereduaren ezarpenerako seigarren irizpidean jasotzen da zeinak "Eskola-Kirolaren programen eragile kudeatzaileen eta talde teknikoaren gutxienezko gaikuntza eskatzen baitu dagozkien titulazio ofizialen bidez".

Eragileek eskola-kiroleko programetan parte hartzen duten ikasle guztien kirol jardueraren jarraitasuna bermatu beharko dute, gainera.

Kategorien araberako mailaketa geografikoa	
Kategoria	Lehiaketa esparrua
Kadete (15-16)	Erkidegoz gaindikoa
Infantilak (13-14)	Autonomia Erkidegoa
Alebinak (11-12)	Lurralde Historikoa
Benjaminak (9-10)	Herrikoa / eskualdekoa
Aurrebenjaminak (7-8)	Ikastetxea

*Iturriak: uztailaren 28ko 3371/1994 Dekretua, eskola-kirola arautzen duen Dekretua eraldatzen duena. 2002ko martxoaren 26ko txostena: eskola-kirola Euskadin arautzeko dekretuaren edukiak, Eskola-Kirolaren Erakundeen arteko Batzordeak prestatua*



Edozein kasutan, kirol jarduerarako hastapen eta jarraitasun jardunak burutzean partaidetzako *egitura egokienak* hauek izango dira:

- Benjamin aurreko, benjamin eta hasberrien adinetan (1º urtea), *ikastetxeak*.
- Hur, kadete eta alebinen adinetan (2º urtea), *ikastetxeak, klubak eta beste kirol erakunde batzuk (KSAk, etab.)*.

Talentuen atzemate, hautaketa eta teknifikaziorako jardunak burutzeko eta Errendimendurako hastapen lehiaketetan kirol federazioak, klubak, KSAk eta beste kirol erakundeak izango dira *egitura egokienak*. Nolanahi ere, *hasberrien lehenengo urtean Errendimenduarekin lotuta burutu ahal izango den jardun bakarra neska-mutiko guztien behaketa* xumea edo kirol jarduera arruntaren kontrol teknikoa izango da.

Edozein kasutan, Eskola-Kirolaren Batzordeari dagokio *egitura horien kalitatea bermatuko duten irizpideak zehaztea*. Foru-Diputazioek aipatutako *egitura* edo eragileak egiaztatzeko ahalmena edukiko dute, irizpideak betetzen badituzte eta beraien lurralde historikoaren barnean.

Egitura egokien taula laburpena, Eskola-kiroleko kategoria eta programari begira				
Kategoria	Kirol jardueran hastea	Jarraitasuna	Errendimendurako hastapena	Atzemate eta teknifikazioa
Kadete (15-16)		Ikastetxea/Klub/ Beste erakundeak	Klub/Federazioa/ Beste erakundeak	Klub/Federazioa/ Beste erakundeak
Infantilak (13-14)		Ikastetxea/Klub/ Beste erakundeak	Klub/Federazioa/ Beste erakundeak	Klub/Federazioa/ Beste erakundeak
Alebinak (11-12)	Ikastetxea/Beste erakundeak		Klub/Federazioa/ Beste erakundeak	Klub/Federazioa/ Beste erakundeak
	Ikastetxea			
Benjaminak (9-10)	Ikastetxea			
Aurrebenjaminak (7-8)	Ikastetxea			

## 7.2. Kirolaren Euskal Eredua: Partaidetzako Kirola


### 7.2.1. Partaidetzako kirola. Zehaztapena eta erronkak

Ondokoak dira kirol jarduera mota honetan behar diren *Helburu Estrategikoak*:

- Alde batetik, gure hiritarren jardun-tasak ahalik eta maila goreneraino igo eta haiei eutsi, kirol jarduera jarrai, seguru, osasungarri eta gure ingurunea zein kultur-ondarearekin errespetutsua sustatu eta bultzatuz.
- Eta beste alde batetik, hiritar guztiei funtsezko kirol jardueretarako irismena ahalbidetuko dieten baldintza eta guneak bermatzea. Ondokoak dira oinarrizko kirol jardun hauek:
  - Atari zabalean: ibili, korrika egin eta bizikletan ibili.
  - Instalazio estalietan: igeriketa eta jardun fisiko kirolezko askotarikoak.

Helburu Estrategiko hori lortzeko *erronka* hauen garatzeari heldu behar zaio:

- Kirol azpiegituren oinarrizko sare homogeenok eguneratu, osatu eta antolatu eremu geografiko desberdinetan (udalerrri, mankomunitate, lurralde eta abarretan) kalitatezko eskaintza garatzeko horrela behar duten esparru geografikoetan koordinazio mekanismo eta erabilera partekatuko baliabideak ezarriz indarrean.
- Jardun fisiko maila altxa eta mantentzerazi nahi zaien kolektibo desberdinekin (adibidez, ikastetxeak, unibertsitateak, lanbide hezkuntzako erakundeak, enpresa, erretiratuen egoitza eta klubak, lehen mailako arreta zentroak, minusbaliatasunak dituzten pertsonen elkarteak, etab.) harremana duten eragile nagusiak, publikoak zein pribatuak, bilduko dituen itun eta lankidetzara sare bat antolatu.
- Oinarrizko kirol praktiketara hiritar guztien sarbidea ahalbidetuko duten baldintza eta guneak bermatzeko mekanismo gokiak ezartzea.



- d. Hiritarren asmo eta beharren arabera osasun eta segurtasun bermearekiko kirol zerbitzuen eskaintza dibertsifikatuaren garapena erraztea.
- e. Osasungarria eta gure ingurunearekiko eta kultur ondarearekiko errespetutsua izango den bizi-modua garatzen laguntzen duten kirol jarduerak sustatzea.
- f. Partaidetzako Kirolaren praktikarako sarbidea erraztu eta sustatzea honelako ohiturekin kontzientzia eskasena duten edo kirol jarduerarako zailtasun handienak dituzten hiritar taldeei.
- g. Partaidetzako kirolerako gutxieneko titulazio ofizialak ezartzea.
- h. Orokorrean hiritarrei zuzendutako zerbitzuen kalitatea eta segurtasuna bermatzeko mekanismo egokiak ezartzea.

Partaidetzako Kirol eredu egingarri baten garapenerako gako nagusienetako bat hiritarrak harremanak dituzten eragile nagusiekiko itun sare bat antolatzeari dagokiona da, hain zuzen ere. Eragile hauek aliatu potentzial garrantzitsuak dira hiritarrarekin duten harreman hurbilagatik eta honi jardun fisiko eta kirolezkoen eskaintza erakargarri bat hurbiltzeko baliatu behar dira, honela bere jardun maila igo eta mantentzea lortzeko.

Ondoko irudian erakusten da adibide moduan jardun maila altxarazi eta mantendu nahi zaien hiritar talde desberdinekiko harremana duten eragile desberdinekiko itun mapa posible bat. Horrela, hiru hiritar talde azaltzen dira adin tarteka sailkatuta: Gazteak, 25 eta 55 urte arteko Helduak eta 55 urte baino gehiagoko Helduak. Bakoitza eragile multzo desberdinekin dago harremanetan. Beste erakunde batzuk, hala nola Udalek, Foru Aldundiek, Eusko Jaurlaritzak edo Osasun Etxeek, adibidez, hiritar talde bat baino gehiagorekin dituzte harremanak.



## 7.2.2. Partaidetzako Kirolaren ereduaren ikuspena

Egungo Egoera		
16 urtez gorako euskal herritarren jarduera tasa		%43 <sup>1</sup> - %50 <sup>2</sup>
Adina	16-24 urte	%47 <sup>1</sup>
	25-44 urte	%43 <sup>1</sup>
	45-64 urte	%42 <sup>1</sup>
	> 65 urte	%42 <sup>1</sup>
Generoa	Gizonak	%47 <sup>1</sup> - %59 <sup>2</sup>
	Emakumeak	%40 <sup>1</sup> - %42 <sup>2</sup>
Gizarte maila	Goikoa	%52 - %46 <sup>1</sup>
	Erdikoa	%50 <sup>1</sup>
	Behekoa	%41 - %38 <sup>1</sup>
Partaidetzako Kirol Azpiegitura sarearen estaldura tasa		daturik ez
% UKEn bazkide diren herritarrak		daturik ez
Oinarrizko kirol jardueren estaldura tasa <sup>3</sup>		daturik ez
Partaidetzako kirol zerbitzuetan titulazio egokia duten profesional eta langileak		daturik ez



2007ko Ikuspena		
16 urtez gorako euskal herritarren jarduera tasa		%60
Adina	16-24 urte	%65
	25-44 urte	%60
	45-64 urte	%60
	> 65 urte	%55
Generoa	Gizonak	%65
	Emakumeak	%55
Gizarte maila	Goikoa	%65
	Erdikoa	%60
	Behekoa	%55
Partaidetzako Kirol Azpiegitura sarearen estaldura tasa		%100
% UKEn bazkide diren herritarrak		%30
Oinarrizko kirol jardueren estaldura tasa <sup>3</sup>		X
Partaidetzako kirol zerbitzuetan titulazio egokia duten profesional eta langileak		%100

<sup>1</sup> Osasun Inkesta 1997

<sup>2</sup> Bizi Baldintzei buruzko Inkesta 1999

<sup>3</sup> Atari zabalean; oinez ibili, laster egin eta txirindulan ibili. Instalazio estalietan; igeriketa, kirol eta jarduera fisiko batzuk



### 7.3. Kirolaren Euskal Eredua: Errendimenduko Kirola

#### 7.3.1. Errendimenduko Kirolaren zehaztapena eta erronkak

Errendimenduko Kirolaren ereduari dagokionez, hobetze eta lehiaketa beharrak asetzea ahalbidetuko duen kirol lehiaketa aniztasun nabarmena eduki eta sostengatzea eta ahalik eta kirolari gehienei kirol Goi Errendimendurako bidea zabaltzea da Kirolaren Euskal Sistemaren **Helburu Estrategikoa**.

Halaber, Kirolaren Euskal Sistemak kirol lehiaketa beharrezko osasun, segurtasun eta kirol etikaren parametroen barnean gara dadin arduratu beharko du.

Horretarako, **erronka** hauei helduko zaie:

- a. EAEn burutzen diren kirol *modalitateen multzoa* parametro objektiboen (erreal eta potentzialen) arabera Kirolaren Euskal Sistema kirol modalitate bakoitzarekiko monitorizatu eta lehenestea ahalbidetuko duten aurrez zehaztutako balore subjektiboak *katalogatzea*.
- b. Lehiakortasun maila desberdineko lehiaketak burutzea ahalbidetuko duen gutxieneko *kirol azpiegitura sarea* garatzea lurraldeka, arestian kirol modalitate bakoitzari buruz aipatu dugun katalogazioaren arabera lehenetsiz jardunak.
- c. Kirolari gazteei Goi Errendimenduko kirolari begira garatu eta bilakatzea ahalbidetuko dien kirol aukera zabalean burutzea *lehiaketak*, eragileen eta lehiaketa sistemaren euskarritasuna epe luzerako errazten duen aldi berean.
- d. *Kirol eragileen* (klubak, federazioak, etab.) *kopuruaren arrazionalizazioa* sustatzea Errendimenduko Kirolean euren helburu propioen lorpenean modu euskarrian aurreratzea ahalbidetuko dien kudeaketako baliabideak eta teknikoak eskura edukitzeko gai izango diren eragileak sortzeko xedez jardungo du Errendimenduko kirolean.
- e. Eragile desberdinen (federazioak, klubak, etab.) lana errazteko duten *azpiegitura teknikoak* garatzea Goi Errendimenduko etorkizuna duten kirolari gazteen garapena eta aurrerabidea laguntzerakoan.
- f. Eragile desberdinei (federazioak, klubak, kirolariak, etab.) *baliabide ekonomikoak eskuratzen* eta beraien kudeaketa ahalmena eta lankidetzaren optimizatzen lagunduko dieten mekanismoak garatzea kirol jarduera mota honen euskarritasuna bermatzeko xedez.
- g. Errendimenduko Kirolean *gutxieneko titulazio ofiziala* ezartzea.



### 7.3.2. Errendimenduko kirolaren ikuspena

Egungo Egoera	
Klub bakoitzean federatutako kirolari kopurua	45,52
Federazio bakoitzean federatutako kirolari kopurua*	906,5
% kirol titulazioko zuzendari teknikoa duten Euskal Federazioak	%60
% Zuzendari Plan Zehaztua duten kirolak EAEn	daturik ez
Titulazio ofizialeko teknikari portzentaia	daturik ez
Kirolari Promesen kopurua	daturik ez



2007ko ikuspena	
Klub bakoitzean federatutako kirolari kopurua	120
Federazio bakoitzean federatutako kirolari kopurua*	3.000
% kirol titulazioko zuzendari teknikoa duten Euskal Federazioak	%100
% Zuzendari Plan Zehaztua duten kirolak EAEn	X
Titulazio ofizialeko teknikari portzentaia	%100
Kirolari Promesen kopurua	?

\* Euskal eta lurralde federazioak guztira 196 dira

## 7.4. Kirolaren Euskal Eredua: Goi Errendimenduko Kirola

### 7.4.1. Goi Errendimenduaren zehaztapena eta erronkak

Goi Errendimenduko Kirola kirol-bikaintasunaren adierazgarri eta interes publikoko jarduera da. Izan ere, Autonomi Erkidegoko kirolaren garapenerako funtsezko faktorea da, oinarritzko kirolerako bizigarria delako eta ordezkari-funtzioa betetzen duelako, Estatuko nahiz nazioarteko eremuko kirol-lehiaketa ofizialetan, Kirolari buruzko 14/1998 Legeak dioenaren arabera.

Zehazki, kirol-jarduera honen **helburu estrategikoa** gure herrialdeko kirol-bikaintasuna handitzea izango da.

Kirol jarduera mota honen garapenean hau guztia lehenetsiko da:

1. Kirol-jarduera bideratu eta sustatzeko ahalmena,
2. Kirolaren Euskal Sistemaren baloreak sustatu eta zabaltzeko ahalmena,
3. Bere inguruko gainerako kirol-eragileen gaitasun teknikoa eta kudeatzailearen garapena bultzatzeko ahalmena,
4. Kultur eta emozio errealitate batekiko identitate eta partaidetza sentimendua garatzeko ahalmena,
5. Euskal gizartearen ahalmena azalertzeko ahalmena,
6. Epe luzean jasangarritasun ekonomikoko proiektuak garatzeko ahalmena.

Helburu estrategikoak, kirol-sistemaren eremu honetan aipatu Kirolari buruzko Legean zehaztutakoa bete-tzera bideratu beharko dira. Beraz, ondoko *erronkak* bete beharko dira: Goi Errendimenduko Kirolaren *poli-tika nazionalerako orientazioak definitu*.

Goi Errendimenduko *diziplinak* zeintzuk diren eta/edo izango diren erabaki eta onartu.

Erreferentzia-*lehiaketak* ezarri.

*Goi-mailako kirolarien zerrendak* eta zerrenda horietan sartzeko bideak egin (kirolariak, entrenatzaile-ak, epaileak eta arbitroak).

“*Goi Errendimenduko Kirolaren Agiria*” egin. Bertan, kirolarien eskubideak eta betebeharrak jasoko dira, prestatu eta lan-munduan berriz sartzeko bermeei dagozkionak barne.

*Entrenatzaileak gaitzeko* programak zehaztu.

Kirolarien errendimendua handitzera bideraturiko *azpiegitura teknikoak* sortu.

Goi Errendimenduko Kirola *sustatzeko programa* bat garatu, gure taldeek zein kirolariek beren aurka-riekin aukera-berdintasunean lehia daitezten.

#### 7.4.2. Goi errendimenduko kirolaren ikuspena

Egungo Egoera	
Nazioarteko lehiaketetan ari diren Klub Profesionalak (batezbestekoa: 1998/1999-2002/2003)	3,2
Sydney 2000ko Olinpiadetan parte hartu zuten euskal kirolariak	32
Sydney 2000ko Olinpiadetan euskal kirolariek lortutako dominak edo diplomak	3-4*
Nazioarteko Omena duten Kirol Ekitaldiak, 15 kirol estrategikoetan	X
Nazioarteko Federazioetan sartutako Euskal federazioak eskubide osoko kide gisa	1
Nazioarteko kirol ekitaldietan lehian ari diren euskal selekzioak	daturik ez
Titulazio ofizialeko teknikarien portzentaia	daturik ez



2007ko ikuspena	
Nazioarteko lehiaketetan ari diren Klub Profesionalak (batezbestekoa: 1998/1999-2002/2003)	4
Atenas 2000ko Olinpiadetan parte hartu zuten euskal kirolariak	40
Atenas 2000ko Olinpiadetan euskal kirolariek lortutako dominak edo diplomak	X
Nazioarteko Omena duten Kirol Ekitaldiak, 15 kirol estrategikoetan	X
Nazioarteko Federazioetan sartutako Euskal federazioak eskubide osoko kide gisa	X
Nazioarteko kirol ekitaldietan lehian ari diren euskal selekzioak	X
Titulazio ofizialeko teknikarien portzentaia	%100

\* Barne dago K4 arraunketa modalitatea

## KIROLAREN EUSKAL SISTEMA



8



## 8. Kirolaren Euskal Sistema: Koordinaziorako mekanismoak

Erakunde Publikoen eginkizunak Kirolaren Euskal Planean adierazitako jarraibideek bideratu beharko dituzte, eta bere eskumen-eremuen barne egingo da, hona hemen:

Kirolaren garapena zuzendu, koordinatu eta sustatu, Plan honetan jasotako balore eta helburuen arabera:

- Kirolaren Euskal Plana zabaldu eta sozializatu, eragile guztien Planarekiko identifikazio-sentimendua handitu eta gizarteari jakinarazteko asmoz.
- Kirolaren Euskal Planaren helburuak eta baloreak zabaldu, sustatu eta bultzatu.
- Planaren eta EAEn kirolaren egoera orokorraren jarraipen-sistema bat garatu.

Kirolaren Euskal Sistemaren barneko eragile ezberdinak, publiko zein pribatuak, zuzendu eta koordinatu, ezartzen diren adostasun eta koordinazio organoetan adierazitako jarraibideen arabera (Kirolaren Euskal Batzordea).

Erakundeen arteko koordinazioa zuzendu eta sustatu.



Kirolaren Euskal Sistemaren eragile ezberdinen, publiko zein pribatuen, arteko elkarlana bultzatu.

Kirolaren Euskal Eredua eta Kirolaren Euskal Sistema garatzen lagundu, bere eskumen-eremuan garapen arau-emaile eta legegile egokia betez eta Plan honetan ezarritako helburuak betetzea azpimarratzen duten kirolaren aldeko diru-laguntza programak ezarriz.

Kirolaren Euskal Planaren erakundeen arteko izaera ikusita, Osasun eta Hezkuntza Sailekin elkarlan eta lankidetzaren hitzarmen edo eremuak ezartzea funtsezkoa da, antola-tzen diren ekin-tzen arrakastarako.

---

\* Atal honen helburua ez da Erakunde Publikoek kirol arloan dituzten hiru mailei esleitutako eskumenen zerrenda zehatza aurkeztea, baizik eta, eragile publiko gisa Kirolaren Euskal Sistemaren bete behar duten eginkizuna orokorki definitzea.

## Osasuna

### Lankidetzaren arloak

- n Hezkuntza-profesionalen prestakuntza.
- n Gorputz heziketako profesionalen elkarlana, ikasleei orokorrean eta heziketa-behar bereziak dituzten ikasleei erantzunez (aldi batekoak edo iraunkorrak, bereziki).
- n Eskoletan gurasoen prestakuntza eta, kultur eta kirol elkarte-mugimenduak.
- n Komunikabideetako profesionalen prestakuntza.
- n Norbanakoari eta familiari aholkatu, laguntzarako mediku-kontsultako unean.
- n Udalekin elkarlana, jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak antolatzean, osasunerako onuragari gisa eta ohiko gaixotasunen arriskuei aurre egiteko bitarteko gisa (kardiobaskularrak, desoreka psikosomatikoak, gaixotasun osteo-artikularrak eta endekapenezkoak, e.a.).

## Hezkuntza

### Lankidetzaren arloak

- n Kirolaren Euskal Eskolarekiko elkarlana, bere zehazpenerako eta kirolarekin loturiko ikastaro eta tituluak emateko.
- n Gorputz heziketako ikasgaiaren curriculumaren inguruko azterketa eta gogoeta, hala nola, gorputz heziketako irakasleen titulazioen ingurukoa.
- n Kirol irakasle eta teknikarientzako heziketa-eskaintza baten inguruko azterketa eta gogoeta (bereziki, heziketa iraunkorrekoa).
- n Eskola-Kirolerako Koordinatzaile baten beharra aztertu, hezkuntza-zentro bateko edo gehiagoko ikasleen heziketa-eskaintza antolatzeko.
- n Eskola-orduetako eta eskolaz kanpoko kirolaren arteko koordinazio-aukera gehiago aztertu.
- n Eskola-kirolaren Liburu Zuria diseinatu eta zabaltzen lagundu: kirolari buruzko orientazioak eskola-adinean.

### Hezkuntza-zentroak

*Derrigorrezko Gorputz Heziketaaren* eginkizuna sendotu, kantitateari eta kalitateari dagokionez, irakasleen gaitze eta prestakuntza handituz eta jarduera fisikoaren heziketa-baloreak bultzatuz (osasuna, adiskidetasuna, begirunea, autoestimua, motibazioa, partehartzea, e.a.).

*Kirol-jarduera eskolaz kanpoko orduetan sustatu eta bultzatu*, ahalik eta ikasle kopuru gehienari helaraziz, kirolaren ziklo osoari erantzunez (praktikaren hastapenak, lehiaketaren hastapenak eta errendimenduaren hastapenak).

Ikasleei kirol-jardueren eskaintza minimoa ahalbidetzeko *oinarrizko kirol-azpiegiturak* garatu.

*Beharrezko baliabideak* garatu, beste eragile batzuekin elkarlanean (bestelako ikastetxeak, elkarteak, federazioak, e.a.), kirol-eskaintza handitzeko jarduera honek eskolaz kanpoko orduetan duen izaera hezigarria eta Gorputz Heziketako ikasgaiarekiko koordinazioa bermatuz.

*Kirol-instalazioen erabilera optimizatu* instalazioak, behar direnean, beste hiritar-talde batzuen esku utziz eta beste kirol-eragile batzuekin lankidetzeta-hitzarmenak eginez (“EMD” delakoak, elkarteak, federazioak,...).

### ***Kirol klubak***

Kirol-elkarteak, euren izaera juridikoa kontuan hartu gabe, euren kirolari, bazkide, zale eta gizarte-inguruaren zerbitzura dauden kirol-eragile pribatuak dira.

Beren eginkizuna, ondorioz, beren konpromisoak ahalik eta hoberen betetzeko beharrezko diren epe luzeko jarduketa-multzoa garatzea izango da (“bere izate-arrazoia”), Kirolaren Euskal Ereduan zehaztutako lau kirol-jarduera motetariko bat praktikatzen dutenekin. Erantzukizun horiek dagokien kirol-jarduera motak mugatuko ditu.

Alde horretatik, elkarteek ondokoa bete beharko dute:

- Beren helburu estrategikoak, hala nola, gizarte-inguruarekiko konpromisoak zehatz-mehatz mugatu.
- Lehentasunezko jarduketa-lerroak identifikatu, epe luzean beren helburu estrategikoak beteko dituztela bermatzeko.
- Beharrezko kudeaketa eta finantza egiturak hartu, euren kirol-helburuak betetzeko ahalbidetzen duten eta, aldi berean, finantza-baliabide nahikoak lortzea bermatzen duten beste kirol-eragile batzuekin lankidetzeta-lerroak edo aliantzak ezarriz.
- Beren helburu estrategikoekiko jarduketa koherentea eta gizarte-inguruarekiko konpromisoak mantendu, lehiaketa-sistemek epe laburrean ezar ditzaketan presioak izanda ere.

Federazioak euren kirolari, bazkide, zale eta gizarte-inguruaren zerbitzura dauden kirol-erakunde pribatuak dira.

Beharrezkoa izango da Euskadiko kirol-federazioek eta lurralde-federazioek Kirolaren Euskal Sistemari beteko duten eginkizunari buruzko gogoeta egitea.

### ***Federazioak***

#### *Eskola Kirola*

- Laguntza teknikoa, eskola-kirola antolatu eta sustatzeko.
- Laguntza teknikoa, Goi Errendimenduko lehiaketetako kirolarientzako hastapen-programak egin eta gauzatzeko, neska-mutilen hezkuntza integrala babestuz.
- Lehiaketaren hastapen-erako Eskola-kirolen federazio-baimenak igorri eta kudeatu.
- Laguntza teknikoa, gaitutako langile teknikoentzako prestakuntza planak eta ikastaroak egin eta antolatuzko (entrenatzaileak, arbitroak, monitorea, e.a.).



#### *Partaidetzako Kirola*

- Aisialdiko kirol-jarduera sustatu eta bultzatu, gizarte-eragile ezberdinak horren antolamenduaren barne sartuz eta lehiaketa-ereduak kirol-jardueraren errealitate berrira egokituz.
- Laguntza teknikoa, partaidetzako kirola antolatu eta sustatu.
- Partaidetzako kirolarientzako zerbitzuen eskaintza aurrera eraman, kirol-jarduera honen segurtasun eta kalitate baldintzak hobetzeko.
- Partaidetzako kirolarekin zerikusia duten eragileentzako zerbitzuen eskaintza aurrera eraman (enpresak, kirol-elkarteak, gizarte-elkarteak, udalak, e.a.), kirolariari eskaintzen zaizkion zerbitzuen segurtasuna eta kalitatea hobetzeko.
- Laguntza teknikoa, gaitutako langile teknikoentzako prestakuntza planak eta ikastaroak egin eta antolatzeke (entrenatzaileak, arbitroak, monitorea, e.a.).

#### *Errendimenduko Kirola*

- Lehiaketa ofizialak kalifikatu, antolatu eta baimendu, kirolari gazteak Goi Errendimendurako bidean jarri eta bertan sartzeko eta, aldi berean, parte hartzen duten elkarrekin beren Lehiaketa Helburuei erantzuteko.
- Euskal Autonomi Erkidegoko Kirola estatuko zein nazioarteko lehiaketa eta organismoetan ordezkatu.
- Federazio-baimenak igorri eta kudeatu.
- Dopatzea aurrezaindu, kontrolatu eta zigortu.
- Laguntza teknikoa, Goi Errendimendurako bidean dauden kirolarien beharrezko “continuumera-ko” prestakuntza-programak egin eta gauzatu.
- Laguntza teknikoa, gaitutako langile teknikoendako prestakuntza planak eta ikastaroak egin eta antolatu (entrenatzaileak, arbitroak, zuzendariak, federazioko agintariak, e.a.).

#### *Goi Errendimendua*

- Laguntza teknikoa, Goi Errendimenduko Kirola antolatu eta sustatzeko; bai lehiaketetan, bai kirol-gertakari zehatzetan.
- Euskal Autonomi Erkidegoko Kirola estatuko zein nazioarteko lehiaketa eta organismoetan ordezkatu.
- Dopatzea aurrezaindu, kontrolatu eta zigortu.
- Laguntza teknikoa, teknifikazio-programak eta entrenatzeko plan bereziak egiteko.
- Laguntza teknikoa, gaitutako langile teknikoentzako prestakuntza planak eta ikastaroak egin eta antolatzeke (entrenatzaileak, arbitroak, zuzendariak, federazioko agintariak, e.a.).

Orokorrean, beren erantzukizuna bazkideei balio erantsiko zerbitzuak eskaini eta kudeatzea da (kirolariei, zaleei, elkarrekin, teknikariei, ikastetxeei, zuzendariak, e.a.), beren gaitzerako onuragarri diren eta kirol-zerbitzuen eskaintza hobetzen duten baliabide eta esperientziak konpartitzea ahalbidetuz.

***Klub profesionalak eta KSAk***

Kirol emaitzak eta errendimenduak, proiektuaren beraren jasagarritasun ekonomikoaren bidez, elkarrekin bizitzea ahalbidetzen duten Estatu eta nazioarteko eremuan omen handiko kirol proiektuak eta ikuskizunak garatu.

Kirolaren Euskal Sistema garatzen lagundu (kirol-jarduera sustatu, KESren baloreak bultzatu, gainerako eragileen gaitasun teknikoa eta kudeatzeko gaitasuna garatzen lagundu, e.a.), bere erakartzeko ahalmenari probetxu aterez.

***Merkataritzako kirol zentroak eta beste kirol-eskaintzaile batzuk***

Zehazki, bere erantzukizun nagusia kirol-zerbitzuen eskaintza garatzea izango da, kalitatezkoa, lehiakorra, errentagarria eta, Kirolaren Euskal Sistemaren balore eta oinarriko printzipioak errespetatze dituen (segurtasuna, osasuna, zuzentasuna, etika, indarkeriarik eza, e.a.), bereziki, biztanleen parte-hartze-maila hobetu eta mantentzeko.

***Kirolariak***

Kirolariak, norberaren kirol-aldaera eta kirolera hurbiltzeko modua kontuan hartu gabe, tartean dauden gainerako eragileekin bat, kirol-jardueraren alderdi positiboak ahalik eta probetxu gehien atera beharko diete, Kirolaren Euskal Sistemarako zehaztutako baloreak errespetatuz. Alde horretatik, kirolariak ondo-koa eskatuko zaie:

- Beren osasuna, dibertsioa eta segurtasuna beste edozein helbururen gaineratik jartzeko, beren epe luzeko ahaleginen emaitzak beste garaipen iragankorren aldean baloratuz.
- Beren kirol-jarduera joko garbian oinarrituz garatzeko, aurkariak, taldekideak, entrenatzaile edo arbitroen agintea eta, azken batean, arauak errespetatuz.
- Ingurumenarekiko eta geure kulturarekiko begirunea agertzeko, euren kirol-jardueran zehar.
- Ordezkatzen duten taldea duin bihurtzeko, bere motibazio, ahalegin, hobetzeko gogo eta kirolaren balore positiboekiko adeitasunezko jarrera dela medio.

***Komunikabideak***

Kirol-izaerako gertakari nagusiak hedatzen eta zabaltzen lagundu eta, batez ere, euskal gizarterako garrantzi berezia dutenena bermatu.

Kirolaren Euskal Sistemaren eragileen ekimen eta parte-hartzea ezagutarazten lagundu, informazio eta zabaltze programazioaren bidez.

Kirol-arloko informazio eta zabaltze edukien garrantzia pixkanaka handitu.

Euskararen erabilera sustatu, kirol gertakari eta jardueren informazio eta zabaltzearen bidez.

Lurralde eta/edo toki izaerako edukien eskaintza aurrera eramanez, oinarriko parte-hartze eta lehiaketako kirol-praktikez informatu eta horiek zabaltzeko.

Kirola sustatu, Euskadin interes gehien duten kirol-gertakarien informazio eta zabaltzearen eta euskal kirolaren informazio arretaren bidez.

Euskal selekzioa eta euskal kirolari zein taldeak jarraitu, nazioarte-mailan garrantzia duten kirol gertakari edo ekintzetan.

Kirol Eredua eta Kirolaren Euskal Sistema azaleratzen lagundu, euskal gizartearen gaitasun eta kultura transmititzeko bitarteko gisa.

Kirolaren Euskal Sistemaren baloreak eta lorpenak zabaltzen lagundu, kirol-jardueraren balore positiboan zabaltzeari lehentasuna emanez (partehartzea, elkarlana, kohesioa, hobetzea, dibertsioa, emaitzak, e.a.) eta, zenbaitetan eskaintzen dituen fenomeno negatiboetatik aldenduz (istiluak, indarkeria, dopinga, e.a.).

### ***Beste gizarte-eragile batzuk***

Aurreko ataletan aztertu ez ditugun kirolarekin loturiko gainerako eragileak, orokorrean, Kirolaren Euskal Sistemarekin elkarlanean arituko dira, partehartzeko kirol-jardueraren sustapen eta hurbilketarako, bere kideen garapen pertsonalerako bitarteko gisa, hala nola, bere proiektuaren eta gizarte-masaren elkartze-elementu gisa.

### ***Unibertsitatea-SHEE-Lanbide Heziketa***

Kirol-jarduera antolatu eta bultzatu, euren unibertsitate-eremuan bertan.

Erakunde Publikoei lagundu, Euskal Autonomi Erkidegoaren eremuan, unibertsitateko kirol-jarduerak antolatzen eta koordinatzen.

Lehiaketetan, euskal kirola ordezkari dezaketen kirol-taldeak aurrera eraman.


Kirolarekin loturiko arlo ezberdinen ikerketa zientifikoaren garapena sustatu.




Hainbat arlotan prestakuntza-zerbitzuak garatu: irakaskuntzan, zuzendaritzan, kudeaketan, entrenamenduan, animazioan eta kirolarekin loturiko beste edozeinetan.


Kirolaren Euskal Eskolarekin elkarlanean aritu.


**Kirolaren Euskal Kontseilua (KEK):** Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-politikari eragiten dioten gaietan aholkularitza emateko, kontsulta eta jarraipena egiteko eta eztabaidatzeko herriadministrazioen arlo-organo nagusia da eta, Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailari atxikitzen zaio.



Iturria: K Consulting etxearekin batera Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako txostenra







KEK honela dago antolatua: Osoko Bilkura edo Batzarra, Batzorde Iraunkorra eta Berariazko Batzordeak:

- *Osoko Bilkurak* kirol-munduarekin lotura estua duten hainbat eragile publiko zein pribatu ordezkatzan ditu. Bere zeregin nagusiak ondokoak dira: kirol-politika orokorrerako jarraibideak proposatzea, lege-mailako xedapen-proiektuei buruzko irizpenak eta kontseiluaren urteko jardueraren memoria onestea. Horrez gain, Batzorde Iraunkorreko kideak izendatzeaz arduratzen da.
- Bestalde, *Batzorde Iraunkorra* Berariazko Lan-batzordeak eratzeaz arduratzen da. Bere erantzukizun nagusiak honakoak dira: KEKren lehentasunen egutegia egitea, federazioen eraketari buruzko txostenak onestea, kirol-motak kalifikatzea, ekipamendu-eroldaren goi errendimenduko kirolari/entrenatzaile/ epaileei buruzko irizpideak mugatzea eta, azkenik, osoko bilkurak onesteko ikerketa edo txosten espezifikoak egitea.
- Azkenik, *Berariazko Batzordeak* Batzorde Iraunkorrek eskuordetzen dizkien gai jakinei buruzko txostenak aztertzen eta egiten saiatzen dira. Zehazki, honakoak proposatzen dira:
  - *Osasun Batzordea*. Hau kirol-osasunerako politika zehazteaz arduratuko da: kirol-jarduerarekin loturiko lesioak aurrezaintzea, kirolariendako osasun-laguntza, dopingaren aurkako politika, *eskola-eroldaren eta osasun-sistemaren arteko elkarlana derrigorrezko curriculumean, diziplina anitzeko taldeetan, e.a.*
  - *Azpiegituren Batzordea*. Bere zeregin nagusia, herrialdean, kirol-azpiegituren sare bat garatu, mantendu eta kudeatzeko eredu bat zehaztu eta ezartzea izango da.
  - *Eskola-kirolaren aldeko Batzordea*. *Eskola-kirolaren Eredua ezartzeaz* arduratuko da, Eskola-kirolaren Euskal Eredua homogeen baten eta horren egokitzapenaren, lurralde historiko bakoitzaren berezko ezaugarriekiko, bizikidetzat bateragarri eginez.
  - *Prestakuntza eta Enplegurako Batzordea*. Honek, burutzen ari diren kirol-prestakuntzaren arloko politikak monitorizatu beharko ditu, beren onginahia eta arlo honen lan-merkatuaren beharrekiko hurbiltze-maila aztertze asmoz. Horretarako, lan-merkatuaren, enplegatzaileen eta hezkuntza-zentroen arteko harremanak ezartzeaz arduratuko da.

**Sustapen Olinpikorako Euskal Batzordea:** Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailari atxikita dagoen organo independentea da. Bere helburua mugimendu olinpikoa garatzea, ideal olinpikoak zabaltzea eta euskal kirolariak Joko Olinpikoetarako prestatzea daitezen, haietan parte hartu eta ordezkari izan dezaten sustatzea da.

**Kirol Justiziarako Euskal Batzordea:** Euskal Autonomi Erkidegoko kirol justizia arloko administrazio-organoa nagusia da. Bere erantzukizun nagusia ondokoa da: Kirolaren Euskal Sistemaren diziplinazko edo antolamenduzko erabakietatik eratorritako kirol-eragile ezberdinen artean sortzen diren errekurtso eta arazo desberdinak ezagutu eta ebaztea (hauteskunde-batzordeak, lehiaketa ofizialak, federazio-baimenak, e.a.).

**Kirolaren Euskal Eskola:** Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailari atxikitako administrazio-zerbitzu bat da. Bere zereginak Kirolaren Euskal Sistemaren teknikari, zuzendari eta epaileen prestakuntza-programak planifikatu, koordinatu eta antolatzea, hala nola, ikerketa kirol-teknikorako programak sustatu eta bultzatu eta, beren emaitza zabaltzea dira.



**Kirol Medikuntzaren Euskal Zentroa:** Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailari atxikitako administrazio-zerbitzu bat da. Bere zeregin nagusiak EAEko kirol-jarduera guztien kirol medikuntzaren zerbitzua planifikatu, antolatu eta koordinatzea eta, arlo honetan ikertzea dira.

Zehazki, Goi Errendimenduko kirolariak kontrolatzeaz arduratuko da. Erakunde publiko zein pribatuei aholkularitza tekniko eskainiko die, izaera ezberdineko kirol-programak egiteko (batez ere, goi errendimenduko kirolari loturikoak).

Azkenik, Autonomi Erkidegoko dopatzearen aurkako kontrola planifikatu eta kudeatzeaz arduratuko da.

**Kirol Medikuntzaren Zentroen Sarea:** Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek bultzatuko duten kirol medikuntzan espezializatutako laguntza-unitateen sare bat eratzean datza.

**Kiroleko indarkeriaren aurkako Batzordea:** Eusko Jaurlaritzako, Foru Aldundietako, Udaletako, kirol-federazioetako hainbat ordezkari eta, kirol eta segurtasunaren arloan ospe handiko pertsonak, hala nola, euskal unibertsitateetako zientzi arloko ordezkariak osatutako organoa da. Bere helburua Kirolaren Euskal Sistemaren barneko eragile guztiek, kirolean indarkeriaren kontrako oinarritzko etikara betetzea da. Horretarako:

- Indarkeriaren egoera EAEn ospatuko diren kirol-lehiaketetan monitorizatuko du.
- Kirol-indarkeriaren arrazoi eta ondorioei buruzko txostenak eta ikerketak egingo ditu.
- Aurrezaintzeko ekintzak sustatuko ditu, batetik, gomendioak kirol-elkarteei, taldeei, kirol-federazioei, kirol-antolatzaile eta kirol-instalazioen jabe diren erakunde zein pertsonaei helaraziz; eta bestetik, kirol-lehiaketa, kirol-diziplina eta kirol-instalazioen arloko xedapen-proiektuei buruzko informazioa zabalduz.

**Unibertsitateko Kirolaren Euskal Batzordea:** EAEko unibertsitatean egiten diren unibertsitateko kirol-jarduerak antolatu eta koordinatzen dituen aholkularitza-organoa da.

**Kirolaren Euskal Behatokia:** Organismo honen eginkizuna Kirolaren Euskal Sistemari buruzko informazio guztia jaso eta zabaltzea da.

**Tokiko itunen Sarea:** Beren jarduketa fisikoko maila handitu nahi duten elkarteekin loturiko eragile publiko zein pribatuen arteko lankidetzak-hitzarmen eta eremuen multzoa da (ikastetxeak, unibertsitateak, lanbide-heziketako erakundeak, enpresak, jubilatuen egoitzak eta elkarteak, oinarritzko laguntza zentroak, minusbaliatuen elkarteak, e.a.).

LEHENTASUNEZKO PROGRAMAK





# lehentasunezko programak

Guztira, Kirolaren Euskal Planean zehazten diren ekintza ildoak Lehentasunezko zortzi Programen inguruan egituratzen dira. Hona hemen:

1. *Eskola-Kirolerako Programa*: Eskola-Kirol Eredu bat garatzeari zuzendutako ekintza ildoei buruz mintzatzen da; eredu honek haurrak jarrai ditzakeen kirol-bide ezberdinak orekatuko ditu, ahalik eta haur gehienengan kirol ohitura osasungarria sortzeko asmoz.
2. *Kirola Indartzeko eta Areagotzeko Programa*: Bai kirol ekintzatan eta ekintza fisikotan, euskaldunon partehartze maila mantentzeko eta handitzeko, baita Euskal Kirol Ereduaren baloreak indartzeko, zuzendutako ekintza-ildo multzoaz osaturik dago.
3. *Kirol Bikaintasunerako Programa*: Programa hau ekintza-ildo multzoa batek osatzen du. Ekintza-ildo hauek, kirol norgehiagoka mota garrantzitsu baten izatearen eta mantentzearen garantizatea bilatzen dute; honek,
  - a) Gure kirolarien gainditze eta lehiatze beharrak aseko ditu.
  - b) Euskal Kirol Sistemaren eta euskaldun guztion arrakasta internazionala lortzea ekarriko duen etekin handiko kirol emaitzak lortzea bultzatuko du.
4. *EAEko Kirol Azpiegiturak eta Ekipamenduak ahalik eta hobekien erabiltzeko Plana*.
5. *Prestakuntza, gaikuntza eta Akreditazio Programa*: EAEko Kirol titulazioen mapa definitzera eta Euskal Kirol Sistemaren eragilean prestakuntza eta profesionalizazio maila handitzeko zuzendutako ekintza-ildo multzoa da.
6. *Kanpo Islapen Programa*: Euskal gizartearen gaitasunaren, garapen mailaren eta kulturaren kanpo islapenaren gailu bezala kirolaren erabilera bilatzen duten ekintza-ildoak dira.
7. *Kirol eta Kultura Programa*: Kirolaren esparruan, euskal errealitate kulturalaren indartzea bultzatzeko ekintza-ildoak barneratzen ditu.
8. *Euskal Kirol Ereduaren eta Euskal Kirol Sistemaren Informazio, Jarraipen eta Ebaluaketa Programa*: EAEko kirolaren egoeraren eta egungo Euskal Kirol Planean agerturiko helburuen betetzearen monitorizazioaren analisiari eta ezagutzari zuzendutako ekintza multzoa.

Nabarmendu beharra dago Lehentasunezko Programa hauek elkarren artean itxiak ez direla; beraz, Ekintza Ildo asko elkarren artekoak dira edo elkar-erlazioz daude.

Aipatzen zen lehentasunezko Programen arteko elkar-erlazioaren adibide bat, Programa horien eta Kirolaren Euskal Planean definituriko lau helburu estrategikoen arteko elkarrekotasuna aztertzerakoan topa daiteke. Ondoko koadroan ikus daitekeen bezala, Programa ezberdinen eta helburu estrategikoko zehatz baten artean nolabaiteko baterakidetasuna dago; honela, adibidez, Programa guztiak Kirolaren Euskal Sistemari dagokion helburuarekin erlazioz daude. Ez da harrizkoa, beraz, programa ezberdinen ekintza ildoek, a priori, elkarren artean bat etortzea.

Hala eta guztiz ere, eta programa ezberdinen eta ekintza ildoen erantzukizunaren planifikazio eta esleipena hobetzeko, programa ezberdinetan ekintza horiek ez errepikatzeko esfortzua egin dugu.

Lehentasunezko Programen eta Helburu estrategikoen arteko harremana							
Lehentasunezko Programak	Helburu Estrategikoak	Kirolaren Euskal Eredua			Kirolaren Euskal Sistema	Eskaintza Kalitatea	Kanpo islapena eta identitatea
	Eskola Kirola	Partaidetzako Kirola	Kirol Errendimendua	Goi mailako Errend. kirola			
P.1. Eskola-Kirola							
P.2. Kirolaren sustatze eta bultzatzea							
P.3. Kirol Bikaintasuna							
P.4. Prestakuntza, Gaikuntza eta Akreditazioa							
P.5. Kirol Azpiegituren eta Ekipamenduen optimizatzea							
P.6. Kanpo Islapena							
P.7. Kirola eta Kultura							
P.8. KEaren eta KESren Informazio, Jarraipen eta Ebaluaketa							



9.1. Eskola-Kirolaren eredia

Kodea	Jarduketa-ildoaren izena	Egin daitezkeen Ekintzak
P1-01	Eskola-Kirolaren Euskal Eredua	<p>Definituriko ereduarekin bat egiten duen orekaturiko kirol zerbitzu eskaintza bat lantzea eta garatzea, honako hau barneratuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehiaketa esparrutik kanpoko gorputz eta kirol ekitaldi eta jarduera orokorrak</li> <li>• Lehiaketa eskema baten barne, ikasleei kirol-ohitura mantentzeko beren eskolatzearen amaiera arte, aldatuak dauden lehiaketak antolatzea edo partehartze mugatua ez duten lehiaketak antolatzea</li> <li>• Lehiaketa selektiboak</li> </ul> <p>Talentu identifikaziorako programa bat definitu eta martxan jarri, honen bidez, ikaslearen hezkuntzaren eskubideak eta interesak mantenduz, goi mailako kirolean nolabaiteko arrakasta-etorkizuna izan dezaketenean kirolari gazteak hautatzeko. Programa hau, lurraldeko teknifikazio unitateen bidez eta HTZren bidez garatuko da.</p> <p>Eskola-Kirolaren Dekretua garatu.</p> <p>Euskadiko Kirol-Jokoak.</p>
P1-02	Gorputz heziketa eta bere koordinaketa Eskola-Kirolaren barnean	<p>Gorputz heziketaren ikasgaiaren edukia berrikusi eta berritu, beharrezkoa bada, Eskola-Kirolaren Eredua azaltzen dituen helburuen arabera eta ikasgaiaren beste helburuen arabera.</p> <p>Ikastorduetan eta ikastorduetatik kanpo, eskola-kirolaren programen arteko koordinaketa mekanismoak definitu eta martxan jarri, bi programatan profesionalen barneratzea erraztuz, haurren jarraipena bultzatzeko.</p> <p>Eskola-Kirolaren programak, Zentroko Kurrikulo Proiektutan eta Zentroko Urteko Planean barneratu.</p> <p>Gorputz heziketarekin eta kirola egitearekin erlazionaturik dauden jarduketan eta materien hezkuntzaren eta berrikuntzaren esparruan, Hezkuntza Zentroen garapenerako, hezkuntza eta sentikortze programak garatu.</p>
P1-03	Eragile giltzarriekin lankidetzan inguruak eskola-kirolean	<p>Euskal Kirolaren Kontseiluaren lan batzorde gisa, Eskola-Kirolaren Batzordea sortu; bere funtzio nagusia, Eskola-Kirolaren Euskal Eredua ezarpenaren jarraipena da.</p> <p>Klubak, KSAen, eta beste kirol entitateen, elkarten, babesleen, aisialdirako haur eta gazte elkarten, eskola-zentroen, Udalen eta Foru Aldundien arteko lankidetzak akordioak garatzea; helburua, ikasleen artean kirola eta jarduketa fisikoa indartzea da.</p> <p>Gorputz heziketaren profesionalen eta Osasungintza Profesionalen arteko komunikazio protokoloak sortu.</p> <p>Gorputz heziketaren profesionalen eta Osasungintza Profesionalen arteko lankidetzak esparruak ezartzea; helburua, Eskolako kirol-eskaintzaren kalitatea handitzea eta bi esparru horietako profesionalen ezaugarriak konpartitzea da.</p> <p>Eusko Jaurlaritzaren Osasungintza eta Hezkuntza Sailekin lankidetzan, Eskola-Osasuna Programaren barne, Hezkuntza Zentroan jarduketa fisikoaren bultzatzearen ekinaldia egitea; ekinaldi honen barne, irakasle profesionalentzako hezkuntza moduluak egongo dira, baita GEentzako, boluntarioentzako, eta abarrentzako ere.</p> <p>Eskola-Kirolaren Bertako Koordinatzailearen irudia poliki-poliki ezartzea; honek bere inguru geografikoan kirol-eskaintza indartuko du, lehen aipaturiko esparru-akordioaren filosofia eta edukia bere inguruko errealitatean gauzatuz.</p> <p>Eskola-Kirolaren indartze ekinaldi bat garatzeko Euskal Batzorde bat sortu, Kirolaren Bidezko Hezkuntzaren Europar Urtearen esparruaren barne (Eskola-Kirolaren Liburu Zuria diseinatu eta banatu; honen barne, kirola egiten hasteko ekintzei buruzko gomendioak, aldatuak dauden lehiaketei edo partehartze lehiaketei buruzko gomendioak, kirol jarduketaren jarraipenari buruzko gomendioak eta ekoizpenari hasiera emateko gomendioak izango ditugu).</p>

P1

## 9.2. Kirola Sustatu eta Indartzea

P2

Kodea	Jarduketa-ildoaren izena	Egin daitezkeen Ekintzak
P2-01	Partaidetzako Kirola sustatzea	<p>Jarduketa fisikoaren eta kirolaren bultzapenerako ekinaldi baten definizioa, honek osasunerako dakartzan abantailak barne. Ekitaldi honek, Kirolaren Euskal Sistemaren barne dauden eragile guztien lankidetzatza izan beharko luke, publikoak nahiz pribatuak, batez ere komunikabideen lankidetzatza.</p> <p>Jarduketa fisikoaren handitzea behar duten kolektiboak identifikaturik daudenean, kirol eta jarduketa fisikoaren eskaintza zehatz baten garapena bultzatu. Honetarako, kolektibo horien barne onarpen handien izan dezaketen kirolak eta beren bizi-ohiturekin bateragarritasun handien duten kirolak aukeratu beharko ditugu, beren osasuna eta segurtasuna bermatuz. Kolektibo horien artean, honakoak ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 16 urtetik gorako gazteak (hezkuntza derrigorrezkoa eta gero)</li> <li>• Zahartzaroa</li> <li>• Emakumeak</li> <li>• Egoera okerranean dauden klase sozialak</li> <li>• Pertsona minusbaliatuak</li> </ul>
P2-02	Partaidetzako kirolaren indartzea eta garapenean, Eragile Giltzarriekin lankidetzatza eta itun sarea	<p>KEsaren eta lehen aipatu ditugun kolektiboekin harremanetan dauden eragile giltzarrien artean lankidetzatza iraunkorrek garatzea; helburua, hauetariko bakoitzaren neurriko partaidetzako kirolen eskaintza indartzea da. Eragile hauek, besteak beste, hauek izan daitezke: institutuak, eskolak, unibertsitateak (Unibertsitate Kirolaren Euskal Kontseilua), klubak, KSAK, entitate elkargarriak eta aisialdirako entitateak, elkarteak (dirulaguntza ildo zehatzak elkartetara bideratu, partaidetzako kirolaren garatzea eta indartzean parte hartu dezaten), Udalak, hiri-zentroak eta Foru Aldundiak, enpresaburuen elkarteak eta ugazaberiak, zaharren egoitzak, emakumearen bultzapenerako zentroak, pertsona minusbaliatuen elkarteak, lanbulegoak, etorkinen babeserako zentroak, GKEK, e.a.</p> <p>Partaidetzako kirolen bertako jardunbideen zabalitze sarea garatzea.</p> <p>Udalek, Eskola-Kirolaren Bertako Koordinatzailearen irudia ezartzea; honek bere inguru geografikoan kirol-eskaintza indartuko du, lehen aipaturiko esparru-akordioaren filosofia eta edukia bere inguruko errealitatean gauzatuz.</p> <p>Partaidetzako kirolaren indartzearen eta antolaketaren esperientzia arrakastatsua dituen txosten bat prestatzea.</p> <p>Hezkuntzaren eta Kirolaren profesionalen arteko lankidetzatza esparruak ezarri; helburua, partaidetzako kirolaren eskaintzaren kalitatea handitzea eta bi esparru horietako profesionalen ezaupideak zabalitzea da.</p> <p>Txartel mankomunatu bat sortu, Euskadiko Udal ezberdinen, eskualde zehatz baten, eta abarren kiroldegia eta udal-kirol instalazioetan sartzeko; hauetan, baliabide hobereenen bidez, oinarritzko kirol-zerbitzuak bermapena emango da.</p>
P2-03	Osasungintza eta Hezkuntza Sailekin Lankidetzatza esparruak	Eusko Jaurlaritzako Osasungintza eta Hezkuntza Sailekin lankidetzatza eta elkarlan akordioak garatu kirola bultzatu eta indartzeko.
P2-04	Euskal Kirol Ereduaren printzipio eta balore orokorrak indartzea	<p>Kiroleko Indarkeriaren aurkako Batzordea sortu.</p> <p>Kirol Justiziako Batzordearen jaiotzea.</p> <p>Dopingaren prebentziorako eta kontrolerako sistema bat garatu Kirolaren Euskal Sistemari.</p> <p>Kirol zehatz batzuk egiteko, beharrezkoak diren osasun-azterketen dekretu bat garatu (lehiaketa eta partehartze esparruan).</p> <p>Kirol Medikuntzaren Euskal Zentroa diseinatu, indartu, arautu eta garatzea.</p> <p>Kiroldegietan eta udal-kirol instalazioetan sartzeko planari buruz indarrean dagoen arautegiaren egokitzaren prozesuak osatu.</p> <p>Komunikabide pribatuen kirolen emankizunaren portzentaia bat kirol egokituaren hedapenerako eta indartzerako gorde.</p> <p>Adin-txikikoen babesaren inguruan erakunde eskudunekin lankidetzatza esparruak garatu, kirol esparruak tratamendu zehatz bat izan dezan.</p> <p>Adin-txikikoak Babesteko Gutuna zabaltea.</p> <p>Boluntarioen planean inplikaturiko eragileekin lankidetzatza esparruak garatzea, kirol esparruak tratamendu zehatz bat izan dezan.</p>
P2-05	Kirola eta Emakumea	<p>Programa zehatz bat garatzea, kirolean emakumearen partehartzea handitzeko, GFaren "Itxaso" ikerketatik lorturiko ondorioak kontutan izanda. Neurri ezberdinen artean, honakoak ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Elkartean, KSAetan eta kirol entitateetan, orokorrean, erantzukizun lanpostuetan lan egiteko emakumeen kontrataziorako laguntza ekonomikoak diseinatu, garatu eta indartu</li> <li>• Emakumezko kirolarien / epaileen / jokozainen edo entrenatzaileen lizentzia portzentaia handia duten elkartei, klubei, KSAei eta kirol entitatei, orokorrean, dirulaguntza ildo bereziak zuzentzea</li> </ul>

9.3. Kirol Bikaintasuna

P3

Kodea	Jarduketa-ildoaren izena	Egin daitezkeen Ekintzak
P3-01	Kirolak eta Kirolariak lehenestea	<p>Goi mailako kirolaren politika nazionalerako biderapenak definitu.</p> <p>Goi mailako kirolak zeintzuk diren edota izango diren zehaztu eta onartu, kategoria horren barne identifikatzeko irizpideak ezarriz.</p> <p>Erreferentzi konpetentziak zehaztu.</p> <p>Goi mailako kirolarien zerrendak egin, baita zerrenda horietara heltzeko bideak zehaztu ere (kirolariak, entrenatzaileak, epaileak eta jokozainak).</p> <p>“Goi mailako Kirol-Gutuna” landu; honetan, kirolarien eskubide eta betebeharrak zehaztuko dira, baita hezkuntza eta birgizarteratze profesionalaren bermeei dagozkionak ere.</p>
P3-02	Etorkizuneko eta goi mailako kirolarientzat, azpiegitura teknikoak, ekonomikoak eta giza azpiegiturak	<p>Goi mailako kirolarientzat eta etorkizuneko kirolarientzat zabaltasun handiko laguntza programa definitu eta garatu, goi mailako kirolarien hezkuntza eta lan-birgizarteratze programak barneratuz.</p> <p>Goi mailako kirolarien eta etorkizuneko kirolarien entrenamendu eta prestakuntza beharrek baterakide den arauturiko hezkuntza-eskaintza bat sortzeko posibilitateak ikertzeko asmoz, Hezkuntza Sailarekin batera, lantalde bat eratzea (“Kirola eta Ikerketa”).</p> <p>Kirol ekintza mota honetako entrenatzaile, epaile eta jokozaintzat, hezkuntza programa zehatzak definitzea.</p> <p>Erakunde publikoen, elkarten eta klubuen, KSAen eta, orokorrean, beste kirol elkarten artean (batez ere profesionalak), teknifikazio programak definitzea eta garatzea.</p> <p>Klubuen, KSAen, kirol elkarte orokorren, elkarten, beste zentro eta erakundeen artean, ezagutzaren truke-mekanismoak definitzea eta garatzea, goi mailako euskal kirolean inplikaturiko eragile guztien teknifikazio maila handitzeko asmoz.</p> <p>Hobekuntza Teknikoaren Zentroaren (HTZ) funtzioak erregulatzea eta bere Zuzendaritza Plana Garatzea.</p> <p>Lurraldeko Teknifikazio Unitateen eraketa bultzatzea, baita HTZrekin bere lankidetzara esparrua bultzatzea ere.</p>





## 9.4. Prestakuntza, Akreditazioa eta Gaikuntza

Kodea	Jarduketa-ildoaren izena	Egin daitezkeen Ekintzak
P4-01	Kirolaren Euskal Eskola	<p>“Escuela Vasca del Deporte – Kirolaren Euskal Eskola” diseinatzea, erregulatzea eta martxan jartzea.</p> <p>Titulazio eta Akreditazioen mapa eratzea, hezkuntza planak eta unibertsitateko titulazioak berrikusiz, eskaera sozialei egokituz, eta etengabeko hezkuntza-programak diseinatzea, jarduketa fisikoan, osasunean, kudeaketan eta ikerketan titulaturik daudenen artean balioaniztasun handiagoa ziurtatzeko. Mapa honek eduki honako edukia izango du behintzat:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Monitorean, entrenatzaileen, hezitzaileen eta Eskola-Kirolaren beste lanpostuen titulazioak</li> <li>• Partaidetzako Kirola egiten duen biztanleria zaintzen duen Kirol monitore eta entrenatzaileentzako hezkuntza-programak</li> <li>• Kirol erakunde eta elkarteetan, lan zehatzak burutzeko beharrezkoak diren gutxieneko titulazio-beharrak eta edukiak definitzea, erregulatzea eta garatzea. Kirol entitateetako buruen estatutua definitzea, erregulatzea eta garatzea</li> <li>• Kirol elkarte eta elkargo ezberdinetako buruentzat, kudeaketa-hezkuntza programak sortzea; hauen bidez, buruek, merkatuan baliabide gehigarriak bilatzeko eta lortzeko, eta jada dituzten baliabideak optimizatzeko ezaupideak bereganatuko dituzte</li> <li>• Boluntarioen hezkuntzarako programa zehatzak garatzea</li> <li>• Sortzen diren beste kirol ekintzekin erlazionaturiko titulazioak eta hezkuntza (kirol turismoa, ...)</li> </ul> <p>Kirol teknikarien eta buruen etengabeko hezkuntzari zuzendutako teknifikazio eta espezializatzeko programak bultzatzea.</p>
P4-02	Kirolaren Euskal Sistemaren Eragile Giltzarriekin kudeatzaileak profesionalizatzea	<p>Kirol elkarte eta elkargoetako eta beste funtsezko eragileetako buruen eta administrari eta teknikari langilearen kontratatzeari eta profesionalizatzeari zuzendutako zerga-laguntzak garatzea.</p> <p>Lana eta kirola programa: Kirolaren Euskal Sistemaren lanpostu berrien indartze programak garatzea, eta egungo lanpostuen mantentze ekonomiko eta bideragarritasun ekonomikoaren programak garatzea.</p> <p>Lan-erlazio esparru orekatu baten garapena indartzea.</p> <p>Elkarte, klub, KSA, eta, orokorrean, kirol entitateen edo buruen saritze edo eskertasun prozesu bat diseinatzea eta garatzea, elkarte horien kudeaketan “ekintzarik hoberenak” (edo bikainak) egin dituztela onartzerakoan; baita ere, baliabideak lortzeari edo baliabideen erabilerari dagokionez, elkarteen, klub, KSAen, eta, orokorrean, kirol entitate ezberdinen ezaupideak trukatzeko eta hobetzen uzten duen sistema bat diseinatzea eta garatzea.</p> <p>Elkartetan, klubetan, KSAtan, eta, orokorrean, kirol entitateen praktikak egiten dituzten unibertsitateko ikasleei ikasketa kredituen edo beken ematea bultzatzea (enpresa administralgoan, lan teknikoetan, e.a.).</p> <p>Arau multzo baten zertifikatu bat sortzea kirol-elkarteen kudeaketarako, “ISO”-aren antzekoa. Maila edo eskala ezberdinak izango lituzke, faktore ezberdinen arabera: erabiliko duen publikoak, erabili beharreko instalazioak (arrisku maila, ...) e.a.</p> <p>Elkarteei, klubei, KSAei, eta, orokorrean, kirol entitateei, estrategia planak eta kudeaketa ereduak egiten laguntzen/bideratzen dien zerbitzu bat ezartzea.</p> <p>Kirolean aplikagarria den teknologia behar duten kirol ikerketa eta garapen programetan, finantza-lankidetzaren planak definitzea eta garatzea.</p>
P4-03	Kirolaren Euskal Sistemaren Eragile Giltzarriekin finantza-gaitasuna indartzea	<p>Kirol mota guztien mezenasgoa eta babesa erakartzen duen zerga-neurri multzo bat lantzea.</p> <p>Euskal kirolaren mutua baten bideragarritasun ikerketa bat lantzea.</p> <p>Kirol proiektuentzat kreditu bigun baten bidezko finantzaketa sistema bat definitu eta garatu, hauen bideragarritasunean eta eskatzailearen bermetan oinarriturikoak.</p>
P4-04	Kirolaren Euskal Sistemaren, Goi mailako Kirolean Elkarteen eta Kluben eginkizuna hausnartzea	<p>Kirolaren Euskal Sistemaren, mundu federatiboari buruzko hausnarketa orokor bat garatzea, baliabide komun baten baterakuntza eta ustiapen proiektuak eta finantzaketa iturri berrien esku-raketa proiektuak indartuz.</p> <p>Klub, KSA, eta, orokorrean, kirol entitateen barne, Kirolaren Euskal Sistemaren betetzen duten paperari buruzko hausnarketa bultzatzea, baliabide komun baten baterakuntza eta ustiapen proiektuak indartuz.</p> <p>Kirol elkarteekin kontratu-programak garatzea, beraz, Kirol elkartei zuzendutako dirulaguntzak erregulatzen dituzten arauak berrazalduz. Dirulaguntza hauek, irizpide argi, objektibo eta aurrezarrietan oinarrituriko diren laguntza ildo ezberdinen bidez artikulatu beharko ditugu. Hauek, gainera, ikuskorra izan daitezkeen etorkizuneko planetan (zenbait urtetakoak) egon beharko dute oinarriturik. Planteatutako helburuek, KESak jarraitzen dituen helburuekin bat egin beharko dute: kirol modalitateen lehentasuna, kirol ekintza mota guztienganako arreta-hauek bakoitzean rol edo erantzukizun zehatzak betetzeko, baliabideen erabileran arrazionalizazioa eta eraginkortasuna, e.a.</p>

P4

### 9.5. Kirol Azpiegiturak eta Ekipamenduak ahalik eta hobekien erabiltzeko Plana

Kodea	Jarduketa-ildoaren Izea	Egin daitezkeen Ekintzak
P5-01	EAEko Kirol Ekipamenduen eta Azpiegituren Zerrenda eta Plana	<p>Kirol instalazio eta ekipamenduen errolda bat landu eta erregulatu, hiru lurralde historikoen errolden instalazioen konparaketa irizpideak batuz.</p> <p>Eskola zentroetan eta unibertsitateetan dauden kirol-instalazio publikoen optimizaziorako proiektu bat garatzea: zentro publikoekin eta beste eragileekin (erakundeak, klubak, KSAk, orokorrean, kirol entitateak, elkarteak) lankidetzaz esparruak ezartzea, zentro horietako kirol-instalazioen erabilera optimizatzeko.</p> <p>Eskaintzaren analisi bat garatzea (instalazioen mapa), baita maila ertaineko eta goi mailako kirol instalazioen eskaerarena ere (goi mailako kirol-zentroen sarea definitu, erregulatu eta hedatu). "Interes Nazionalako Instalazio Errolda".</p> <p>Elkarteen, klubuen, KSAen, orokorrean, kirol entitateen, Udalen eta udal Patronatuen arteko akordioak definitu eta ezarri, lehiakor maila ezberdineko lehiaketak garatzeko nahikoak den gutxieneko azpiegitura kopurua bermatzeko asmoz, aurretik ezarritako neurketaren arabera modalitate ezberdinei lehentasuna emanaz.</p> <p>Kirol azpiegituren eraiketari eta kudeaketari dagokionez, kirolarengan eragina duen arautegi multzoa bildu eta argitaratu.</p> <p>Azpiegitura Zuzendaritza Plana eta EAEko kirol ekipamenduak garatu.</p> <p>Kirol zentroen araudi-erregulazioa garatzea.</p>

P5

### 9.6. Kanpoaldeko Proiektzioa

Kodea	Jarduketa-ildoaren Izena	Egin daitezkeen Ekintzak
P6-01	Kanpo Islapeneko kirol ekitaldiak planifikatzea	<p>EAEan antolatu daitezkeen eta kanpo islapena izan dezaketen kirol-ekintzen egutegi bat definitzen duen lankidetzaz esparrua ezartzea, Eusko Jaurlaritzaren, Aldundien eta hiriburuen Udalen (kide iraunkorrak), eta beste Udalen eta entitate pribatuen (noizbehinkako kideak) artekoa.</p> <p>Atzerrian Euskadiren irudia islatzen uzten duen Kirolaren Euskal Sistemaren eragileen partehartze indartzea, EAEtik kanpo antolatutako kirol ekimen eta jarduketetan.</p> <p>Kirolaren Euskal Sistemaren ezaugarri den irudia sortu eta hedatu.</p>
P6-02	Nazioarteko foroetan parte hartzea	<p>Nazioarteko Kirol-sareetan parte hartzea (mugaz gainekoak, kirol herrialdeak, ...).</p> <p>Nazioarteko Federazioaren barnean, euskal federazioen integrazio indartu, eta integrazio estrategia/protokolo bat diseinatu.</p> <p>Euskal Selektzioek parte hartzen duten lehiaketa ofizialen bultzatzea.</p> <p>Kirolaren Euskal Sistemaren eragileen agerpena indartu elkarte eta elkargo nazional eta nazioartekoetan.</p> <p>Kirol-zientzia ikerketen akordioak garatu eta nazioarteko kiroleko ezagutza sareetan parte hartu.</p>

P6

## 9.7. Kirola eta Kultura

Kodea	Jarduketa-ildoaren izena	Egin daitezkeen Ekintzak
P7-01	Euskal Herriko kirola sustatzea	Arraunketa Estrategia Plana landu eta ezarri. Herri Kirolen Estrategia Plana landu eta ezarri. Euskal Pilotaren Estrategia Plana landu eta ezarri.
P7-02	Euskara sustatzea	Kirola Euskaraz programa garatzea: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolaren esparruan, hezkuntzarako eduki egokiak euskaraz sortu edo euskarari egokitu. Kirol-entitateek kirolarien, teknikarien eta buruen hezkuntzarako erabiltzen duten materialaren euskaratzea bultzatu</li> <li>• Elkarteei, klubei, KS Ae i, eta orokorrean, kirol entitateei, zerbitzu elebidunak eman</li> <li>• Euskaraz lantzen diren lanen terminologiaren tratamendua, garapena eta finkapena egin</li> <li>• Kirol hezkuntzaren irakaskuntza elebiduna bultzatzea</li> </ul> SHEE/VEF Irakasle goaren euskalduntze plana garatu (jarraipena). Kirol-zerbitzu elebidunaren eskaintzaren garapena indartu. 21/1997 kirolaren emankizunaren legea aztertu, hizkuntzari dagokionez posibilitate guztiak agortzeko, lasaitasunez aztertzea merezi duten posibilitateak eskaintzen dituelako.
P7-03	Talde nortasuna	Halako ekintzen bidez, kirol talde nortasuna eraikitzen laguntzen duten gailu eta ekimenak garatu: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lurraldetako kirol-eragileen arteko lankidetzak bultzatu</li> <li>• Lurraldeen artean, bertako kirolen lehiaketak diseinatu, bultzatu eta indartu</li> <li>• Lurraldeen artean kirol-lehiaketak diseinatu bultzatu eta indartu</li> <li>• Lurraldeen artean, ezagutzaren trukeko foruak diseinatu eta indartu</li> </ul>

P7

## 9.8. Euskal Kirol Ereduaren eta Euskal Kirol Sistemaren informazio, jarraipen eta ebaluaketa programa

Kodea	Jarduketa-ildoaren izena	Egin daitezkeen Ekintzak
P8-01	Kirolaren Euskal Plana gizarteratu eta garatzea	Kirolaren Euskal Planaren barne eta kanpo Komunikaziorako eta Sozializaziorako Plan bat landu.
P8-02	Kirolaren Euskal Behatokia	Kirolaren Euskal Behatokia sortu, erregulatu, garatu eta martxan jarri; honek honako bi ekintza motak burutuko ditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>• KESan sarturiko eragile guztien Kirolaren Euskal Planaren betetzearen maila erakusten duen, eta eman litezkeen desbiderapenen zuzenketarako ekintzak ezartzea uzten duen Informazio Sistema bat diseinatu eta garatu: Aginte-Mahaia eta Jarraipen Batzordeak</li> <li>• Informazio Sistema bat diseinatu eta garatu: Aginte-Mahaia eta Jarraipen Batzordeak</li> </ul>

P8

PLANA EBALUATZEKO EREDUA

10





# plana ebaluatzeko eredua

Kirolaren Euskal Planak bere ezarpena, garapena eta emaitzak ebaluatzeko metodologia bat du bere baitan. Plangintza aldian-aldean aztertzean datza, zaharkituta geratu diren eta, jadanik diseinatu zituzten helburuetara iristen ez diren edo era ez eraginkorren iristen diren estrategiak, programak eta ekintzak aldatu edo berraztertzeke.

Horretarako, Plana Ebaluatzeko Eredua bat zehaztu da, hiru fase ezberdinetan monitorizatuko dena:

1. *Ezarpen fasea*: Planaren hasieran.
2. *Garapen fasea*: urtero, Plana betetzen den bitartean.
3. *Azken fasea*: Planaren aurreikusitako epea amaitzean.

Ondoko taulan, ebaluazioaren faseen helburu eta metodologiaren laburpena adierazten da:

Kirolaren Euskal Plana Ebaluatzeko Eredua			
Ebaluazioaren faseak	Epea	Helburua	Metodologia
1. Ezarpena	2003ko uztaila-urria	Agente ezberdinen konpromisoak zehaztu, plana abian jartzeko	Datuak eta jarduketa-protokoloak bildu eta agiriak aztertu Konpromiso eta kronogramei buruzko txosten bat egin
2. Garapena	2004, 2005, 2006 eta 2007ko uztaila	Helburuen betetze eta ekintzen berreiaketa mailan gerta daitezkeen desbideraketak aztertu, neurri zuzentzaileen bidez	Neurketa-adierazleak aztertu Inkesta espezifikoak lanerako eta gogoetarako taldeak Jarraipen-txostenak egin
3. Azken fasea	2008ko urtarrila-martxo	Planaren helburuen betetze-maila aztertu	Datuak bildu eta agiriak aztertu Inkesta espezifikoak lanerako eta gogoetarako taldeak Planaren emaitzak ebaluatzeko txosten bat egin

Ikus dezakegunez, Plana Ebaluatzeko Eredua hiru fase ditu. Lehenengoak eta azkenekoak bi ebaluazio zehatz dituzte; bigarrena, aldiz, Planaren aldizkako monitorizazioan datza. Ondoren etapa bakoitzaren edukia zehatzago adieraziko dugu.

## 1. Planaren Ezarpen Fasea

Etapa honen helburua Kirolaren Euskal Sistemaren eragile bakoitzak, Planaren garapenean bere gain hartuko lituzkeen konpromisoak zehaztea da. Kirolaren Euskal Behatokia (KEB), Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak izendatutako lan-taldeak edo organoak prozesu hau koordinatuko du.



Horretarako, Kirolaren Euskal Sistemaren eragileei Kirolaren Euskal Planaren garapean bere gain hartuko lituzkeen konpromisoak zehazteko eskatuko die. Eragileak honakoak dira: Kirolaren Euskal Kontseilua –zehazki, bere Batzorde Iraunkorra, lan batzordeak eta Osoko Bilkura–, Eusko Jaurlaritzako eta Aldundietako Sailak, Udalak, Euskadiko Kirol-federazioen Batasuna –euskal federazioen, lurralde-federazioen eta elkar-teen ordezkaria–, unibertsitateak, “AMPA” delakoak, ikastetxeak, LHko Zentroak, Institutuak, komunikabideak, merkataritzako kirol-zentroak, beste kirol-eskaintzaile eta tarteko eragile batzuk.

Beharrezko informazioa bideratzeko KEBk “datuak biltzeko protokoloa” bat diseinatu du eta lehen aipaturiko eragileei banatu die. Behin eragileek protokoloa osatuta, KEBk berak aztertuko du. Protokoloa honako ataletan banatuko da:

- Planean adierazitako ekintzen artetik, egin nahi dituenak aukeratu.
- Ekintzen helburuak.
- Hartzaileak.
- Ekintzen arduradunak.
- Esleitutako aurrekontua.
- Ekintza ebaluatzeko erabiliko diren adierazle eta parametroak.

Ondoren, KEBk, hala dagokionean, sor daitezkeen sinergiei etekin handiagoa ateratzeko beharrezko aldaketak proposatuko ditu.

Horren ostean, KEBk Kirolaren Euskal Kontseiluari, eta bereziki bere Batzorde Iraunkorrari, konpromiso eta kronogramari buruzko Txostena planteatuko dio, hala nola, ekintza ezberdinak biltzen dituzten Lehentasunezko Programen arduradun orokorrak.

## 2. Garapen fasea

Kirolaren Euskal Planean adostutako ekintza eta helburuen betetze-mailaren aldizkako ebaluazio-fase bat da (urterokoa, hain zuzen ere). KEB izango da, berriz ere datuak biltzeaz, horiek aztertzeaz eta Planaren garapenari buruzko aldizkako txostenak idazteaz arduratuko dena.



Datuak bi modutara bilduko dira:

- Aldez aurretik diseinatu dituzten ekintzen adierazleak aztertuz (1. fasea). Horretarako, horien gauzatzeaz arduratzen diren eragileen beraien informazioa, hala nola, "ad hoc" diseinatzen diren inkestetatik jasotakoa bilduko da.
- Kirolaren Euskal Sistemari dagozkion eragileez osatutako lanerako eta gogoetarako taldeen bidez. Hauek Planaren bilakaerari loturiko hainbat alderdiri buruz eztabaidatuko dute.

Txosten horietan, Planaren betetzean antzematen diren desbideraketak zuzentzeko egoki deritzoten iradokizunak adierazi ahalko dira.

### **3. Azken fasea edo bukaerakoa**

Eta honetan, KEBk Kirolaren Euskal Planean aurreikusitako helburu, programa, jarduketa-ildo eta ekintzen betetze-mailaren azken ebaluazio globala egingo du.

Horretarako, aldizka aztertutako emaitza partzialen bilakaera (2. fasea), hala nola, Planaren azken emaitza globala laburtzen dituen txosten bat egingo du. Txostena egiteko, KEBk ondoko informazio-iturriak erabiliko ditu:

- Planaren jarraipenaren aldizkako txostenak (2. fasea).
- Helburu, programa, jarduketa-ildo eta diseinatutako ekintzen betetze-adierazleen azken azterketa.
- Azken lanerako eta gogoetarako taldeak.
- Planaren helburuen eta baldintzen betetzea monitorizatzen duten inkestak.

Aipatutako txostenean adierazitako gogoeta eta ondorioak Kirolaren Euskal Plan honen abiapuntutzat erabiliko dira.



ERANSKINAK

11





# 1. Eranskina: partearzaileak prozesuan

## A1.1. Kirolaren Euskal Kontseiluko Kideak: Batzarra eta Batzorde Iraunkorrak

Izena	Kargua	Kirolaren Euskal Kontseilua	
		Batzarra	B. I.
Miren Azkarate	Kultura Saiburua. Kontseiluburua		
Imanol Agote	Kultura, Gazteria eta Kirol Saiburuordea. Kontseiluburu ordea		
José Ramón Garai	E. J.ko Kirol Zuzendaria		
Margarita Miñón	IVEF-SHEEko Zuzendaria		
Jon Iñaki Betolaza	E. J.ko Osasun Finantzaketa eta Kontratazioarako Zuzendaria. E. J.ko Osasun Saila		
Josu Aboitiz	E. J.ko Irakaskuntza Iraunkorreko Zuzendaria. E. J.ko Hezkuntza Saila		
Ricardo Espinosa	A.F.A.ko Kirol Zuzendaria		
Luis Solar	B.F.A.ko Kirol Zuzendaria		
José Luis Olaizola	G.F.A.ko Kirol Zuzendaria		
Fernando Landa	Galdakaoko alkatea. EUDEL		
Ana Rodríguez Fouz	Eibarko zinegotzia. EUDEL		
Luis Fernando Urkiola	Alonsotegiko zinegotzia. EUDEL		
Julia Bretón	Gorputz Jarduera eta Kirolaren Zientzietako Irakasle eta Lizentziatuen Elkargo Ofiziala. Euskadi		
Carlos Izar	Zuzendari nagusiaSaski Baskonia SAD		
Laurentzi Gana	Euskadiko Futbol Federazioko Presidentea		
Javier Zuriarrain	Euskadiko Eskubaloi Federazioko Presidentea. Euskal Kirol Federazioen Batasuna. Presidentea		
José M.ª Tejedor	Euskadiko Atletismo Federazioko Presidentea		
Josu Mazón	Euskadiko Igeriketa Federazioko Presidentea		
José Luis Peña	Euskadiko Errugbi Federazioko Presidentea		
Javier Arigita	Euskadiko Irristaketa Federazioko Presidentea		
José M.ª Aldamiz-Etxebarria	Euskadiko Euskal Pilota Federazioko Presidentea		
Javier de Aymerich	Entrenatzailea. IVEF-SHEEko irakaslea		
Tomás Zubimendi	Donostiako Irakasle Unibertsitate-Eskolako Zuzendaria		
Mikel Urdangarín	Estadio Fundazioko Zuzendaria. IVEF-SHEEko irakaslea		
Ana Macazaga	Gorputz Heziketako irakaslea. EHUko Irakasle Eskola		
Pedro Mari Goikoetxea	ETBko kirol zuzendaria		
Koldo Irurzun	Lan Zuzenbideko irakaslea		
María Asunción Miranda	IMD Basauri		
José Luis Astiazaran	Real Sociedad SAD taldeko Presidentea		
Ainhoa Ibarra	Kirolari olinpikoa		
Juan Francisco Mutiloa	Aspeko kudeatzailea. LFPko kidea		
Errodrigo Muro	E. J.ko Kirol Zuzendaritzako teknikaria		

### A.1.2. Oinarriko txostenak idatzi dituzten Lan-Batzordeak. Laburpen koadroa

Batzordea	Esparrua
Antolaketa Estrategia eta Eredua	Kirol-estrategia, jarduketa-egitura eta kirol-kudeaketan parte hartzen duten eragile publiko zein pribatu ezberdinen erantzukizunak, hala nola, euren arteko erlazioa mugatu
Ekonomia	Kirol-jardueraren finantzazioa erraztu eta arautzeko mekanismoak zehaztu eta ezarri
Azpiegiturak	Euskal Herrian, kirol-azpiegituren sarea garatu, mantendu eta kudeatzeko eredu bat zehaztu eta ezarri
Prestakuntza eta Enplegua	Kirolarekin loturiko erakunde ezberdinen koadro tekniko, arbitral, administratibo eta zuzentzailearen egiturak eta prestakuntza planak ezarri. Modu berean, Euskadin, kirol-arloan enplegua sortu eta mantentzearen sustapenerako ekintzak antolatu
Bikaintasuna	Goi errendimenduko kirolari euskaldunen errendimendua handitzera zuzenduriko politika eta jarduketak planak zehaztu, beren prestakuntza akademiko eta profesionala kaltetu gabe
Sustapena eta Aukera Berdintasuna	Kirolaren sustapenerako politikak eta jarduerak zehaztu, maila guztietan Kirol-munduan aukera berdintasuna helburu duten estrategiak eta ekintzak mugatu, hala nola, kirol-jarduera, talde guztien arabera, kirola gizarte-kohesioko elementu gisa jokatuz
Osasuna	Kirol-osasunerako politika mugatu; kirol-jarduerari loturiko lesioen aurrezaintzea, kirolariendako osasun laguntza, dopingaren kontrako politika, e.a.
Etika eta Indarkeria	Jokabide etikoak zaindu eta kirolari loturiko indarkeriari aurre egitera zuzenduriko politikak eta jarduerak ezarri
Nortasuna	Norberaren identitate-ezaugarriak zaindu, sustatu eta bulzatzen zuzenduriko estrategiak eta ekintzak mugatu, kirolaren bidez (kirol autoktonoa, Euskal Herriaren irudia zabaldu, kirol-ekitaldiak, e.a.)

### A.1.3. Oinarriko txostenak idatzi dituzten Lan-Batzordeak: Batzordeen xehetasuna

C1

<b>Batzordearen Izena</b>	C.1 Estrategia eta Eredu Antolatzailerak	<b>Batzordeburua</b>	Juan Francisco Mutiloa
<b>Txostengilea</b>	Juan Francisco Mutiloa	<b>Batzordekideak (*)</b>	José Ramón Garai, Ricardo Espinosa, José Luis Olaizola, Luis Solar, Fernando Landa, Javier Zuriarrain, Juan Francisco Mutiloa
<b>Jarduketa esparrua</b>	Kirol-estrategia, jarduketa-egitura eta kirol-kudeaketan parte hartzen duten eragile publiko zein pribatu ezberdinen erantzukizunak, hala nola, euren arteko erlazioa mugatu		
<b>Oinarrizko Edukiak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskadiko kirolaren estrategia orokorra zehaztu</li> <li>• Administrazio-maila bakoitzeko oinarrizko erantzukizunen eskema mugatu; Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak, indarreko antolamendu juridikoaren arabera eta eraginkortasun irizpideak kontuan hartuz, Kirolaren Euskal Planetik eratorritako jarduerak gauzatzean. Erantzukizunak erabiltzaileen funtsezko lau ardatzen arabera antolatuko lirateke: <ul style="list-style-type: none"> <li>– Goi Errendimenduko kirola</li> <li>– Errendimenduko kirola</li> <li>– Partaidetzako kirola</li> <li>– Eskola-kirola</li> </ul> </li> <li>• Teknologia berriak ezarri, kirol-politika eta praktiken zehazpen, ezarpen eta jarripenean.</li> </ul>			

\* Etzanaz dauden izenek gonbidatu gisa parte hartu zuten, eta beraz, ez dira Kirolaren Euskal Kontseiluko kide.

## C2

<b>Batzordearen Izena</b>	C.2 Ekonomia	<b>Batzordeburua</b>	Carlos Izar
<b>Txostengilea</b>	Carlos Izar	<b>Batzordekideak (*)</b>	Carlos Izar, Luis Fernando Urkiola, José Ramón Garai, José Luis Astiarazan, Pedro Mari Goikoetxea. <i>Invitados: Alfonso Arriola, Joseba Intxaurrea, Javier García, Joseba Fernández</i>
<b>Jarduketa esparrua</b>	Kirol-jardueraren finantzazioa erraztu eta arautzeko mekanismoak zehaztu eta ezarri		
<b>Oinarrizko Edukiak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Finantziario Publikoa: balizko finantziario publikoko iturriak zehaztu (ohiko aurrekoak, loteria eta kirolapustu sistemak, e.a.)</li> <li>• Finantziario Publikoa: kirol-jardueren finantziarioan, irizpide garden eta sistematiakoak eziamaila guztietan <ul style="list-style-type: none"> <li>– Goi Errendimenduko kirola</li> <li>– Errendimenduko kirola</li> <li>– Partaidetzako kirola</li> <li>– Eskola-kirola</li> </ul> </li> <li>• Finantziario Pribatua: maila guztietako kirol-jardueren finantziarioan, partehartze pribatua bultzatu; laguntza sistemak, mezenasgoa, neurri fiskalak, e.a. sustatuz</li> </ul>			

## C3

<b>Batzordearen Izena</b>	C.3 Azpiegiturak	<b>Batzordeburua</b>	Josu Mazón
<b>Txostengilea</b>	Jesús Vázquez	<b>Batzordekideak (*)</b>	Ana Rodríguez, Josu Mazón, María Asunción Miranda. <i>Gonbidatuak: Iñaki Mugika, Javier Chocarro, Oscar Garbisu, Jesús Vázquez, José Luis Andueza, Kepa Odriozola</i>
<b>Jarduketa esparrua</b>	Euskal Herrian, kirol-azpiegituren sarea garatu, mantendu eta kudeatzeko eredu bat zehaztu eta ezarri		
<b>Oinarrizko Edukiak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol-instalazioen Errolda egin</li> <li>• Azpiegitura berriak eraiki eta mantentzeko planak onetsi eta lehenesteko irizpideak mugatu (negozio/bideragarritasun plan bat aurkeztu, segurtasun-irizpideak, malgutasuna, ingurumenarekiko begirunea, balioaniztasuna, e.a.)</li> <li>• Euskal Herrian, kirol-ekipamenduei buruzko Plan bat egin</li> <li>• Kirol-instalazioak eraiki eta mantentzeko finantziario/kudeaketa formulak mugatu</li> </ul>			

## C4

<b>Batzordearen Izena</b>	C.4 Prestakuntza eta Enplegua	<b>Batzordeburua</b>	Tomás Zubimendi
<b>Txostengilea</b>	Tomás Zubimendi	<b>Batzordekideak (*)</b>	Julia Breton, Joseba Etxebarria, Josu Aboitiz, Tomás Zubimendi, Javier Arigita, Ana Macazaga. <i>Invitados: Mikel Bringas, Julián Gómez, Rubén Bueno.</i>
<b>Jarduketa esparrua</b>	Kirolarekin loturiko erakunde ezberdinen koadro tekniko, arbitral, administratibo eta zuzentzailearen egiturak eta prestakuntza planak ezarri. Modu berean, Euskadin, kirol-arloan enplegua sortu eta mantentzearen sustapenerako ekintzak antolatu		
<b>Oinarrizko Edukiak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Entranantzaileen prestakuntza eta titulazioa: maila guztietako kirolarien entrenatzaile boluntario zein profesionalendako ikaskuntza eta hobekuntzako prestakuntza-esparru bat ezarri.</li> <li>• Arbitroen prestakuntza eta titulazioa.</li> <li>• Gainerako teknikarien, prestatzaile fisikoen, masajisten, medikuen eta abarren prestakuntza eta titulazioa.</li> <li>• Kirol-kudeaketa, plangitza estrategikoa, marketinga, finantzak, laguntza, giza-baliabideak eta abarrekin loturiko elkarte eta kirol-federazioen administrarien prestakuntza eta titulazioa.</li> <li>• Euskal Herrian, kirol-arloan enplegua sortu eta mantentzearen sustapenerako ekintzak mugatu.</li> </ul>			

\* Etzanaz dauden izenek gonbidatu gisa parte hartu zuten, eta beraz, ez dira Kirolaren Euskal Kontseiluko kide.

\*\* Beste laguntzaileak: Fernando Garrigós.

# C5

<b>Batzordearen Izena</b>	C.5 Bikaintasuna		<b>Batzordeburua</b>	José Luis Astiazaran
<b>Txostengilea</b>	HTZ Eusko Jaurlaritza	<b>Batzordekideak (*)</b>	José Luis Astiazaran, Ainhoa Ibarra, José Luis Peña. <i>Gonbidatuak: Jon Iriberrí, Xabier Leibar, Ramón Cid, Iñigo Mujika, Joaquín Plaza, Raúl García</i>	
<b>Jarduketa esparrua</b>	Goi Errendimenduko kirolari euskaldunen errendimendua handitzera zuzenduriko politika eta jarduketa planak zehaztu, beren prestakuntza akademikoa eta profesionala kaltetu gabe			
<b>Oinarrizko Edukiak</b>				
Euskal Herrian, sustatzeko kirol-modalitateak eta goi-mailako kirolariak hautatzeko estrategia.				
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolarien prestakuntza teknikoa: Goi Errendimenduko kirolarietara zuzentzen diren kirol-institutuak edo institutus sareak.             <ul style="list-style-type: none"> <li>– Entrenamendua eta hobetze teknikoa; banakako eta monitorizatutako entrenamendu-planak, e.a.</li> <li>– Kirol-zientzia eta medikuntza zerbitzuak; testak, azterketa medikuak, e.a.</li> </ul> </li> <li>• Goi Errendimenduko kirolariendako aholkularitza profesionala; prestakuntza planak, plangitza profesionala, e.a.</li> <li>• Goi Errendimenduko kirolarien lan-munduan sartzea.</li> <li>• Goi Errendimenduko kirolarien prestakuntza akademikoa;goi-mailako hezkuntza-sistema malguak (lizentziaturak, karrera teknikoak, lanbide heziketa, e.a.)</li> <li>• Promesa gazteak identifikatzeko estrategiak; identifikazio-prozesuak, kirolari gazteak babesteko estrategiak, gutxiengo adinak ezartzea, e.a. Beren prestakuntza akademikoa eta kirol-hoberkuntza, e.a. bateratzea ahalbidetzen duten ikastetxe, institutu eta ikasketak-planak</li> </ul>				

# C6

<b>Batzordearen Izena</b>	C.6 Sustapena eta Aukera Berdintasuna		<b>Batzordeburua</b>	Mikel Urdangarin
<b>Txostengilea</b>	Mikel Urdangarin	<b>Batzordekideak (*)</b>	Javier de Aymerich, Mikel Urdangarin, José María Tejedor. <i>Gonbidatuak: Ricardo Gaisán, Fernando Martínez de Ilarduya, Iñaki de Mugika, Esther Villaverde, Boni Teruelo, José Ramón Aldanondo</i>	
<b>Jarduketa esparrua</b>	Kirolaren sustapenerako politikak eta jarduerak zehaztu, maila guztietan. Kirol-munduan aukera berdintasuna helburu duten estrategiak eta ekintzak mugatu, hala nola, kirol-jarduera, talde guztien arabera, kirola gizarte-kohezioko elementu gisa jokatuz			
<b>Oinarrizko Edukiak</b>				
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol-jarduera, orokorrean sustatu, maila guztietan</li> <li>• Gazteen (eskola eta unibertsitate ikasleen) partehartzea sustatu, kirol-jardueretan</li> <li>• Emakumeen partehartzea sustatu, kirol-munduan:             <ul style="list-style-type: none"> <li>– Emakumeendako aukera berdintasuna, maila guztietako kirolean partehartzean; eskola-kirolean, aisialdiko kirolean, lehiaketa-kirolean, goi-mailako kirolean</li> <li>– Kirol-elkarteetan eta federazioetan, koadro tekniko, arbitral edo zuzentzaile lanpostuetan sartzeko berdintasuna</li> </ul> </li> <li>• Minusbaliatuen partehartzea sustatu, kirol-munduan:</li> <li>• Minusbaliatuendako aukera berdintasuna, maila guztietako kirolean partehartzean; eskola-kirolean, aisialdiko kirolean, lehiaketa-kirolean, goi-mailako kirolean</li> <li>• Kirol-elkarteetan eta federazioetan, koadro tekniko, arbitral edo zuzentzaile lanpostuetan sartzeko berdintasuna</li> <li>• Hirugarren adinekoei partehartzea sustatu, kirol-jardueran (ariketa fisikoko programa-jarduera espezifikokoak eta agokituak diseinatu, kirola hirugarren adinekoei hurbiltzeko eragile eta aliantza-sarea, e.a.)</li> <li>• Talde baztertuak kirol-jardueran sartu, euren gizarteratzea lortzeko bitarteko gisa</li> </ul>				

\* Etzanaz dauden izenek gonbidatu gisa parte hartu zuten, eta beraz, ez dira Kirolaren Euskal Kontseiluko kide.

## C7

<b>Batzordearen Izena</b>	C.7 Osasuna	<b>Batzordeburua</b>	Javier Zuriarrain
<b>Txostengilea</b>	Kepa Lizarraga	<b>Batzordekideak (*)</b>	J. I. Betolaza, Laurentzi Gana, Javier Zuriarrain. <i>Gonbidatuak: Kepa Lizarraga, Afonso Angulo, Josean Lekue, José F. Aramendi, Iñigo Antia, Jesús Abad.</i>
<b>Jarduketa esparrua</b>	Kirol-osasunerako politika mugatu; kirol-jarduerari loturiko lesioen aurrezaintzea, kirolariendako osasun laguntza, dopingaren kontrako politika, e.a.		
<b>Oinarrizko Edukiak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>Kirol-lesioen aurrezaintzea; komunikazio-kanpainak, hitzarmenak Federazio eta elkarteekin, kirol-istripu eta lesioen aurrezaintzarako kalitate-estandarrak zehaztu</li> <li>Laguntza Zerbitzua; talde honen behar bereziei modu eraginkorrean erantzuten dien lesionatutako kirolariendako (federatuak edo ez) laguntza-sistema bat mugatu</li> <li>Kirol-zientzia eta medikuntza zerbitzuak: kirolari eta entrenatzaileei zuzenduriko medikuntza, elikadura psikoterapia, masaje, biokimika, psikologi eta fisiologi zerbitzuak</li> <li>Dopingaren kontrako politika: ondoko duen dopingaren kontrako politika diseinatu eta ezarri: <ul style="list-style-type: none"> <li>Dopatzea kontrolatzeko eskema bat: lehiaketak planifikatu eta hautatu, kontrolak egiten dituzten mediku edo espezialisten sarea, debekatutako substantzien zerrenda eta kantitatea ezarri, kontrolatzeko prozesu eta batzordeak diseinatu, zigorrak ezarri, e.a.</li> <li>Dopingari eta honek kirolean dituen ondorio negatiboei buruzko komunikazio eta hezkuntza estrategia bat</li> </ul> </li> <li>Kirola, osasuntsu egoteko bitarteko gisa sustatu eta bultzatu</li> </ul>			

## C8



<b>Batzordearen Izena</b>	C.8 Etika eta Indarkeria	<b>Batzordeburua</b>	José Ramón Garai
<b>Txostengilea</b>	Manuel Abajo	<b>Batzordekideak (*)</b>	José Ramón Garai, José Luis Olaizola, Ricardo Espinosa, Luis Solar, Laurentzi Gana. <i>Gonbidatua: Alberto Sanz.</i>
<b>Jarduketa esparrua</b>	Jokabide etikoak zaindu eta kirolari loturiko indarkeriari aurre egitera zuzenduriko politikak eta jarduerak ezarri		
<b>Oinarrizko Edukiak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>Kirolean, jokabide etikoak babesteko mekanismoak ezarri.</li> <li>Kirol-jardueran, adinez txikikoak babestera zuzenduriko ekintzak mugatu.</li> <li>Kirol-jardueran, indarkeriaren kontrako sustapenerako estrategia (jokabide-kodeak, kontrol-sistemak, e.a.).</li> </ul>			

## C9

<b>Batzordearen Izena</b>	C.9 Nortasuna	<b>Batzordeburua</b>	Koldo Irurzun
<b>Txostengilea</b>	Koldo Irurzun	<b>Batzordekideak (*)</b>	Koldo Irurzun, José María Aldamiz-Etxebarria, José Fernández Vaqueriza. <i>Gonbidatuak: Joseba Aginagalde, Iñaki Agirreazkuenaga, Iñaki Ugarteburu, J. Inazio Zulaika, Juan José Ziarrusta</i>
<b>Jarduketa esparrua</b>	Norberaren identitate-ezaugarriak zaindu, sustatu eta bultzatzera zuzenduriko estrategiak eta ekintzak mugatu, kirolaren bidez (kirol autoktonoa, Euskal Herriaren irudia zabaldu, kirol-ekitaldiak, e.a.)		
<b>Oinarrizko Edukiak</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>Kirolaren bidez Euskal Herriaren irudia zabaldu eta sustatzea ahalbidetzen duten mekanismoak mugatu: <ul style="list-style-type: none"> <li>Nazioarteko lehiaketetan, euskal ordezkariak.</li> <li>Nazioarteko izaerako kirol-ekitaldiak antolatu (lehiaketak, mintegiak, e.a.).</li> </ul> </li> <li>Herrian, euskal kirol autoktonoa zaindu, sustatu eta bultzatzea ahalbidetzen duen estrategia bat antolatu.</li> <li>Kirol-ekitaldi eta lehiaketetan, euskara sustatzeko politikak zehaztu (heziketa planak, euskara publikoki agertzea, e.a.).</li> </ul>			

\* Etzanaz dauden izenek gonbidatu gisa parte hartu zuten, eta beraz, ez dira Kirolaren Euskal Kontseiluko kide.







A.1.4. Eragile partehartzaileen mapa





## 2. Eranskina: Kirolak lehenesteko irizpideak

### A.2.1. Kirolak lehenesteko irizpideak: Benchmarking azterketa

Herrialdea	Kategoria		Irizpideak	Saikapena
	P	R		
Esjuzia (1) 			Kirol-federazioak, federazio bakoitzari eman behar zaizkion diru-laguntzak kuantifikatzen laguntzen duten lau taldetan banatzen ditu. Modalitate ezberdinen saikapena, lor ditzaketen helburu estrategikoen arabera da; Kirola guztion eskura; Nazioarte-mailako emaitza lehiakorrek eta Kirol-talentua aitortzea.	1º taldea: 12 modalitate (21%) 2º taldea: 9 modalitate (16%) 3º taldea: 11 modalitate (19%) 4º taldea: 26 modalitate (45%)
Irlanda (2) 			Hiru saikapen, ondokoari jarraiki: Garapen-kalitatea E/Lan eta errendimendu-planak, ipinitako helburuak lortzeko ahalmena, azken zortzi urteetako emaitzak, eskatutako laguntza-maila, zientzia, medikuntza eta kudeaketa zerbitzuak erabili, estrategia nazionalarekiko iraunkortasuna, kirolaren perfil publikoa eta, entrenatzaileen entrenamendu eta hezkuntzarako programak.	
Zeelanda Berria (3) 			Lehenetsuneko kirolen estrategia: 2002-2006 Plan Estrategikoan hautatutako zazpi kirol, ondokoa betetzen dutenak: partehartze-kuota altuak, emaitzak nazioarte-mailan, industri eta azpiegiturekiko lotura. Txirrindularitza, Igeriketa edo Atletismoaren moduko kirolak sustatzeko estrategia.	
Australia (2) 			Kirol-federazioetako 5 talde, Irizpideak lautan banatzen dira: a) partaide-kopurua (> 1000 lehiakide, nazioarteko lehiaketetan parte hartzea, b) nazioarteko federazio garrantzitsu bati egokitzea (> 25 kide), olinpiadetan edo munduko lehiaketetan lehen 16en artean geratzea, c) programa olinpikoari egokitzea, d) Australiako kirol tradizional/autoktonoa (> 75 urte eta jarduneko partaide-kopuru handia).	
Erresuma Batua (UK Sport) (4) 			3 kirol-talde eta hautatutako kirol-talde bat, banakako kirolariendako programa bereziak diseinatzeko beharagatik; domina-potentziala, errendimendu-sistemaren nabarmenetzea, ibilbidea, goi-mailako kirolarien kopurua (World Class), domina-kopurua eta modalitatearen garrantzia mundu-mailan.	P1: 4 modalitate P2: 8 modalitate P3: 8 modalitate Banakako Programak: 6 modalitate
Ingalaterra (4) 			Garrantzi publikoko maila (iritzi publikoari, partehartzeari, telebisten hedadurari, ilus-entzuleen kopuruari eta prentsan duen agertze-ari buruzko inkestak), frogatutako arrakasta eta munduko lehiaketetan potentziala.	

P: Partehartzea R: Errendimendua

(1) Sport "1 Plan Estregikoa. (2): ISCaren Goi Errendimenduiko Plan Estretegikoa. (3): SPARCaren Plan Estretegikoa. (4): Game Plan.

### A.2.2. Kirolak lehenesteko irizpideak: irizpideetarako proposamena (zirriborroa)

Hasierako azterketa teknikoaren ostean, EAEn kirol-motak lehenestea erraztuko luketen irizpide batzuk aztertu dira, zehazki jarraian ageri direnak. Aipatu beharra dago, irizpide hauek aldagarriak direla eta euren neurri edo pisu espezifikoaren ikerketa sakonari lotuak daudela.

Horretarako, planak berak aipatutako lehenestearen azterketa sakonagoa ezartzen du, hala Errendimenduko eta Goi Errendimenduko kirolean (3 Programa: Kirol-bikaintasuna. Jarduketa-ildoak P03-01 "Kirolak eta kirolariak lehenestea") nola Partaidetzako kirolari dagokionez (2 Programa: Kirola sustapena eta bultzatzea. Jarduketa-ildoak P2-01 "Partaidetzako kirola sustatzea").

Errendimendu/Goi Errendimenduko Kirola	
Irizpide-multzoa	Irizpidea
GEko Ordezkaritza	GMko lehiaketetan lortutako emaitzen bilakaera GEko kirolarien bilakaera
GE Proiektuaren ahalmena	Federazioen baimenen kopuruaren bilakaera Etorkizun oparoko kirolarien kopuruaren bilakarea Adin-maila (Prestakuntza / Etorkizuna / GE) Biztanleen ezaugarri morfologikoeikiko bateragarritasuna Euskal selekzioko proiektua Errendimendu-koste azterketa: dirua/iraupena/dominak/zailtasunak Beste kirolekiko aplikagarritasuna: unibertsalak / zabala edo itxia espektro
Gizarte-eragina	Eragin mediatikoa: komunikabideetan agertzea Eragin ekonomikoa Jendearen harrera (inkestean emaitzak)
Giza-baliabideak	Gaitutako eta profesionalizatutako zuzendari teknikoa egotea Euskal Federazioan (lizentziatua + Masterra ARD) Entrenatzaile nazionalak Soin Hezkuntzan lizentziatuak Gaitutako medikuak Orientatzaile titulatuak (Lizent Psiko-Pedag.) Tutorea Taldearen arduradun / delegatua
Baliabide materialak	Barne instalazioa Atxikita hitzartua Kanpoko hitzartua Kanpoko ez Laguntza-maila
Federazioaren garrantzia	Izaera estrategikoa (14/1998, Euskadiko kirolaren Legea) Nazioarteko loturarekin (adb.- estatuz gaindiko erakundeetako kide) Mugaz bestaldeko lankidetzak Programa olinpikoaren barneko modalitatea
Ordezkaritza eta Ezartzea	Fitxa-kopuruaren bilakaera Gizarte-ezartzea Jendearen harrera: Inkestean emaitza Herri-proben eta partehartzearen bilakaera
Baliabide materialak	Instalazioen eskuragarritasuna (publikoak –EMD– edota pribatuak)
Kirol-praktika honi atxikitako balore eta Printzipio orokorren eragina	Eragina, osasun eta ongizatean Sozialitate Gizarteratze-ahalmena Ingurumenarekiko harremana Lana eta aberastasun ekonomikoa sortzeko ahalmena Aukera berdintsunerako politikarekin bat egitea
Kirolaren Ahalmen konstruktiboa	Kirolariaren kirol-ahalten integralaren garapenaren ezartzea dela eta
Unibertsaltasuna	Beste kirolak praktikatzeko Oirrarizko eta aplikagarriak
Autoktonoak	Kirol-mota autoktonoak jokora eta partehartze-kirolaren esparrura mofdatzeko ahalmena

### 3. Eranskina: *Eusko Legebiltzarraren ekarpenak 2003-2007 Kirolaren Euskal Planari*

*Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak 2004ko martxoaren 29ko bileran onartutako ebazpenak, 2003-2007 Kirolaren Euskal Planari zenbait ekarpen egiten dizkietenak.*

1. Planean beste paragrafo bat sartzea, beraren ebaluazioari buruzko 10. paragrafoaren aurretik. Paragrafo berria euskal herritarrek kirola dela-eta dituzten ohituren eta jarrerren inkestari buruzkoa izango da. Erreferentzia-gune iraunkor bat izango da, urterokoa, arlo honetan burututako politika publikoak eta ekintza pribatuak destinatarioengan –hau da, herritarrengan– izaten doazen eraginen gainekoa.
2. “Euskal kirolaren egoeraren azterketa: bestelako zehar-alderdiak” izenburuko idatz-zatian honako hauek gehitzea:
  - a) Kirolari eta ingurumenari buruzko idatz-zati bat, kontuan izanik zer elkarlotura dauden garapen iraungarriarentzat garrantzizko diren bi kontzeptu hauen artean.
  - b) Beste idatz-zati bat kirolari eta komunikabideei eskainia, teknologia berriak barne. Interesgarria da kontuan izatea kirolak euskal prentsa eta irratietan duen eragina, bai eta digitalizazioak kirol-emankizunetan izango duen garrantzia ere.
3. Urtero-urtero planaren betetze-mailari buruzko txosten bat egingo da. Txosten hori Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko da, dagokion batzordean.
4. Kirolaren arloan euskara sustatzeko jardunak benetan garatzea posible izan dadin aukeratutako hizkuntzan parte hartze aktiboa. Helburu horrekin, lehentasuna duten hiru arlotan Kirola Euskaraz programa modu eraginkorrean ezartzeari emango zaio arreta berezia: sentsibilizatu eta zabaltzean, baliabide materialak sortu eta zabaltzean eta prestakuntza-ikastaroetan.
5. Arreta berezia ematea erakunde publikoen arteko koordinazioari eta erakunde horien eta sektore pribatuko agenteen arteko koordinazioari, jarritako helburuak modu eraginkorrean lortzen direla eta kirolaren euskal ereduaren garapen zuzena bermatu ahal izateko.
6. Kirolaren garrantzi berezia onartzea, bereziki honako arlo hauetan: osasuna hobetzeko eta kohesio soziala lortzeko tresna gisa, balio hezitzaile eta kulturalen beharrezko transmisiorako elementu eraginkor gisa, aberastasuna sortzeko motor gisa eta herri garatutakoaren irudia sustatzeko faktore gisa.
7. Gure kirol-eredurako erreferentzi gisa baliagarri diren balioak gizarteratzeari garrantzi berezia ematea, batez ere honako balio hauek gizarteratzeari: beren baldintza sozialak, ekonomikoak eta fisikoak, minusbaliotasuna, eta arraza eta sexuaz kanpo, pertsonak berdinak direla onartzea, kirola egiteko herritar guztien eskubidea onartzea eta, baita, kirola egitean eta bai kirol-ikuskizunetan indarkeria gaitzestea ere.

8. Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak planteatzen duenaren arabera, Euskal Herriko kirolen sustapena bermatuko duten neurriak garatzea, kanpo-proiektzioarako gai garrantzitsu den aldetik, eta gure euskal kultur nortasunaren elementu den aldetik, planari jarraiki kirolaren euskal eredia banatua izan den kirola egiteko lau motei dagokienez.
9. Helburu eta ildo estrategikoen artean honako hauek indartzea:

Kirola eta indarkeria. Kirolaren euskal ereduan, kirol praktika eta ikuskizunen inguruko indarkeriazko portaerak aurreikusi eta ezabatu behar dira, neurri zehatzak jarriaz.

Kirola eta berdintasuna gizon eta emakumeen artean. Kirolaren euskal ereduan, gizonak eta emakumeek kirola berdintasunean egitea ere bultzatu behar da.

Kirola eta dopinga. Kirolaren euskal ereduan, dopinga goi-mailako kirolariei soilik dagokien zerbait bezala ez ezik, osasun publikoko arazo bat bezala ere tratatu behar da beste kategoria batzuetako kirolari-talde handiengana ere hedatzen delako.
10. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio 2004 urteko epean idatz ditzala euskal kirol azpiegiturei eta ekipamenduei buruzko planak, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztietako aurrekontu nagusien barruan sartu ahal izan daitezen.
11. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio unibertsitateko zein unibertsitatetik kanpoko kirola sustatzeko.
12. Eusko Legebiltzarrak adierazten du garrantzitsua dela familiaren eremua kirol-jardunak haurtzarotik sustatzeko.
13. Emakumeei kirol arloan benetako presentzia bermatzeko jarritako jardunen garrantzia azpimarratzea, kirolaren egitura guztietan emakumeen parte hartzea maila berekoa izateko lagungarri diren faktoreei arreta berezia emanez. Horretarako, erakunde-kanpainak egingo dira eta emakumeak kirola oro har egiteko neurri erreal gehiago ezarri behar dira, baita estamentu eta zuzendaritzakargu guztietan emakumeari sarrera ematekoak ere.
14. "6.3 Kalitatearen baloreak indartzea" izenburuko puntuan honako idatz-zati hau gehitzea: "Kirolaren eta drogamendekotasunei buruzko planen arteko koordinazioa".
15. Kirol-epailea sustatzeko eta bultzatzeko eskatzen da, gaitasunari eta kirol-lehiaketa guztietan espezializatuta izateari dagokionez, oinarrizko elementua baita kirol-jardunean.
16. Nazioartean euskal kirolaren presentzia bultzatzea. Zentzu horretan, eta ahal den neurrian, euskal federazioek nazioarteko federazioetan eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko modua zehaztuko duten baliabide adostuak sustatzea.